

2009. URTEKO
TXOSTENA
2009



CAF

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.
ETA CAF TALDEA OSATZEN DUTEN MENDEKO ELKARTEAK



| | |
|--|-----------|
| Lehendakariaren eskutitza | 2 |
| Taldeko 2009ko Kudeaketa Txosten Bateratua | 6 |
| · Emaitzak | 7 |
| · Merkataritzako jarduera | 8 |
| · Industria jarduera | 10 |
| · Giza baliabideak | 12 |
| · Ingurumenarekin lotutako jarduera | 13 |
| · Inbertsioak | 14 |
| · Garapen teknologikoa | 15 |
| · Arriskuak kudeatzeko politika | 17 |
| · Sozietateari buruzko informazioa | 20 |
| · Gobernu korporatiboa | 24 |
| · Etorkizuna | 25 |
| · Ondorengo Gertaerak | 25 |
| Ikuskatzailearen Eskutitza | 26 |
| Talde Bateratuaren Urteko Kontuak | 29 |
| · Egoera-balantzeak | 30 |
| · Galdu-irabazien kontuak | 32 |
| · Esku-diruaren fluxuen egoerak | 33 |
| · Sarrera eta gastuen egoerak | 34 |
| · Ondare garbien aldaketen-egoerak | 35 |
| · Memoria | 36 |
| Administrazio-Kontseiluaren Onarpena | 95 |
| Administrazio Kontseiluak batzar nagusiak onar ditzan aurkeztu dituen erabakiak | 96 |
| Emaitzak aplikazio proposamena | 97 |
| Administrazio Kontseilua | 97 |
| Informazio Osagarria 2005-2009 | 99 |
| · Egoera-Balantze Bateratuak | 100 |
| · Galdu-irabazien kontu bateratuak | 102 |
| · Burtsari Buruzko Informazioa | 103 |

2009. URTEKO TXOSTENA



CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.
ETA CAF TALDEA OSATZEN DUTEN MENDEKO ELKARTEAK

Argitalpen honek CAF
eta bere Mendeko Sozietateen
dokumentazio legala jasotzen du
eta frantsesez, gaztelaniaz
eta ingelesez
ere argitaratu da.

www.caf.net helbidean CAFi
eta bere produktuei buruzko
informazioa nahiz akziodun
eta inbertitzaileei legez
ezarritakoa aurki daiteke.



LEHENDAKARIAREN ESKUTITZA

Akziodun agurgarriak:

Beste urte batez, atseginez zuzentzen natzaizue Akziodunen Batzar Orokorrak onartuko dituen 2009 Ekitaldiko Urteko Kontuak eta Kudeaketa Txostena aurkezteko asmoz. Horieta, xehetasunez adierazi ditugu gure Enpresak iaz egin zituen jarduerak, eta garrantzitsuen artean, jarraian laburbilduta daudenak aipa ditzakegu.

2009ko ekitaldia oso garrantzitsua izan da guretzat, gure jardueren nazioarteko izaera nabarmen handiagotu baitugu. Horren erakusgarri da Latinoamerikan lantegiak abian jarri izana, batez ere Mexikon eta Brasilen; izan ere, aurrerapauso handia da garapen handiko etorkizuna duten merkatuetan.

Horrez gain, aurten emaitza positiboa izan dugu, nahiz eta azkenaldian ingurune ekonomiko zaila izan dugun. Zehazki, Taldeak 1.258 milioi euroko salmenten zenbatekoa lortu du; hau da, 2008an lortutakoa baino % 25 gehiago.

Taldearen emaitzari dagokionez, sozietate nagusiari esleitutako zergen ondoren, 124,3 milioi euro lortu ditu; hau da, aurreko ekitaldiko datuekin alderatuta, % 18ko igoera izan du. Interesen, zergen eta amortizazioen aurreko irabaziei dagokionez (Ebitda), 162,6 milioi euro lortu dira; hau da, 2008ko zenbatekoa baino % 32 gehiago. Azkenik, zergen aurreko cash-flowak ere goranzko joera izan du, 147 milioi eurotan jarri arte.

Hori guztia kontuan hartuta, Akziodunen Batzar Orokorrari proposatu diogu akzio bakoitzeko 10,5 euro gordineko dibidenduen banaketa egiteko aukera aztertzeke; horrek iazko ekitaldiko dibidendua % 10,5 handiagotzea ekarriko luke.

Emaitza ekonomikoen atala amaitzeko, 2009 urteko ekitaldiaren itxieran, eskaeren zorroak izandako bolumena nabarmendu behar da, 4.336 milioi eurokoa baitzen.

Aurrekoa iaz egindako merkataritzako jardueraren emaitza izan da; horri esker, 1.457 milioi euroko balioa zuten esleipenak eskuratu genituen. Barneko merkatuarekin hasita, aipatu beharrekoa da Euskotrenentzat egin beharreko 30 unitate elektrikoren horniketarako kontratua, baita Ferrocarrils de la Generalitat de Catalunyaen 113 serieko unitate berriak ere, edo RENFEren 75 tren ezinduentzako irisgarritasuneko araudi berrira egokitzeko lanei dagokiona. Baina aipamen berezia egin behar zaie hauei: Bahía de Cádizeko tren-tramaren horniketarako kontratuak, material mugigarri edo gurgildun mota horretarako Espainiako lehenengoa denak, eta Zaragozako tranbia, hiriguneko ibilbideko zati batzuetan katenariarik gabe ibiltzeko gaitasuna duena. Kasu honetan, CAFek bere gain hartu du datozen 35 urteotarako tranbia horren ustiaketa komertzialaren sozietate arduradunari dagokion lidergo lana egiteko konpromisoa.

Nazioarteko merkatuei dagokionez, eskaera hauek izan ditugu: Turkian Istanbuleko metroko 30 unitate hornitzeko eskaera, Ipar Irlandan 20 diesel tren egitekoa, Houstonen (AEB) 29 tranbia gehigarri egitekoa, aurretik kontratatutakoez gain, eta horiei gehitu behar zaizkie Bruselako metroko beste 6 tren eta Sao Pauloko aldirietako 8 tren. Aurrekoaz gain, CAFentzat berriak diren merkatuetan kontratuak lortu ditugu; esaterako, Indiarako 8 tren, Delhi eta aireportua lotzeko, 12 tren Kolonbian Medellinako metrorako, eta 30 tren Serbian Belgradeko metrorako.

Entregan atalari dagokionez, berriz, nabarmendu beharrekoa da 2009an hainbat proiektu amaitu ditugula (azken unitateak fabrikatu ditugu). Zehazki, Gasteizko tranbiaren 7 unitate,

Bilboko metroko 4 bagoiko 8 tren, RENFERako 22 CIVIA III unitate eta Ferrocarrils de la Generalitat de Catalunya-ren 213 serieko 3 tren burutu ditugu. Esportazioko merkatuari dagokionez, Antalyako tranbiaren 8 unitate entregatu ditugu, Aljeriako metroko 11, SNTFrako diesel tren bat (Aljeria) eta Erromako metrorako 2 atoi bagoi.

Horrez gain, 2009an, guztira, gure lantegietatik honakoak atera ziren gure bezeroentzat: abiadura handiko eta zabalera aldakorreko 22 tren RENFERentzat, eskualdeko 39 tren elektriko eta eskualdeko 23 diesel tren bezero berarentzat, abiadura handiko 10 tren Turkiarako, Mexikoko metrorako 4 tren eta beste 4 Erromako metrorako, Fesur operadore pribatuarentzako lehenengo tren makina mistoa eta Sao Pauloko aldirietako eta metroko proiektuetarako lehenengo trenak.

CAFek garatzen dituen beste jarduera batzuetan izandako bilakaera ere garrantzitsua izan da: esaterako, errodajeen, trakzio elektrikoaren edo trenen alokairuaren kasuan. Bereziki nabarmendu beharrekoa da trenbideetako unitateen mantentze lanen esparruak izan duen bilakaera; oso garrantzitsua izan da, eta etorkizunera begira jarduera nabarmen handitzea espero dugu.


lazko salmentak, irabaziak eta eskaeren zorroak nabarmen handitu izanari esker, eta 2010erako ditugun aurreikuspen onak direla eta, gogotsu gaude izango ditugun negozioerako aukera berriak baikortasunez aztertzen jarraitzeko.

Dena den, mundu mailako egoera ekonomiko zaila dela eta, bereziki Espainiako ekonomian duen eragina ikusita, zuhurtziaz ekin behar dugu, eta aldi berean, iraunkortasunez, beharrezkoa baita epe ertain eta luzera gure profil lehiakorra hobetzera bideratutako jarduerak garatzeko. Esate baterako, gure langileen gaitasunak eta prestakuntza zabal ditzakegu, I+G+b arloan, ahal baldin bada, inbertsio gehiago eginda, kostu operatiboak murriztuta, edo bezeroen eta merkatuen asmoetara egokituta, ikuspegi praktikoarekin, hurbilekoarekin eta malguarekin.

Aipatutako emaitzak lortzeko, ezinbesteko elementua da plantilla osatzen duten pertsona guztiak erakutsitako konpromisoa eta dedikazioa; hori dela eta, eskerrak eman nahi dizkiet eta ilusioz, baina jarri ditugun helburuak lortzeko beharrezko esfortzua eginda, lan egiten jarrai dezaten animatu nahi ditut.

Azkenik, nire esker ona erakutsi nahi diet akziodunei, beste urtebetez ere erakutsi diguten babes dela eta. Izan ere, babes hori da egunez egun CAF Taldeak bere gain hartzen dituen konpromisoak eta erronkak eguneroko lanean hobetzen jarraitzeko pizgarririk handiena, guban jarritako konfiantzari erantzuna eman ahal izateko.

Eskerrik asko.



José María Baztarrica Garijo
Presidentea



CAFen TEKNOLOGIA, KALITATEA ETA ZERBITZUA
NAZIOARTE OSOAN ONDO EZAGUTZEN DITUZTE



LINEA HANDIAK

ABIADURA HANDIKOAK

- Abiadura handiko eta zabalera aldakorreko S-120 trenak (RENFE)
- Madril-Sevilla lineako Abiadura Handiko Trenak (AVF)
- Lanzadera-trenak S-104 (RENFE)
- Abiadura handiko trenak Turkiarako

INTERCITY

- ADR tren baskulagarriak
- Diesel tren Aljeriarako
- Intercity, Push-Pull serbitzua
- Saudi Arabiako trenak
- Sardiniako diesel-trenak
- Ipar Irlandako trenak

BIDAIARIENTZAKO KOTXEAK

- Konpartimentuan banatutako bagoiak eta erosotasun handiko aretoa
- Ohe-bagoiak eta ohatzeak
- Jatetxe-eta kafetegi-bagoiak



HIRIAK/HIRI-INGURUAK

ALDIRIKOAK

- Red Nacional de Ferrocarriles Españoles (RENFE)
- Eusko Trenbideak-Ferrocarriles Vascos (ET/FV)
- Ferrocarriles Españoles de Vía Estrecha (FEVE)
- Ferrocarrils de la Generalitat de Catalunya (FGC)
- Companhia Paulista de trenes Metropolitanos (Brasil)
- Secretaría de Comunicaciones y Transportes (Mexiko)
- Serveis Ferroviaris de Mallorca (SFM)
- Caminhos de Ferro Portugueses
- Finnish Railways (VR Ltd)
- Heathrow Airport Express
- Hong-Kong Airport Express
- Irish Rail
- Izban (Turkia)
- Northern Ireland Railways
- Northern Spirit
- New Delhiko aireportua

METROAK

- Aljer
- Bartzelona
- Bilbo
- Brusela
- Istanbul
- Hong Kong
- Madril
- Malagakoa
- Medellin
- Mexiko
- New Delhi
- Palma
- Erroma
- Txileko Santiagokoa
- Sao Paulo
- Sevilla
- Washington

UNITATE ARTIKULATUAK

- Amsterdam
- Buenos Aires
- Monterrey
- Pittsburgh
- Sacramento
- Valencia

TRANBIAK

- Antalyakoa
- Belgrado
- Bilbo
- Edinburgokoa
- Houston
- Lisboa
- Sevilla
- Valentzia
- Vélez-Málaga
- Vitoria
- Zaragoza
- Cádiz-Chiclana



TALDEKO 2009KO KUDEAKETA TXOSTEN BATERATUA



EMAITZAK


Galera eta irabazien kontuak 124.343 mila euroko emaitza positiboa eman du, zergak ordaindu ondoren; aurreko ekitaldian baino % 18 inguru gehiago, beraz.



Hauk dira 2009ko ekitaldiko parametro ekonomikoak:


- Galera eta irabazien kontuak 124.343 mila euroko emaitza positiboa du sozietate nagusiari egotzita, zergen ondoren; hau da, 2008ko ekitaldian baino % 18 handiagoa gutxi gorabehera (2008an, 105.741 mila eurokoa izan zen).
- Ibilgetuaren amortizazioak 26.874 mila eurokoak izan dira. Horiek, ekitaldiko zerga aurreko emaitzari gehituta, 147.007 mila euroko cash-flowa erakusten dute; 2008ko datuekin alderatuta, gutxi gorabehera % 16 gehiagokoak izan dira, 2008n 127.086 mila eurokoa izan baitzen.
- EBITDAri dagokionez, 162.646 mila eurokoa izan zen; hau da, 2008ko ekitaldian baino % 32 gehiagokoa (2008n 123.028 mila eurokoa izan zen).
- Negozio-zifraren zenbatekoa 1.258.041 mila eurokoa izan da, aurreko ekitaldikoa baino % 25 handiagoa.
- Eskaera-zorria, urte-bukaeran, 4.335.623 mila eurokoa zen, aurreko ekitaldikoa baino handiagoa. Horri esker, Taldeak behar bezala jardun ahal izango du.
- Emaitzak aplikatzeko proposamenak aurreko ekitaldietako politikari jarraitzen dio; hau da, Enpresaren ondarea sendotzea. Hori dela eta, irabazien 35.995 mila euro (2008an baino % 11 gehiago) dibidendu gisa banatzea eta 97.636 mila euro borondatezko erreserbetara eramatea proposatu dute.
- Irabaziak banatzeko proposamena onartuz gero, erreserbetara eramango diren emaitzak gehituko zaizkie Taldearen Funtz Propioei, eta, guztira, 437.276 mila euroko zenbatekoa egingo dute.
- Azkenik, eta legezko araudiak xedatutakoa betez, CAFek jakinarazten du 2009an ez berak, ez bere enpresa filialek ez dutela enpresaren akziorik ez erosi, ez eduki.

Zergak ordaindu aurreko Taldearen emaitza eta cash flow-a




* 2003ko datu bateratuak
2004ko, 2005ko, 2006ko, 2007ko, 2008ko, 2009ko datu bateratuak, NKA

Taldearen Baliabide propioak



* 2003ko datu bateratuak
2004ko, 2005ko, 2006ko, 2007ko, 2008ko, 2009ko datu bateratuak, NKA

Dividenduen/akzioen bilakaera



MERKATARITZAKO JARDUERA

Eskarien zorroa, ekitaldiaren amaieran, 4.336 milioi eurokoa da; 2008ko datuekin alderatuta, igoera % 4,8koa izan da. Merkataritzako jardura handiari esker, nazioarteko merkatu berriak ireki eta Taldea aurretik kokatuta zegoen beste batzuetan sendotu ahal izan da.





Azken urteotako jardura komertzial altuarekin aurrera jarraituta, 2009. urtean beste maximo bat lortu du eskarien zorroaren baliorako; ekitaldiaren itxieran, zorroa 4.336 milioi eurokoa zen eta 2008ko itxierako balioarekin alderatuta, igoera % 4,8koa izan da. Maximo hori 2009ko ekitaldian lortutako 1.457 milioi euroko kontratazio-zifrarik esker eskuratu da.

Joan den urteko bolumenik handieneko kontratua EuskoTrenekin izenpetutakoa izan zen 30 unitate elektriko fabrikatzeko eta hornitzeko. Era berean, nazio mailako merkatuan, RENFERekin kontratuak egin zituzten 75 tren errege-dekretuak xedatutakoaren arabera egokitzeko. Ezinduek garraiobideetara sarbidea izateko eta erabiltzeko garaian irisgarritasuneko eta bazterkeriarik ez izateko oinarritzko baldintzak arautzen ditu aipatutako errege-dekretuak. Catalunya Generalitateko Ferrocarrilesekin 113. serie berriko unitateak fabrikatzeko kontratua izenpetu du. Andaluziako Juntaren Ferrocarrilesekin, aldiz, tranbia-trenen unitateak hornitzeko kontratua hitzartu dute udalerririk hauek lortuko dituen lanetarako: Chiclana, San Fernando eta Cádiz. Era berean, kontratua sinatu du Zaragozako Tranbiaren partzuergoan.

Bereziki aipatu beharrekoa da Chiclana, San Fernando eta Cádiz udalerririk artean zerbitzua emateko trenbideetarako materialarekin lotutako kontratuak; izan ere, horixe izango da Espainia mailan ADIF bideko eta hiriko zein hiriarteko bideetako zirkulazioa bateratuko duen lehen tranbia-trena.

Era berean, azpimarratu beharrekoa da CAFek lidergo-lanak izan dituela TRAZA partzuergoan. Hori dela eta, Zaragozako tranbia eraiki eta ustiatuko du hurrengo 35 urteotan. Hirian zerbitzua eskainiko duten tranbiak Zaragozako gure lantegian fabrikatuko dituzte; berezitasun gisa, aipatu beharrekoa da ibilbidearen zati batean ez dagoela katenariarik.

Katenariarik gabeko tranbiaren zirkulazioa aurrerapen berria izan da gure enpresarentzat. Halaxe izan ziren orain gutxi trakzio-bihurgailuen garapenak (trenbideetako administrazio ugaritan arrakasta handiarekin funtzionatzen dute), Karga Azkarreko Metagailuak edo BITRAC plataforma, lokomotora biko diesel-elektrokoak eta elektrokoak ere (horren lehen unitatea homologatzeko prozesuan sartu da arrakastaz 2009an).



* 2003ko datu bateratuak
2004ko, 2005ko, 2006ko, 2007ko, 2008ko, 2009ko datu bateratuak, NKA



Esportazio-merkatuan, zenbateko handieneko kontratuak iraganean enpresak lanak egin izan dituen herrialdeetan izenpetu dira. Horrek gure enpresan administrazio kontratugile ugariak jarri izan duten konfiantza eta gure trenen kalitatea berretsi du.

Horixe da, esate baterako, Turkiako administrazioen kasuan; izan ere, iaz 30 treneko eskaria formalizatu zuten Istanbulerako metrorako. Gauza bera gertatu da Ipar Irlandako Trenen konpainiarekin (NIR), 20 diesel-unitate berri erosi baititu. Estatu Batuetako Houston hiriak aurretik kontratatutakoez gain, beste 29 tranbia eskuratu ditu. Bruselako metroko eskaria beste 6 unitatetan handitu dute eta Sao Paulon ere 8 tren berri kontratatu dituzte CPTMk ustia ditzan.

Zenbateko txikiagokoak izan arren, garrantzitsuak izan dira jarraian aipatuko ditugunak gure enpresarentzat merkatu berriak irekitzea ekarri baitute. Indian Delhiko aireporturako 8 tren hornitzeko kontratuak izenpetu ditugu. Kolonbian, Medellín hiriko metrorako kontratua izenpetu dugu 12 trenetarako; Belgradon, Serbiako hiriburuan, 30 tranbiako eskaria dugu.

Tren berriak kontratatzeaz gain, aurreko urteetan ere ikusi izan den sendotze-prozesuak aurrera jarraitu du mantentze-lanen jarduerekin lotuta. Gaur egun, jarduera horiek eskari-zorroaren % 37a osatzen dute eta negozio horrek izan duen igoera enpresa osokoaren bikoitza izan da. Era berean, trenen eta errodajeen alokairuko zerbitzuen jarduera-lerroak sendotu egin dira.

INDUSTRIA JARDUERA

Abiadura handiko trenen entrega RENFErentzat eta Turkiarako. Metroak toki hauetarako: Txileko Santiago, Mexiko, Sao Paulo, Aljer, Erroma eta Bilbo. Diesel-trakzioko eta trakzio elektrikoko trenak RENFErentzat eta Aljeriarako: aldirikoak eta distantzia ertainekoak. Tranbiak Gasteizerako eta Antalyarako (Turkia), eta lineako lokomotorak.



2009. urtean, azken trena entregatuta, Aljeriarako diesel-trakzioa duten 17 unitateen kontratua osatu da; era berean, azken unitate hauek ere entregatu ditugu: Gasteizko tranbiako azken 7 unitateak, Antalyako (Turkia) tranbiarako azken 8 unitateak, Bilboko Metrorako 4 bagoiko 8 trenak, Aljerreko metrorako azken 11 tren-unitateak, RENFErentzako CIVIA III motako azken 22 trenak, 213 serieko 3 trenak FGCrentzat eta RCP motako 2 atoi-bagoiak Erromako metrorako. Azken horiek beste 9 tren-unitate handitzeko kontratukoak dira.

Era berean, aldi horretan, abiadura handiko 16 tren (AVR) entregatu ditugu RENFErentzat, abiadura handiko eta zabalera aldarreko 6 tren (AVGL) RENFErentzat, abiadura handiko 10 tren TCDDrentzat (Turkiako trenak) eta diesel-trakzioko 23 tren RENFErentzat, 11 tren Txileko metrorako, trakzio mistoko lehen lokomotora Fesur-entzat (operadore pribatua), 4 tren Mexikoko metrorako eta distantzia ertaineko eta trakzio elektrikoko 39 tren RENFErentzat, eta 4 tren Erromako metrorako. Era berean, azpimarratu beharrekoa da lehen trena bidali dugula Sao Pauloko metrorako, eta lehen trena hiri bereko Sao Pauloko Tren Metropolitanaren Konpainiarako (CPTM).

Beste proiektu batzuei dagokionez, nabarmendu beharrekoa da Izmirrerako (Turkia) eta New Delhirako (India) lehen trenen fabrikazio-egoera aurreratuta dagoela. Egoera berean daude Bilboko metrorako atoi-bagoiak, Edinburgorako lehen tranbiak (Eskozia) edo Madrilgo metrorako 9000 serieko lehen trenak.

Ingeniaritza arloari dagokionez, aurretik hasita zeuden Saudi Arabiako trenetarako, Mallorkarako lehen trenetarako eta Euskotreneko kontratatutako proiektu berriak diseinatzeko jarduerak. Era berean, Houstoneko tranbietarako edo Ipar Irlandako trenen enpresarako tren berriak diseinatzeko ari dira. Zaragozako, Malagako eta Belgradorako tranbietan nahiz Medellinako (Kolonbia) metrorako tren berrietan ere lanean ari dira.

Hauek izan dira 2009. urtean egindako fabrikazio-lanik aipagarrienak:





BAGOI KOPURUA

| | |
|--|------------|
| Diesel tren (M1+R+M2) Aljeriarako. | 3 |
| Tranbia-trena (A+B+C+D+E) Antalyarako (Turkia) | 40 |
| RCP atoi-bagoiak Erromako metrorako | 2 |
| Trena (M1+R1+N1+N1+R1+N2+N1+R2+M2) Txileko metrorako | 99 |
| Trena (RCB+M1B+M2B+M2A+M1A+RCA) Aljerreko metrorako. | 66 |
| Trena Mexikoko metrorako. A linea (M+R+N+N+PR+M+N+N+R) | 36 |
| Sao Pauloko metro-trena (MA1+MB1+MB2+MB1+MB1+MA2) | 6 |
| Aldiriko Trena Sao Pauloko Tren Metropolitanarren Konpainiarako (CPTM) (2m1+2R1+2R2+2M2) | 8 |
| Abiadura Handiko Trena Turkiarako (TCF+TCB+MIF1A+MIF1B+MIF2+TMIFC) | 12 |
| Trena (2RCP+2M1+2M2) Erromako metrorako | 24 |
| Trena (MC+R+MC) FGC S/213rako | 9 |
| Abiadura Handiko Trena RENFErentzat (MC1+MI1+MI2+MC2) AVR | 64 |
| S/600 trena Bilboko metrorako (M1+N1+N2+M2), CTBk eskatuta. | 32 |
| Atoi-bagoiak Bilboko metrorako | 2 |
| Aldiriko zerbitzurako CIVIA III trena RENFErentzat (A1+A2+A3+A4+A5) | 110 |
| Zabalera aldakorreko AVGL trena (MCT+MIP+MIT+MCP) RENFErentzat | 24 |
| Distantzia Ertaineko RENFEren diesel-trena (M1+R+M2) | 69 |
| Distantzia Ertaineko RENFEren tren elektrikoa (A1+A2+A3+A4+A59) | 195 |
| Gasteizko tranbia (A+B+C+D+E), Euskotrenek eskatuta. | 35 |
| FESURerako lineako lokomotora (M) | 1 |
| GUZTIRA | 837 |

BOGIEAK

| | |
|---|-------|
| Altzairu soldatuzko xasisa (motorra + atoa) | 1.615 |
|---|-------|

ERRODAJEEN UNITATEA

| | |
|--|------------|
| Ardatz muntatu konbentzionalak (motorra + atoa) | 5.177 |
| Zabalera aldakorreko ardatz muntatuak (motorra + atoa) | 593 |
| Ardatz-gorputz solteak | 9.406 |
| Gurpilak | 46.145 |
| Garabietarako gurpilak | 42 |
| Bandajeak | 1.214 |
| Krokagailuak edo loturak | 1.380 |
| Erreduzitzailak | 241 |
| Uztaiak | 141 |
| Beste fabrikazio-lan batzuk: | |
| Altzairua | 35.407 Tm. |
| Konponketen arloan, hauek dira aipagarrienak: | |
| TRD (M1+M2) (RENFE) berrezartzea. | 4 |
| UT S/200 (Euskotren) berrikustea (A+B+C+D) | 8 |
| Bogie-azterketa S/550 (Bilboko metroa) | 40 |


GIZA BALIABIDEAK

Taldeko langile kopuruak igoera nabarmena izan du 2009an. Istripu-indizeak gutxitu egin dira adierazle guztietan 2008ko ekitaldiko datuekin alderatuta.



| Plantillak | Kontratu finkoak | Guztira | Urteko batez bestekoa |
|------------|------------------|---------|-----------------------|
| 31-12-08 | 4.550 | 5.108 | 4.758 |
| 31-12-09 | 5.684 | 6.489 | 5.762 |

Taldearen plantillak igoera nabarmena izan du 2009. urtean. Hazkundea, batez ere, sozietate filialetan eta nazioartean gertatu da. Taldearen gaitasuna nazioarteko eskakizunetara egokitu eta prestakuntza tekniko altuko pertsonak sendotzeko ahalegina bere horretan mantendu da.



Tituludunen kolektiboaren ebaluazio-prozesuaren bidez, Prestakuntzako Plan Orokorrean modu ordenatuan txertatu dira hautemandako beharrak. Horri esker, kolektibo horren garapenerako jarduerak modu egituratuagoan kudeatu ahal izan dugu, pertsona bakoitzarentzako hobekuntzako ildo zehatzak finkatuta.

Banakako arreta-prozesua indartu dute; horren bidez, prestakuntza-eredua sendotu eta zuzendarien garapenerako ekintzen eragingarritasuna handiagotu da.

Istripu-indizeak gutxitu egin dira adierazle guztietan 2008ko ekitaldiko datuekin alderatuta. Istripu-indizeak gutxitzearekin lotutako ekintzei eman zaie lehentasuna.



INGURUMENAREKIN LOTUTAKO JARDUERA

CAFeko fabrikazio lantegietan ezarrita eta ziurtatuta dago ISO 14001 arauaren araberako Ingurumena Kudeatzeko Sistema.

Beasaingo, Irungo eta Zaragozako lantegietan ISO 14001:2004 ziurtagiria berritzeko auditoria-lanek emaitza onak izan dituzte.

CAF enpresak, industriaren garapenak ingurumenean duen eraginaz jabetuta, enpresaren politika orokorrean txertatu du ingurumen-politika. Honenbestez, enpresaren helburu bihurtu ditu ingurumena zaintzea eta egiten dituen trenen sistema, ekipamendu eta materialak goi-mailakoak izatea, segurtasunaren eta eraginkortasunaren aldetik ez ezik, baita ingurumenarekiko begiruneari dagokionez ere.

Ingurumena Kudeatzeko Sistema ezarrita eta ziurtatua dago CAF, SAren lantegietan, ISO 14001 arauaren arabera. Hor sartzan dira antolakuntza-egitura, ingurumena babesteko jardueren plangintza, erantzukizunak, ingurumen-helburuak, eta ingurumen-politika garatu, berrikusi eta eguneratzeko baliabideak.

Azaroan, Beasaingo, Irungo eta Zaragozako lantegietarako Ingurumena Kudeatzeko Sistemaren inguruko ISO 14001:2004 ziurtagiria berritzeko auditoria egin zuten eta haren emaitza ona izan zen.

Ekintza horiek aipagarriak diren ingurumeneko alderdiak kontrolatzeko eta, dagokionean, minimizatzeko beharrezkoak eta ekonomikoki bideragarriak diren neurriak hartzera zuzenduta daude: atmosferara egindako igorpenak, hondakinak sortzea eta energiaren kontsumoa, esate baterako. Eta horren guztiaren helburua baliabide naturalak babestea da, trenetako garraioak fabrikatzearekin lotuta dauden ingurumeneko abantailekin bat etorrira; izan ere, trenbideetako garraioek aldeko izaera dute ingurumenean duten inpaktu txikia dela eta.

Datu adierazgarri bezala, Kiotoko Protokoloak xedatutakoa betez, berotegi-efektuko gasen igorpenak nabarmen egin zuen behera 2008ko datuekin alderatuta, eta esleitutako eskubideen oso azpitik geratu zen.



2009. URTEKO INBERTSIOAK

2009. urtean lantegietan egindako inbertsioen zenbatekoa 86.948 mila eurokoa izan da. Nabarmendu beharrekoa da horien artean Sao Paulon lantegi berria eraikitzeko egindako inbertsioa.



2009an, 86.948 mila euroko inbertsioak egin ziren gure lantegietan (zenbateko horretan ez da sartzen kanbio-tasaren bihurtze-eragina). Inbertsio horiek produkzio-instalazioak modernizatzen, gaitasuna handitzeko eta laneko zein ingurumeneko segurtasun arloa hobetzeko helburuarekin egin dira batez ere.


2009ko inbertsiorik esanguratsuenak, hauek izan ziren:

- **Ibilgailuen Unitatean**, Bogien arloan, aipatu beharrekoa da granaila automatiko berria instalatu dutela eta plasma bidezko ebaketako makinak berri dituztela; Ibilgailuen Akabera arloan, aldiz, pinturako eremuak handitu ditugu haien gaitasuna handitu ahal izateko. Horrez gain, muntaketa lineetako segurtasunean inbertsioa egin dugu.
- **Errodajeen Negozio Unitatean**, 2009. urtean egindako inbertsioak arlo horretan 2007an abian jarritako inbertsio-planaren arabera izan dira eta produkzio-gaitasuna eta automatizazio maila handitzera zuzenduta egon dira batez ere. Inbertsiorik aipagarrienen artean, aipatu beharrekoak dira hauek: 10.000 tonako forjaketako prentsa instalatu eta abian jarri dugu, labea-prentsa-laminatzailearen linea robotizatu dute, gorpilak egiazatzeko linea automatikoa instalatu dugu eta mekanizazioko nabe berriaren erainkuntza.
- **Teknologia arloan**, lanpostu berriak ugaritu eta hardwarearekin eta softwarearekin lotutako beharrezko baliabide teknikoak eta tresnak jarri dira CAFen egun lanean ari diren proiektuen igoerari aurre egin ahal izateko.
- **CAF Taldeko filialei** dagokienez, aipatu beharrekoa da Beasainen CETEST izeneko azterketako eta entseguetako zentroaren nabe berria eraiki dutela, TRINELECEko instalazioak handitzeko makinetan eta ekipamenduetan inbertsio handia egin dela eta fabrikazioko bi nabe berri eraiki



dituztela TRENASAK Nafarroan eta CAF-Santanak Jaenen dituzten lantegietan.

Azkenik, Hortolandian (Sao Paulo, Brasil) fabrikazioko lantegi berria eraiki dutela aipatu beharra dago. Gainera, erabat ekipatuta dago makinei eta instalazioei dagokienez eta bertan egingo dituzten egiturak fabrikatzeko, ibilgailuen akabera-lanak egiteko eta amaitutako unitateetako probak egiteko jarduerak guztiak.



* 2003ko datu bateratuak
2004ko, 2005ko, 2006ko, 2007ko, 2008ko, 2009ko datu bateratuak, NKA

GARAPEN TEKNOLOGIKOA

CAFeko garapen teknologikoa CAF I+D arloak zuzentzen du eta filial teknologikoen artean banatuta dago. Egun abian dauden proiektuen artean, hauek azpimarratu behar dira:

- ECOTRANS, hiriko garraio iraunkorrerako garapen teknologikoa biltzen duen CENIT proiektua.
- CAFek zuzendutako SETI, ETORGAI proiektua; garraioaren sektorerako segurtasuneko osagaiak garatzera zuzenduta dago.
- AVI 2015 proiektua (Abiadura Handi Elkarreragilea), CENIT proiektua. CAFek zuzendutako hainbat enpresak esku hartu dute.

CAFI eta CAF I+Dri dagokienez, 2009. urtean proiektu hauetan lan egin dute:

- ECOTRANS; hiriko garraio iraunkorra lortzeko teknologien garapenerako CENIT proiektua. CAFek zuzendu du proiektua eta CAFez eta CAF I+Dz gain, CAFen hiru filial teknologikok, Taldetik kanpoko beste 13 enpresak eta 20 zentro teknologiko eta unibertsitatek ere hartzen dute parte bertan.
- CAFek zuzendutako SETI ETORGAI proiektua; garraioaren sektorerako segurtasuneko osagaiak garatzera zuzenduta dago.
- AVI 2.015 proiektua (Abiadura Handi Elkarreragilea). CENIT proiektua. CAFek zuzendutako hainbat enpresak esku hartu dute.
- Abiadura Handiko Tren berria.
- ERTMS-ETCS sistema seinaleztapen enbarkatuko ekipamendua garatzeko.
- Trenen dinamikaren inguruko proiektuak.
- Zarataren eta bibrazioen inguruko proiektuak.
- Elecrail eta Unichanger proiektuak, Fundación de Ferrocarriles de Españak zuzenduta. Sektoreko enpresarik garrantzitsuenek parte hartu dute.
- Dynotrain eta Aerotrain Europako proiektuak. CAFek eta CAF I+Dk parte hartu dute eta egungo ziurtagirien prozesuen konplexutasuna gutxitzea zuzenduta daude.

Filialei dagokienez, garapen teknologikoko ohiko jarduerarekin aurrera jarraitu dute. Horien artean, hauek aipatu behar dira:

- Energia pilotzeko eta katenariarik gabeko funtzionamendu autonomoko sistemaren balidazioa; Sevillako tranbian muntatu dute.
- Trainelec traxioarekin CIVIA unitatea ziurtatzeko prozesua amaitu dute.
- NEM filiala; Iberdrolarekin batera CENIT proiektuan parte hartuko du. Trenetarako garatutako teknologiaren zati bat erabiltzen du.
- Produkzioan jartzea Traintic-en Teknologia Planean landutako proiektuak bideoinformazioko eta bideozaintzako ekipamenduak diseinatzeke eta fabrikatzeko.

Ekitaldiko proiektu nagusiak hauek izan dira:

- Saudi Arabiarako lokomotora eta bagoiak.
- Madrilgo metroa.
- Sao Pauloko metroa.
- CPTMrako aldiriko trenak (Brasil).
- RENFERentzat CIVIA IV aldiriko trenak.
- Tren elektrikoak Izmirrerako (Turkia)
- Tren elektrikoak Euskotrenentzat.



GARAPEN TEKNOLOGIKOA



- Mallorkako metroa.
- Mexikoko metroa, A linea.
- New Delhiko aireportuko tren.
- Tren-trama Bahía Cadiz - Chiclanarako.
- Malagako metroa.
- Diesel-trenak Ipar Irlandarako (NIR).

Era berean, proiektu hauek ere martxan jarri dituzte:

- Istanbulko metroa.
- Zaragozako tranbia.
- Belgradeko tranbia.
- Diesel-trenak Sardiniarako.

Bestalde, jarduera komertzialari oro har eta esportazioari zehazki laguntza emateko, aurreproiektu eta proposamen tekniko berriak garatu dituzte eta aurretik aurkeztutako beste batzuk sakontzen jarraitu dute. Horien artean, hauek aipatu behar dira:

Nazio mailako merkatuan:

- Granadako tranbia.
- Tren elektrikoak Kataluniarako: FGS s/113.

Esportaziorako:

- Londres Piccadilly metroa.
- Miami metroa (AEB).
- Amtrak-erako bagoiak (AEB).
- CPTMrentzako trenak (Brasil) PPP5000.
- Istanbulko metroa (Turkia).
- Tren elektrikoak eta diesel-trenak CPrentzat (Portugal).
- Tren elektrikoak Izmirerako (Turkia).
- Eurocivics trenak Europako hainbat herrialdetarako.
- Frantziako hainbat hiritarako tranbiak.



ARRISKUAK KUDEATZEKO POLITIKA



Hauek dira gure sozietatearen arrisku nagusiak:

1. Finantza mailako arriskuak

Finantza-merkatuen ziurgabetasunean arreta berezia jarri du CAF Taldeak, eta saiatzten da Taldearen finantza mailako errentagarritasunean ziurgabetasun horrek eragin ditzakeen aurkako kalteak murrizten.

Taldearen Finantza Sailak identifikatu, aztertu eta estaltzen ditu finantza mailako arriskuak, eta politikak finkatzen ditu arrisku orokorra kudeatzeko, baita alor jakin batzuetarako ere (truke-tasaren arriskua, interes-tasaren arriskua, likidezia-arriskua, eratorrien eta eratorri gabeen erabilera, likidezia-soberakinaren inbertsioa eta aurrekontu-desbideraketa).

a) Merkatuko arriskua

Nazioartean dihardute CAF Taldeko sozietateek eta, horrenbestez, truke-tasaren arriskupean daude, dibisekin eragiketak egiteagatik (Mexikoko pesoa eta Brasilgo erreala,

batez ere). Truke-tasak eragindako arriskua hauek sortzen dute: geroko transakzio komertzialak, aitortutako aktiboak eta pasiboak eta atzerriko eragiketetan egiten diren inbertsio garbiak.

Epeka zehaztutako kontratuak erabiltzen dituzte Taldeko sozietateek geroko transakzio komertzialek eta aitortutako pasiboek eta aktiboek sortzen duten truke-tasaren arriskua kontrolatzeko. Truke-tasaren arriskua sortzen da Taldearen funtzionamendu-moneta (euroa) ez den beste batean egiten direnean geroko transakzio komertzialak eta aitortutako pasiboak eta aktiboak.

CAF Taldearen ohiko jarduera da osorik estaltzea merkatu-arriskua Taldearen funtzionamendu-moneta ez den besteren batean egindako kontratuetan. Estaldura horien helburua sinatutako kontratuetan dibisen gorabeheren eragina saihestea da. Horri esker, Taldearen emaitzak bere jarduera industrialaren eta zerbitzuaren isla zehatza izatea lortu nahi da.



ARRISKUAK KUDEATZEKO POLITIKA



Lehengai nagusiei dagokienez, proiektu berri bakoitza indarrean sartzean egiten ditu eskariak CAFek eta orduan ixten du prezioa. Horri esker, lehengaien prezioek izan dezaketen goranzko bilakaerak kontratuko marjinetan modu negatiboan eragina izateko arriskua estal dezake.

b) Kreditu-arriskua

Kobratu beharreko kontu eta egiten ari garen lanik gehienak hainbat herrialdetako bezeroei dagozkie. Kasu gehienetan, proiektuak aurrera egin ahala hainbateko ordainketak agintzen dituzte kontratuek.

Ohiko jarduera da Sozietateak kontratuak bertan behera uzteko edo ez ordaintzeko arriskua bermatzea ELGAtik kanpoko herrialdeetan. Horretarako, esportaziorako aseguru-polizak kontratatzen dira, ELGAko Hitzarmenak gai horietarako dituen arauen arabera.

c) Likidezia-arriskua

Likidezia-arriskuaren kudeaketa zuhurrak eskatzen du behar hainbat eskudiru eta balore negoziagarri edukitzea, baita hartutako konpromiso guztiei aurre egiteko finantza-baliabideak izatea ere.

Honela kudeatzen da likidezia-arriskua CAF Taldean:

- Kontratu bakoitzaren autofinanziazio mailarik ahalik eta handiena lortzen saiatzea.
- Epe laburrera, likidezia-posizio sendoari eustea.
- Erabili gabeko finantziazio-ahalmenari eustea.

d) Eskudiru-fluxuen eta arrazoizko balioaren interes-tasaren arriskua

Taldearen interes-tasaren arriskua kanpoko baliabideak erabiltzetik sortzen da.

Eragiketa arrunten kasuan, ohiko politika du Taldeak soilik egoera jakin batzuetan zorpetzea hirugarrengo batekin, epe laburreko kanpoko baliabideen bitartez (merkatuko indizeetan oinarrituta; gehienetan, Euribor). Horri esker, nabarmen murrizten da interes-tasa horren arriskua. Proiektuak finantzatzeko zorpetze-kasuetarako, Taldeak interes-tasa finkoak kontratatzen ditu.

e) Proiektu-aurrekontuen desbideraketek dakartzaten arriskuak

Dagozkion eskaintzak prestatzeko oinarritzat erabilitako proiektuen aurrekontuetan gertatu izan diren desbiderapenak informazio-sistema zehatza erabilia estali ohi dira. Horretarako, kostuaren kontusail bakoitza hartzen da oinarritzat eta kontusail horien aurrekontua proiektu bakoitzeko kostuen egoeraren errealitatearekin alderatzen da. Horri esker, proiektuek irauten duten bitartean, datu horien etengabeko jarraipena egiten da helburu horietarako sortutako barne-prozeduraren bidez. Bertan, proiektu bakoitzean sartuta dauden sail guztiek parte hartzen dute.

2. Produkzioak eragindako ingurumen-kalteen arriskuak

Ingurumena zaintzeko erabateko konpromiso du CAFek. Hori dela eta, Europar Batasuneko ingurumeneko ekintza-programaren printzipioei jarraitzen die CAFek; printzipio horiek



prebentziozko neurriak eta jatorriko zuzenketak dituzte oinarritzat. Gure sozietateak ekintza-programa abiarazi du ingurumenarekin lotutako hainbat alderditan: atmosfera, isuriak, hondakinak, lehengai-, energia- eta ur-kontsumoa, eta zarata), eta ISO14001 ziurtagiria eskuratu du horri guztiari esker.

3. Produkzioak eraginda zerbitzuak berandu edo akatsekin emateagatik beste batzuei kalteak eragitetik eratorritako arriskuak

CAFeko lantegi guztiek merkatuan dagoen teknologiarik berriena dute eta, ISO 9001 eta 9002 Arauei jarraiki, produkzioa optimizatzeko teknikaik aurreratuenak erabiltzen dituzte.

Bestalde, aseguruak kontratatzeke politika oso zuhurra erabiltzen du CAFek; horri esker, arrisku horietako batzuek eragin ditzaketen ondorio ekonomikoetatik eta sozietaterako ondorioetatik behar bezala babestuta dago.

4. Laneko arriskuak, edo lantegietako ondasunak edo aktiboak kaltetzekoak

Laneko Arriskuak Prebenitzeko Sistema du CAFek, eta kanpoko enpresa batek auditatzen du Prebentzio Sistemaren Eskuliburuan daude zehaztuta, besteak beste, arriskuen ebaluazioa, istripuen ikerketa, segurtasun-ikuskapenak, osasun-zaintza eta trebakuntza biltzen dituzten jarduerak. Urteko Prebentzio Plan bat ere badago, eta bertan daude antolatutako prebentzio arloko jarduerak. Era berean, CAFek langileei zuzendutako Prestakuntza Plana ere badu.



SOZIEATEARI BURUZKO INFORMAZIOA



BALORE MERKATUARI BURUZKO LEGEAREN 116 BIS ARTIKULUAREN AGINDUZ EMAN BEHARREKO INFORMAZIOA

a) Kapitalaren egitura, baita EBko merkatu arautuan negoziatzen ez diren baloreak ere, dagokionean akzio mota ugariak zehaztuta, eta akzio mota bakoitzerako, dagozkion eskubide eta betebeharrak eta biltzen duen kapital sozialaren ehunekoa.

Estatutu Sozialen 5. artikulua xedatutakoa betez, 3,01 euroko balio nominaleko 3.428.075 akzio ditu Sozietatearen kapital sozialak, serie bakar batean, guztiak harpidetuta eta ordainduta, eskubide eta betebehar berdinak dakartzatenak. Batzar Orokorretan parte hartu eta bozkatzeko eskubidea izateko, gutxienez, 100 akzio behar dira. Ez dago CAFeko

akzioetan bihurtzea edo trukatzea eragin dezakeen jaulkitako balorerik.

Ez dago hainbat eratako akziorik, ezta autozorrorik ere.

b) Baloreak transmititzeko edozein muga:

Estatutuek ez diote inongo mugarik jartzen kapital sozialeko baloreen transmisioari, betiere orain aipatuko ditugun arauak aplikatzen badira.

Sozietate kotizatua denez, partaidetza garrantzitsu batzuk eskuratu nahi izanez gero, jaulkitzaileari eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi behar zaio asmo horren berri, Balore Merkatuari buruzko 24/1988 Legearen 53. artikulua, 2007ko urriaren 19ko 1362/2007 Errege Dekretuak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren 2007ko abenduaren 19ko 2/2007 Zirkularrak xedatutakoa betez. Arau horiek guztiek aurrez ikusten dutenez, jakinarazteko lehen atalasea kapital sozialaren edo botoa emateko eskubideen % 3 izatea da.

Bestalde, sozietate kotizatua denez, Sozietateko boto-eskubideen % 30eko ehunekoa edo hortik gorakoa eskuratzeko, Baloreak Erosteko Eskaintza Publikoa egiteko betebeharra dago zehaztuta, Balore Merkatuari buruzko 24/1988 Legeko 60. artikulua eta 1066/2007 Errege Dekretuak xedatutakoa betez.

c) Kapital-partaidetza aipagarriak, zuzenekoak edo zeharkakoak, 2009ko abenduaren 31n.

| Partaidetza-titularraren izena edo izen soziala | Zuzeneko % | Zeharkako % | Guztizko % |
|---|------------|-------------|------------|
| CARTERA SOCIAL, S.A. | 29,56 | 0,000 | 29,56 |
| GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI-KUTXA | 0,000 | 17,745 | 17,745 |
| BNP PARIBAS SECURITIES SERVICES LUX A/C CEDA | 5,473 | 0,000 | 5,473 |

d) Boto-eskubidearen murrizketak.

Ez dago lege edo estatutu mailako inolako murrizketarik boto-eskubideak erabiltzarekin lotuta, edozein sozietate anonimori dagozkionetatik aparte. Dena den, eta lehen aipatu dugun moduan, Batzarrera joan ahal izateko beharrezkoa da gutxienez 100 akzioko partaidetza izatea, Estatutuetan zehaztuta dagoen moduan; dena den, kasu honetan, akzio gutxiago dutenak elkartu eta ordezkaritza beste akziodun bati eman diezaiokete harekin ehun edo akzio gehiago osatzen badute.

Batzarrera joateko eskubide hori erabili ahal izateko, akziodunek Kontuko Idazpenen Erregistroan beren izenean harpidetuta izan beharko dituzte akzioak Batzar Orokorra egin behar den eguna baino bost egun lehenago.

e) Itun parasozialak.

CAFek ez du berririk Baloreen Merkatuko 1988ko uztailaren 28ko 24/1988 Legeko 112. artikuluan zehaztutako itun parasozialik dagoenik. Itun horiek Batzar Orokorreran boto-eskubidea emateko araudian izaten dute eragina edo akzioen transmisio askea baldintzatzen dute.

f) Administrazio-organoetako kideak izendatzeko eta ordezkatzeko, eta Sozietateko estatutuak aldatzeko arau aplikagarriak.

1. Izendapena eta ordezpena

Batzar Orokorrak edo Administrazio Kontseiluak izendatu behar ditu kontseilariak, sozietate anonimoei buruzko Legeak eta CAFeko Estatutuek bildutako aurreikuspenak betez.

Administrazio Kontseiluak Akziodunen Batzar Orokorraren mende jartzen ditu kontseilariak izendatzeko edo berriro

aukeratzeko proposamenak eta Kontseiluak hartzen ditu izendatzeko erabakiak kooptazio bidez. Baina horren aurretik, Izendapenen eta Ordainketen Batzordeak horren inguruko proposamena egin behar du kontseilari independenteak badira, eta aurretiazko txostena, Kontseiluko gainerako kideak badira.

Kontseilua ez badator bat Izendapenen eta Ordainketen Batzordearen proposamenekin, desadostasunaren arrazoiak azaldu eta aktan jaso beharko ditu.

Onartutako kaudimen, gaitasun eta esperientzia duten hautagaiak aukeratzen saiatu behar du Kontseiluak, eta bereziki zorrotza izan behar du kontseilari independenteen karguak bete behar diren kasuetan.

Kontseiluak ezingo du kontseilari independenteen postua estaltzeko Enpresaren edo Taldeko sozietateen kudeaketarekin nolabaiteko harremana duten edo izan duten pertsonarik proposatu edo izendatu. Era berean, ezingo du partaidetza handia duen titularrik edo familiako arrazoiak (odol-ahaidekotasuneko hirugarren mailara arte edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailara arte), kausa profesionalak edo komertzialak direla eta kontseilari exekutiboekin edo CAFeko edo Taldeko sozietateetako beste goi mailako zuzendari batzuekin nahiz partaidetza handien titularra denarekin lotura duen inor proposatu edo aukeratu.

Administrazio Kontseiluak, Batzar Orokorrari proposamenak egiteko eta hutsik dauden postuak betetzeko kooptaziorako dauzkan eskumenez baliatuta, saiatu behar du organo horren osieran kanpoko kontseilariak edo ez-exekutiboak kontseilari exekutiboak baino gehiago izan daitezen, kontseilari independenteen kopurua kontseilari guztien herena (gutxienez) izan dadin, eta aginduzko kontseilarien eta independenteen arteko erlazioak isla dezan aginduzko kontseilariak ordezkatzeko duten enpresako kapitalaren eta gainerakoen arteko

SOZIETATEARI BURUZKO INFORMAZIOA

proportzioa. Dena dela, azken irizpide hori arindu egin daiteke eta ordezkaritza erlatibo handiagoa eman aginduzko kontseilariei, baldin eta Kontseiluan ordezkaritza duen akziodun ugari badago eta haien artean loturarik ez badute.

Gutxienez zazpi kide eta gehienez hamabost izan behar ditu Administrazio Kontseiluak. Administrazioaileak ez du zertan akziodun izan. Legeek ezarritako debeku eta bateraezintasunak aplikatu behar dira.

Bost urtez jardun behar dute karguan administrazioaileek. Behin edo gehiagotan berrauta daitezke, iraupen bereko epeetarako. Kargua onartzen duten unetik izango du eragina administrazioaileen izendapenak. Administrazio Kontseilua berritu behar da haietako bakoitzaren agintaldia bukatzen denean.

Administrazioaileak izendatu diren epearen barruan karguren bat hutsik geratuz gero, Administrazio Kontseiluak akziodunekin bete ditzake hutsuneak Batzar Orokorrak hurrengo bilera egin arte. Hutsik geratzen den kargua lehendakariarena edo kontseilari delegatuarena baldin bada, Administrazio Kontseiluak ahalmena du kargu horiek betetzeko eta behin-behineko lehendakaria izendatzeko. Kontseilari delegatua ere izenda dezake, organoko kideen bi herenen botoak bereganatzen baditu. Batzar Orokorrak egiten duen hurrengo bilera arte izango dute eragina izendapen horiek.

Kontseilarien kargu-uztea une bakoitzean indarrean dagoen legeriaren arabera egin beharko da. Izendapenaren epealdia amaitzean, utzi egin behar dute kargua kontseilariak, berrautatuak izan ezean, baita Batzar Orokorrak, dagozkion eskumenez baliatuta, hala erabakitzen duenean ere.

Bestalde, Kontseiluaren araudiak aurrez ikusitakoaren arabera, kontseilariak Administrazio Kontseiluaren esku utzi behar dute beren kargua eta, erakunde horrek egokitzat joz gero, dimisioa formalizatu beharko dute kasu hauetan:

a) Aginduzko kontseilaria bada, berak edo ordezkaitzen duen akziodunak sozietatean duten partaidetza besterentzen badute.

b) Legeak aurrez ikusitako bateraezintasuneko edo debekuko kasuren batean sartuta badaude.

c) Delitu izan daitekeen zerbait egin badute, edo hutsegite larriagatik edo oso larriagatik agintari gainbegiraleek diziplina-espediterik ezarri badiete.

d) Administrazio Kontseiluak ohartarazpen larriarik egin baldin badie, Ikuskaritza Batzordeak aldeztu aurretik txostena eginda, kontseilari-betebeharrak urratzeagatik.

e) Sozietatearekin interes-gatazkarik baldin badute eta ez badituzte betetzen komunikazio- eta abstentzio-beharkizunak.

f) Ez lehiatzeko obligazioa betetzen ez badute.

Auzi penalen batean inputatuta baldin badaude, horren berri eman behar diote Kontseiluari kontseilariak, baita prozesuak gerora izaten dituen gorabeherak jakinarazi ere. Nolanahi dela ere, Sozietateari kalterik eragin diezaioketen egoeren berri eman behar diote kontseilariak Kontseiluari, eta, hala badagokie, dimititu.

2. Estatutuak aldatzea

Estatutu Sozialak aldatzeko prozedura Sozietate Anonimoei buruzko Legearen 144. artikulua arautzen du, eta Akziodunen Batzar Orokorrek onartu behar du, Lege horretako 103. artikulua aurrez ikusitako gehiengo arabera.

Estatutuak 13. artikulua eta CAFeko Akziodunen Batzar Orokorreko Araudiaren 4. artikulua xedatutako betez, Batzarrearen eskumenetako bat izango da Estatutuak aldatzea (hala zehaztuta dago espresuki), Legeak bildutako gehiengo ezberdinak bete beharrik izan gabe.

g) Administrazio Kontseiluko kideen eskumenak eta, zehazki, akzioak jaulkitzearen eta berrerosketaren ingurukoak.

Kontseiluko lehendakariak, Jose María Baztarrica Garijo jaunak, Kontseiluaren eskuduntza guztien eskuordetza du, legeak eskuordetzen uzten ez dutenena izan ezik.

Kontseilari delegatuak ere, Andres Arizkorreta García jaunak, Kontseiluaren eskuduntza guztien eskuordetza du, legeak eskuordetzen uzten ez dutenena izan ezik.

CAFeko kontseilari exekutibo eta zuzendari nagusi den Alejandro Legarda Zaragueta jaunak ordezen- eta kontratazio- eskumen handiak ditu, baita bankuekin negoziatzeko eta ondasunak administratu eta erabiltzekoak ere.

2009ko ekainaren 6ko Akziodunen Batzar Orokorrek baimena eman zion Kontseiluari CAFeko akzioen erosketa eratorria egiteko, indarrean den Sozietate Anonimoei buruzko 75. artikulua xedatutako betez. CAFek zuzenean eros ditzake akzioak, edo mendeko sozietateen bitartez, salerosketa- edo truke-eragiketarako eginda (edo Legeak baimentzen duen beste zehazki) eta merkatuko prezioan. Erosi beharreko akzioen

kopuruak ez du gainditu behar, sozietate erosleak eta haren mendeko sozietateek lehendik dituztenei gehituta, legeak ezarritako gehieneko muga (kapitalaren % 5, Sozietate Anonimoei buruzko Legearen Lehen Xedapen Gehigarriak agintzen duena betez), Administrazio Kontseiluak onartzen edo onartu dituen beheragoko mugei kalterik egin gabe, betiere Batzar horretan onartutako legeko mugaren barruan. Baimenaren iraupena 18 hilabetekoa da, Batzar Orokorren datatik zenbatzen hasita.

h) Sozietateak hartu dituen erabaki garrantzizkoak eta, erosteko eskaintza publiko bat dela medio, Sozietatearen kontrol-aldaketatik indarrean sartu, aldatu edo amaitu behar dutenak, eta erabakien ondorioak, horiek zabaltzea Sozietatearentzat nabarmen kaltegarria bada salbu. Salbuespen hori ez da aplikatuko informazio horren berri ematera behartuta baldin bada Sozietatea.

Erosteko eskaintza publiko bat dela medio, Sozietatearen kontrol-aldaketatik indarrean sartu, aldatu edo amaitu behar duten Sozietatearen erabaki garrantzizkorik ez dago.

i) Sozietatearen eta administrazioaren eta zuzendaritzako kargudunen edo langileen arteko akordioak, kalte-ordainak zehazten dituztenak, haiek dimisioa aurkezten dutenean edo bidegabeko kaleratzea gertatzen denean, edo erosteko eskaintza publikoaren ondorioz haien laneko harremana amaitzen denean.

Ez dago hitzarmenik Sozietatearen eta haren administrazio eta zuzendaritzako kargudunen edo langileen artean, karguak utzi, bidegabeki kaleratu edo erosteko eskaintza publiko bat dela eta laneko harremana amaituz gero kalte-ordainik ematea agintzen duenik.

GOBERNU KORPORATIBOA

2009ko ekitaldiko gobernu korporatiboari buruzko urteko txosten-eredua



2009ko ekitaldiko CAFen Talde Gidaritzari buruzko urteko txostena CAF Taldearen web-orrian www.caf.net duzue ikusgai, baita Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren web-orrian ere (www.cnmv.es, Balore Merkatuari buruzko Legearen 117. artikulua (Kotizatzen duten Sozietate Anonimoen Gardentasunari buruzko 26/2003 Legearen idazketaren arabera), ECO/3722/2003 Aginduak eta Balore Merkatuen Batzorde Nazionalaren 1/2004 Zirkularrak diotenari jarraiki.

Web-orri horietako edozeinetan duzue ikusgai txostena, eta nahi duten akziodunek kopiak ere eska ditzakete.



ETORKIZUNA

ONDORENGO GERTAERAK

Laburbilduta, hauek ditugu berehalako aurreikuspen nagusiak:

- Produktio-ahalmena etengabe haztea eta jarduerak homogeneizatzea, eskaeren igoerari erantzuteko.
- Industria, teknologia eta antolaketa arloetan Taldea indartzea, aktibo finkoetan inbertsioak eginda.
- Produktu berriak garatzea eta proiektuen kudeaketa integralerako sistema aurreratuak ezartzea.
- Taldearen presentzia handitzea trenbideko materialen nazioarteko merkatuetan.
- Taldearen ahalmena garatzea trenbideen arloari aplikatutako zerbitzuen negozioan (emakidak, alokairua eta trenen mantentze-lanak, adibidez).
- Errodajeen negozio saila sendotzea.

2010eko urtarrilaren 31n, 4.249.293 mila euroko eskaera-zorroz zuen CAFek, kontratu irmoarekin.

2010eko otsailaren 12an, Sao Pauloko 8. linearen flotako prebentziozko eta zuzenketako mantentze-lanak, berrikuspen orokorra eta modernizazioa egiteko kontratua esleitu diote. Horren zenbatekoa, gaur egungo balioaren arabera, 700 milioi euro ingurukoa da.





Ikuskatzailearen Eskutitza


Jatorriz gazteleraz igorritako txostenaren itzulpena Espainian oro har onartzen diren ikuskaritza-arauen arabera eta Urteko Kontu Bateratuen inguruan eginiko gure lana oinarri hartuta, jatorriz gazteleraz eta Europako Batasuneko finantza-informazioari buruzko nazioarteko araudiaren arabera igorriak. Desadostasunik egonez gero, gazteleraz igorritako bertsioa lehenetsiko da.

URTEKO KONTU BATERATUEN IKUSKARITZA TXOSTENA

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. ko akziodunei:

1. CAF Taldea osatzen duten Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. ren (Sozietate Nagusia) eta haren Mendeko Sozietateen urteko kontu bateratuak ikuskatu ditugu (1 eta 2.f oharra). Ikuskapen horretan daude 2009ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua eta galdu-irabazien kontu bateratua, ondare garbi bateratuaren aldaketan egoera, esku-diru bateratuaren fluxuen egoera eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko kontuen memoria bateratua. Sozietate Nagusiko administratzaileei dagokie kontu horiek guztiak formulatzea. Gure erantzukizuna da urteko kontu bateratuei buruzko iritzi orokorra ematea, Espainian oro har onartzen diren ikuskaritza-arauen arabera lana oinarri hartuta. Horretarako, hautaketa-proben bidez aztertzen ditugu urteko kontu bateratuen justifikazio-datuak eta ebaluatu egiten ditugu haien aurkezpena, aplikatu diren kontabilitate-printzipioak eta egindako kalkuluak.
2. Merkataritza-legeriarekin bat etorriz, Sozietate Nagusiko administratzaileek, 2009ko ekitaldiko zifrez gain, balantze bateratuko, galdu-irabazien kontu bateratuko, ondare garbi bateratuko aldaketan egoerako eta esku-diruaren fluxu-egora bateratuko kontusail bakoitzaren aurreko ekitaldiko zifra aurkeztu dituzte, elkarrekin alderatzeko. Gure iritzia 2009ko ekitaldiko urteko kontuei buruzkoa besterik ez da. 2009ko otsailaren 26an, 2008ko ekitaldiko urteko kontu bateratuei buruzko txostena igorri genuen. Kontuen aldeko iritzia eman genuen txosten hartan.
3. Gure iritziz, zehatz erakusten dute 2009ko urteko kontu bateratuek (honekin batera doazkizue) Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. ren eta haren Mendeko Sozietateen finantza-egoera bateratuaren eta ondare bateratuaren egoera 2009ko abenduaren 31n, baita eragiketen emaitza bateratuak, ondare garbi bateratuaren aldaketak eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion esku-diruaren fluxu bateratuak ere. Halaber, datu horiek guztiak behar bezala ulertu eta interpretatzeko nahikoa informazio (eta behar bezalako) badute, Europako Batasuneko Finantza-informazioari buruzko Nazioarteko Araudiaren arabera. Bat dator araudi hori aurreko ekitaldian erabilitakoekin.
4. Txostenarekin batera aurkezten den 2009ko kudeaketa txosten bateratuak, Taldearen egoera, bere negozioen bilakaera eta beste zenbait arlori buruz Sozietate Nagusiaren administratzaileen ustez egokiak diren azalpenak barnatzen ditu, eta ez da urteko kontu bateratuetan sartzen. Aipatutako kudeaketa-txostenak barne hartzen duen kontabilitate-informazioa 2009ko ekitaldiko urteko kontu bateratuekin bat datorrela egiaztatu dugu. Gure ikuskaritza-lana eta kudeaketa-txosten bateratua egiaztatzea (paragrafo honetan aipatutako irismenarekin), ez besterik, eta ez du barne hartzen Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. ren eta haren mendeko sozietateen kontabilitate-erregistroetatik hartutakoa ez den informazioen berrikuspenik.

DELOITTE, S.L.
R.O.A.C.-en inskribatua, S0692 zenbakiarekin



Joseba Ijalba Ruiz
2010eko otsailaren 24ean



Talde Bateratuaren Urteko Kontuak

2009ko Ekitaldia

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

2009ko eta 2008ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuak

(1., 2., eta 3., oharra) (mila eurotan)

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten Mendeko Sozietateak

| Aktiboa | 31-12-09 | 31-12-08 (*) |
|---|------------------|---------------------|
| Aktibo ez-korrontea: | | |
| Ibilgetu ukiezina (7. oharra) | | |
| Merkataritza-funtsa (2.f oharra) | 5.892 | 5.447 |
| Beste ibilgetu ukiezin bat | 163.908 | 167.725 |
| | 169.800 | 173.172 |
| Ibilgetu materiala, garbia (8. oharra) | | |
| | 274.633 | 204.630 |
| Partaidetza-sistemaren bidez kontabilizatutako inbertsioak (9. oharra) | | |
| | 12.191 | 13.468 |
| Finantza-aktibo ez-korronteak (9. oharra) | | |
| | 51.987 | 60.781 |
| Zerga geroratuengatikoko aktiboak (18. oharra) | | |
| | 88.847 | 72.582 |
| Aktibo ez-korrontea, guztira | 597.458 | 524.633 |
| Aktibo korrontea: | | |
| Izakinak (11. oharra) | | |
| | 336.624 | 78.875 |
| Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk | | |
| Salmenta eta zerbitzu-prestazioengatikoko bezeroak (10., 11. eta 12. oharra) | 814.186 | 642.556 |
| Beste zordun batzuk (7. eta 19. oharra) | 42.768 | 39.072 |
| Zerga korronteagatikoko aktiboak (19. oharra) | 4.368 | 1.821 |
| | 861.322 | 683.449 |
| Beste finantza-aktibo korronte batzuk (13. oharra) | | |
| | 468.818 | 509.539 |
| Beste aktibo korronte batzuk | | |
| | 3.172 | 396 |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | | |
| | 81.727 | 116.714 |
| Aktibo korrontea, guztira | 1.751.663 | 1.388.973 |
| Aktiboa, guztira | 2.349.121 | 1.913.606 |

Pasiboa eta ondare garbia**31-12-09****31-12-08 (*)****Ondare garbia (14. oharra):****Funts propioak**

| | | |
|--|----------------|----------------|
| Eskrituratutako kapitala | 10.319 | 10.319 |
| Jaulkipen-saria | 11.863 | 11.863 |
| Errebalorizazio-erreserba | 58.452 | 58.452 |
| Sozietate Nagusiaren eta integrazio orokor eta partaidetza sistema bidez bateratuko sozietateen beste erreserba batzuk | 268.294 | 195.648 |
| Sozietate nagusiari egotzitako ekitaldiaren emaitza | 124.343 | 105.741 |
| | 473.271 | 382.023 |

Balio-aldaketengatiko doikuntzak

| | | |
|-----------------------|-----------------|-----------------|
| Bihurtze-diferentziak | (13.702) | (19.697) |
| Estaldura-eragiketak | (70) | (204) |
| | (13.772) | (19.901) |

Sozietate nagusiko akziodunei egotz dakiekeen ondare garbia**459.499** **362.122****Gutxiengodun interesak****12.946** **15.208****Ondare garbia, guztira** **472.445** **377.330****Pasibo ez-korrontea:****Zuzkidura ez-korrontek** **2.661** **3.812****Finantza-pasibo ez-korrontek (15. oharra)**

| | | |
|------------------------------|----------------|----------------|
| Kreditu-erakundeekiko zorrak | 187.577 | 160.349 |
| Beste finantza-pasibo batzuk | 62.763 | 65.937 |
| | 250.340 | 226.286 |

Zerga geroratuengatiko pasiboak (18. oharra)**36.994** **21.356**

Beste pasibo ez-korronte batzuk 4.008 -

Pasibo ez-korrontea, guztira **294.003** **251.454****Pasibo korrontea:****Zuzkidura korrontek (20. oharra)** **217.867** **199.458****Finantza-pasibo korrontek (15. oharra)**

| | | |
|------------------------------|---------------|---------------|
| Kreditu-erakundeekiko zorrak | 15.817 | 16.564 |
| Beste finantza-pasibo batzuk | 21.137 | 29.173 |
| | 36.954 | 45.737 |

Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk

| | | |
|---|------------------|------------------|
| Hornitzaileak | 521.510 | 445.668 |
| Beste hartzekodun batzuk (10., 11. eta 19. oharrek) | 793.201 | 569.792 |
| Zerga korrontegatiko aktiboak (19. oharra) | 12.823 | 23.722 |
| | 1.327.534 | 1.039.182 |

Beste zenbait pasibo korronte**318** **445****Pasibo korrontea, guztira** **1.582.673** **1.284.822****Pasiboa eta ondare garbia, guztira** **2.349.121** **1.913.606**

(*) Konparazioak egiteko aurkeztu ditugu, soil-soilik.

Honekin batera doazkizuen 1etik 26ra bitarteko oharrek 2009ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuko parte dira.

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

2009ko eta 2008ko abenduaren 31ri dagozkion galera eta irabazien kontu bateratuak (1., 2., eta 3., oharrak) (mila eurotan)

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten Mendeko Sozietateak

| (Zorrak) Hartzekoak | 2009 | 2008 (*) |
|---|-----------------|-----------------|
| Eragiketa jarraituak: | | |
| Negozio-zifraren zenbateko garbia (6. oharra) | 1.258.041 | 1.004.951 |
| +/- Produktu bukatuen eta fabrikazio-bidean dauden produktuen izakinen aldaketa | 186.063 | 10.177 |
| Enpresak bere aktiborako egindako lana | 827 | 119 |
| Zuzkidurak (21. oharra) | (760.148) | (473.242) |
| Beste zenbait ustiapen-sarrera | 11.698 | 40.646 |
| Pertsonal-gastuak (22. oharra) | (280.119) | (229.466) |
| Beste ustiapen-gastu batzuk (21. oharra) | (255.072) | (230.712) |
| Ibilgetuaren amortizazioa (7. eta 8. oharrak) | (26.874) | (20.674) |
| Ibilgetuaren hondatzeagatiko eta besterentzeagatiko emaitza (7. eta 8. oharrak) | 2.407 | 182 |
| Beste emaitza batzuk | (1.051) | 373 |
| Ustiapen-emaitza | 135.772 | 102.354 |
| Finantza-sarrerak (13. oharra) | 6.763 | 17.156 |
| Finantza-gastuak (16. oharra) | (26.670) | (12.943) |
| Truke-desberdintasunak | 3.947 | 2.781 |
| Hondatzeagatiko eta finantza-tresnak besterentzeagatiko emaitza | 845 | (2.642) |
| Finantza-emaitza | (15.115) | 4.352 |
| Partaidetza-sistemaren bidez baloratutako erakundeen emaitza (9. oharra) | (524) | (294) |
| Zergak ordaindu aurreko emaitza | 120.133 | 106.412 |
| Irabazien gaineko zerga (18. oharra) | (427) | 296 |
| Eragiketa jarraituei dagokien ekitaldiko emaitza | 119.706 | 106.708 |
| Ekitaldiko emaitza bateratua | 119.706 | 106.708 |
| Honi egotzia: | | |
| Sozietate nagusiari | 124.343 | 105.741 |
| Gutxiengodun interesak | (4.637) | 967 |
| Akzioko irabaziak (eurotan) | | |
| Oinarrizkoa | 36,27 | 30,85 |
| Diluitua | 36,27 | 30,85 |

(*) Konparazioak egiteko aurkeztu ditugu, soil-soilik.

Honekin batera doazkizuen 1etik 26rako oharrak 2009ko abenduaren 31ko galera eta irabazien kontu bateratuko parte dira.

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

2008ko eta 2009ko ekitaldiei dagozkien sortutako eskudiru-fluxu bateratuaren egoera (1.tik 3., erako oharrak) (mila eurotan)

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten Mendeko Sozietateak

| | 2009 | 2008 (*) |
|---|-----------------|------------------|
| Ustiapen-jardueretako eskudiru-fluxuak: | | |
| Ekitaldiko emaitza | 120.133 | 106.412 |
| Emaitzaren doikuntzak | | |
| Amortizazioak (7. eta 8. oharra) | 28.389 | 23.790 |
| Epe luzerako zuzkiduren hornidura eta epe luzerako beste finantza-pasibo batzuk (3.ñ, 15. eta 20. oharra) | 1.942 | 3.583 |
| Finantza-aktibo ez-korronteen zuzkiduren-aldaketak (8. oharra) | (3.729) | 3.948 |
| Epe laburrerako zuzkiduren hornidura (20. oharra) | 18.364 | 30.322 |
| Galera eta irabazien beste partida batzuk | 1.239 | 114 |
| Aktibo ez-korronteak besterentzearen mozkina (3.g eta 8. oharra) | 244 | (182) |
| Partaidetza-sistemaren bidez kontabilizatutako inbertsioak (9. oharra) | 524 | 294 |
| Finantza-sarrerak | (6.763) | (17.156) |
| Finantza-gastuak | 26.670 | 12.943 |
| Kapital korronteko aldaketak | | |
| Zordun komertzialak eta beste aktibo korronte batzuk (3.d. eta 12. oharra) | (178.337) | (379.032) |
| Izakinen hazkundera | (255.294) | 159.839 |
| Hartzekodun komertzialak | 299.214 | 291.202 |
| Ustiapen-jardueretako eskudiruaren beste fluxu batzuk | | |
| Mozkinen gaineko zergengatik kobrantzak/(ordainketak) (19. oharra) | (10.850) | (21.852) |
| Ustiapen-jardueren gaineko beste kobrantza/(ordainketa) batzuk | (877) | (1.113) |
| Ustiapen-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (I) | 40.869 | 213.112 |
| Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxuak: | | |
| Inbertsioengatik ordainketak | | |
| Taldeko enpresak, enpresa elkartuak eta negozio-unitateak (6. oharra) | (2.607) | (1.013) |
| Ibilgetu materiala, ukiezina eta higiezinetak inbertsioak (7. eta 8. oharra) | (87.072) | (89.324) |
| Beste finantza-aktibo batzuk (9. eta 13. oharra) | (2.620) | (61.433) |
| Inbertsioengatik kobrantzak | | |
| Ibilgetu materiala, ukiezina eta higiezinetak inbertsioak (7. eta 8. oharra) | 3.368 | 497 |
| Beste finantza-aktibo batzuk (9. eta 13. oharra) | 38.798 | 1.124 |
| Interesen kobrantza | 6.763 | 17.156 |
| Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (II) | (43.370) | (132.993) |
| Finantziazio-jardueretako eskudiru-fluxuak: | | |
| Finantza-pasiboko tresnengatik kobrantzak/(ordainketak) | | |
| Jaulkipena (15. eta 16. oharra) | 36.682 | 56.268 |
| Itzulketa eta amortizazioa (15. eta 16. oharra) | (29.387) | (14.374) |
| Beste ondare-tresna batzuen dibidendu eta sariengatik ordainketak (14. oharra) | (32.567) | (29.139) |
| Finantziazio-jardueretako eskudiruaren beste fluxu batzuk | | |
| Interesen ordainketa (16. oharra) | (8.387) | - |
| Finantziazio-jardueren gaineko beste kobrantza/(ordainketa) batzuk | 1.173 | (372) |
| Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxu garbiak (III) | (32.486) | 12.383 |
| Eskudiruaren eta eskudiruaren baliokideen hazkunde garbia (I+II+III) | (34.987) | 92.502 |
| Eskudirua eta eskudiruaren baliokideak denboraldiaren hasieran | 116.714 | 24.212 |
| Eskudirua eta eskudiruaren baliokideak denboraldiaren amaieran | 81.727 | 116.714 |

(*) Konparazioak egiteko aurkeztu ditugu, soil-soilik.

Honekin batera doazkizuen 1etik 26ra bitarteko oharra 2009ko abenduaren 31ko eskudiru-fluxuaren egoera bateratuaren egoerari dagozkie.

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

2008 eta 2009ko ekitaldiei dagozkien sarrera eta gastu bateratuen egoera (1.tik 3.era arteko oharrak) (mila euro)

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAF Taldea osatzen duten Mendeko Sozietateak

| | 2009 | 2008 (*) |
|--|----------------|-----------------|
| A) Ekitaldiko emaitza bateratua | 119.706 | 106.708 |
| B) Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak | 6.431 | (16.483) |
| Finantza-tresnen balorazioagatik | - | - |
| Eskudiru-fluxuen estaldurengatik | 188 | (972) |
| Bihurtze-diferentziak | 6.297 | (15.783) |
| Zergen eragina | (54) | 272 |
| Sarrera eta gastu onartuak, guztira (A+B) | 126.137 | 90.225 |
| Honi egotzia: | | |
| Sozietate nagusiari | 130.530 | 89.258 |
| Gutxiengodun interesak | (4.393) | 967 |

(*) Konparazioak egiteko aurkeztu ditugu, soil-soilik.

Honekin batera doazkizuen 1etik 26ra bitarteko oharrak 2009ko abenduaren 31n onartutako sarrera eta gastu bateratuen egoeraren parte dira.

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

2009ko eta 2008ko ekitaldiei dagozkien ondare garbi bateratuko aldaketen egoerak (1., 2. eta 3. oharrak) (mila eurotan)

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta CAFTaldea osatzen duten Mendeko Sozietateak

Sozietate nagusiari egotz dakioken ondare garbia

| | Funts propioak | | | | | | | | Ondarea, guztira |
|---|-----------------|--------------------|---|------------------------|---------------------------|---------------------------------------|-----------------------|------------------------|------------------|
| | Kapital soziala | Jaulkipen-primaria | Egin gabeko aktibo eta pasiboen birbalioztatzeagatikoko erreserba | Beste erreserba batzuk | Ekitaldiko emaitza garbia | Balorazioengatikoko ondare-doikuntzak | Bihurtze-diferentziak | Gutxiengodun interesak | |
| 2007ko abenduaren 31ko saldoak (*) | 10.319 | 11.863 | 58.452 | 136.070 | 87.626 | 496 | (3.914) | 3.574 | 304.486 |
| Onartutako sarrerak/gastuak, guztira | - | - | - | - | 105.741 | (700) | (15.783) | 967 | 90.225 |
| Bazkide edo jabeekin egindako eragiketak | - | - | - | - | (29.139) | - | - | - | (29.139) |
| Dibidendu-banaketa | - | - | - | - | (29.139) | - | - | - | (29.139) |
| Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk | - | - | - | 59.578 | (58.487) | - | - | 10.667 | 11.758 |
| Ondare garbiaren partida arteko eskualdatzeak | - | - | - | 58.487 | (58.487) | - | - | - | - |
| Beste balorazio batzuk | - | - | - | 1.091 | - | - | - | - | 1.091 |
| Eremuan izandako aldaketak | - | - | - | - | - | - | - | 10.667 | 10.667 |
| 2008ko abenduaren 31ko saldoak (*) | 10.319 | 11.863 | 58.452 | 195.648 | 105.741 | (204) | (19.697) | 15.208 | 377.330 |
| Onartutako sarrerak/gastuak, guztira | - | - | - | - | 124.343 | 134 | 6.053 | (4.393) | 126.137 |
| Bazkide edo jabeekin egindako eragiketak | - | - | - | - | (32.567) | - | - | 1.173 | (31.394) |
| Dibidendu-banaketa | - | - | - | - | (32.567) | - | - | (43) | (32.610) |
| Egindako kapital-zabaltzeak | - | - | - | - | - | - | - | 1.216 | 1.216 |
| Ondare garbiaren beste aldaketa batzuk | - | - | - | 72.646 | (73.174) | - | (58) | 958 | 372 |
| Ondare garbiaren tresnen arteko eskualdatzeak | - | - | - | 72.540 | (73.174) | - | (58) | 692 | - |
| Bestelako balorazio batzuk | - | - | - | 106 | - | - | - | - | 106 |
| Eremuan izandako aldaketak | - | - | - | - | - | - | - | 266 | 266 |
| 2009ko abenduaren 31ko saldoak | 10.319 | 11.863 | 58.452 | 268.294 | 124.343 | (70) | (13.702) | 12.946 | 472.445 |

(*) Konparazioak egiteko aurkeztu ditugu, soil-soilik.

Honekin batera doazkizuen 1etik 26ra bitarteko oharra 2009ko abenduaren 31ko ondare bateratu garbiaren aldaketen egoerari dagozkio.

Agiri hau Espainian oro har onartutako kontabilitate-arauen arabera egindako eta gaztelaniaz aurkeztutako lan baten itzulpena da. Bi bertsioak bat ez badatoz, gaztelaniazkoa hartuko da kontuan.

2009ko abenduaren 31n amaitutako Urteko Ekitaldiari dagokion memoria bateratua

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. eta Mendeko Sozietateak (CAF Taldea)

1. SOZIETATE NAGUSIAREN IZAERA ETA JARDUERA

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. (aurrerantzean CAF edo Sozietate nagusia) Donostian (Gipuzkoa) sortu zen, mugarik gabeko izaerarekin.

Helburu soziala Estatutu Sozialen 2. artikuluan deskribatuta dago.

Sozietate nagusiaren oraingo jarduera nagusia trenbideetarako materiala fabrikatzea da.

Sozietate nagusiak, bere jarduera garatu ahal izateko, beste sozietate batzuetan partaidetzen gehiengoa du (2. f. oharra).

2. URTEKO KONTU BATERATUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

a) Aurkezteko oinarriak

CAF Taldearen 2009ko eta 2008ko ekitaldietako urteko kontu bateratuak administratzaileek formulatu dituzte:

- Lehenbizikoz, Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauen arabera (FINA, hemendik aurrera) egin dira kontuak. Europar Batasunak finkatuak dira arau horiek, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1606/2002 Arauarekin (EB) bat etorritz, barne direla Nazioarteko Kontabilitate Arauak (NKA) eta Financial Reporting Interpretations Committee (IFRIC) eta Standing Interpretations Committee (SIC) erakundeen irizpideak. Hirugarren oharrean daude, laburtuta, CAF Taldearen 2009ko eta 2008ko ekitaldietako urteko kontu bateratuak prestatzeko erabili diren kontabilitate-printzipio eta balorazio-irizpide nagusiak.
- Bestalde, aintzat hartu dira urteko kontu bateratuetan eragin nabarmena duten nahitaez aplikatu beharreko kontabilitate-printzipio eta -arau eta balorazio-irizpide guztiak, baita araudiak horretarako baimentzen dituen alternatibak ere (3. oharrean daude zehaztuta).
- Zehatz erakusten dute kontuek CAF Taldeak 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n zeuzkan ondarea eta egoera finantzarioa (bateratuak), haren eragiketen emaitzak, ondare garbian izandako aldaketak eta aipatutako datan amaitutako ekitaldian Taldeak izan dituen eskudiru-fluxu bateratuen aldaketak.
- Kontuan izan dira, halaber, sozietate nagusiaren eta Taldeko gainerako sozietateen kontabilitate-erregistroak. Dena dela, ikusirik Taldearen 2009ko eta 2008ko ekitaldietako urteko kontu bateratuak prestatzeko erabili diren kontabilitate-printzipioak eta balorazio-irizpideak (FINA) ez datozela bat Taldeko sozietate bakoitzak erabiltzen dituenarekin (tokian tokiko araudia), zenbait doiketa eta birsailkatze erantsi zaizkio bateratze-prozesuari, elkarrekin bateragarri egiteko aipatutako printzipioak eta irizpideak eta Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauetara egokitzeak.

2008ko ekitaldiari dagozkion CAF Taldearen urteko kontu bateratuak 2009ko ekainaren 6an egindako CAFeko Akziodunen Batzar Orokorrek onartu zituen. Akziodunen Batzar Orokorrek onartu behar dituzte 2009ko ekitaldiko Taldearen urteko kontu bateratuak eta haren partaide diren sozietateen urteko kontuak. CAFeko Administrazio Kontseiluaren iritziz, inongo aldaketarik gabe onartuko dira urteko kontu horiek.

b) Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauetara aldatzea (FINA)

Taldearen urteko kontu bateratuak (2009ko eta 2008ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiei dagozkienak), Finantza Informazioaren Nazioarteko Arauen arabera, egin dira, Europako Legebiltzarreko eta Kontseiluko 2002ko uztailearen 19ko 1606/2002 araudiak (EB) dioenarekin bat, eta aintzat hartuta eragin nabarmena duten eta nahitaez aplikatu beharrekoak diren kontabilitateko printzipio eta arauak eta balorazio-irizpideak, baita araudiak baimentzen dituen alternatibak ere.

Jarraian aipatutako neurriak eragingarriak izan dira lehen aldiz 2009ko ekitaldian. Hori dela eta, Taldearen urteko kontu bateratu hauetan aplikatuko ditugu, baina ez dute eragin nabarmenik izan zehaztutako zifretan eta haiek aurkezteko eta banakatzeko moduan. Ondorengo hauek dira neurriak: 8. FINA "Segmentu operatiboak" indarrean sartzea, 23. NKA "Interesen kostuak" berrikustea eta 2. FINAren "Akzioen araberako ordainketak" izenekoaren aldaketak, 32. NKA eta 1. NKA "Arrazoizko balioan sal daitezkeen finantza-tresnak eta kitapenean sortzen diren betebeharrak", 7. FINA "Banakapen osagarriak" eta 39. NKA eta 9. IFRIC "Birsailkapenetako eratorri inplizituen birbaluazioa".

Gaur egun, 2009ko urtarrilaren 1ean sartu dira indarrean interpretazio hauekin: 13 FINAIB "Bezeroak leialtzeko programak", 14 FINAIB eta 19 NKA "Etekin zehaztuko aktiboaren muga; gutxieneko ekarpen-eskakizunak eta interakzioa", eta 16 FINAIB "Atzerriko negozioetarako inbertsio garbien estaldura". Interpretazio horiek kontuan hartzeak ez du eraginik izan aipatutako ekitaldian 2009ko abenduaren 31n amaitu zen ekitaldiari dagozkion Taldearen urteko kontu bateratuetan.

2009ko urtarrilaren 1ean 1 NKA "Finantza-egoeren aurkezpena" izenekoaren berrikuspina sartu zen indarrean. Arau horren oinarritzko aldaketen helburua informazioaren aurkezpena hobetzea da, urteko kontu bateratuen erabiltzaileek ondarean gertatu diren aldaketak azter ditzaten jabeekin egindako transakzioen ondorioz izaera horrekin jarduten dutenean (dibidendu eta akzioen berrerosketa gisa) jabeak ez direnekin egindako transakzioek eragindako aldaketetatik bereizita (hirugarren batzuekin egindako transakzioak edo ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak edo gastuak). Berrikusitako arauari esker, diru-sarrera eta gastu guztiak emaitzen egoera bakarrean aurkez daitezke azpitotalekin edo bi egoera bereizitan (galeren eta irabazien kontu bat, eta onartutako diru-sarreraren eta gastuen egoera jarraian). Azken horixe da, hain zuzen ere, Taldeak aplikatu izan duena aurreko ekitaldietako zein 2009ko ekitaldiko urteko kontu bateratuetan.

Informazio-eskakizun berriak ere ekartzen ditu (egoera-balantzerako data gehigarria aurkeztea) erakundeak atzera begirako kontabilitate-aldaketarik edo birformulaziorik egiten badu, edo finantza-egoerei buruz lehendik egindako sailak berriro sailkatzen badira. Eskakizun horrek ez du ekitaldi honetan eraginik izan, egoera hori ez baita gertatu.

Indarrean ez dauden eta jaulki diren arau eta interpretazioak

Urteko kontu bateratu hauek formulatu diren datan, IASBk argitaratuak zituen jada arau eta interpretazio hauek guztiak, baina artean indarrean sartu gabe zeuden, urteko kontu bateratuen data baino geroagokoa dutelako eragin-data, edo Europako Batasunak artean ez zeuzkalako onartuak.

**Nahitaez aplikatu beharrekoa
hemendik aurrerako
ekitaldietan:**

Arauk eta arau-aldaketak:

| | | |
|---------------------------------|--|--|
| 3 FINAren berrikuspina | Negozio-konbinazioak | 2009ko uztailak 1 |
| 19 NKAren aldaketa | Partaidetza-aldaketak | 2009ko uztailak 1 |
| 39 NKAren aldaketa | Estalitako kontusail gisa izenda daitezkeen elementuak | 2009ko uztailak 1 |
| 32 NKAren aldaketa | Akzioen gaineko eskubideen sailkapena | 2010eko otsailak 1 |
| 9 FINA (1) | Finantza-tresnak: sailkapena eta balorazioa | 2013ko urtarrilak 1 |
| 2009ko hobekuntza-proiektua (1) | IFRSetarako premiazkoak ez diren hobekuntzak | Beste batzuk (batez ere, 2010eko urtarrilak 1) |
| 2 FINAren aldaketa (1) | Talde baitako akzioetan oinarritutako ordainketak | 2010eko urtarrilak 1 |
| 24 NKAren (1) berrikusketa | Lotura duten zatien banakapena | 2011ko urtarrilak 1 |

**Nahitaez aplikatu beharrekoa
hemendik aurrerako
ekitaldietan:**

Interpretazioak:

| | | |
|--------------------------|---|----------------------|
| 12 FINAIB (2) | Zerbitzuak esleitzeko hitzarmenak | 2009ko apirilak 1 |
| 15 FINAIB (2) | Higiezinak egiteko hitzarmenak | 2010eko urtarrilak 1 |
| 17 FINAIB (2) | Akziodunei aktibo ez-monetarioak banatzea | 2009ko azaroak 1 |
| 18 FINAIB (2) | Bezeroengandik jasotako aktiboak | 2009ko azaroak 1 |
| 14 FINAIBen aldaketa (1) | Derrigorrezko gutxieneko ordainketen aurrerakinak | 2011ko urtarrilak 1 |
| 19 FINAIB (1) | Finantza-pasiboak kitatzea ondare-tresnekin | 2010eko uztailak 1 |

(1) Urteko kontu bateratu hauek formulatzean Europar Batasunak artean onartuak ez zeuzkan arau eta interpretazioak.

(2) Aplikazio-data ezinbestekoa, Europako Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu ostean; IASBren jatorrizko dataren ezberdina da.

3 FINAren ("Negozioen konbinazioa") berrikuspena eta 27 NKaren ("Finantza-egoera bateratuak eta bereiziak") aldaketa

3 FINA berrikusia eta 27 NKaren aldaketak berrikuntza nabarmenak dira negozio-konbinazioen kontabilizazioari dagozkion zenbait alderditarako; horiek, oro har, arrazoizko balioaren erabilera azpimarratu ohi dute. Hauek dira gertatu diren aldaketa aipagarrienetako batzuk: erosketa-gastuen tratamendua: izan ere, gastuetara bideratuko dira (egun, konbinazioaren kostu nagusitzat jotzen dira); etapaka egiten diren erosketak (kontrolpean hartzen direnean, arrazoizko baliora itzularaziko du bere partaidetza eroS.L.eak); edo erositakoaren interes minoritarioak arrazoizko balioan neurtzeko aukera izatea (egun aukera bakarra dago: erositako aktibo garbien arrazoizko balioaren zati proportzional gisa neurtzen dira).

Arau berria gerora aplikatzekoa ere badenez (egindako negozio-konbinazioak direla eta batez ere), administratzaileek ez dute aldaketa aipagarririk gertatuko denik uste. Dena den, administratzaileek ez dute aztertu oraindik arau horren aplikazioak etorkizuneko negozio-konbinazioetan eta haien urteko kontu bateratuetan izan dezakeen eragina.

39 NKaren aldaketa, estalitako kontusail gisa izenda daitezkeen elementuak

Estalduren kontabilitateari buruzko bi gai zehatz argitu nahi ditu 39. NKaren aldaketa honek: (a) inflazioa noiz izan daiteken estalitako arriskua, eta (b) noiz erabil daitezken erositako aukerak estalduratzat. Inflazio-arriskuaren estaldurari dagokionez, aldaketak dio estaldu beharreko eskudiru fluxuen kontratu bidez identifikatutako zatia baldin bada bakarrik joko dela halakotzat. Aukerei dagokienez, berriz, haien berezko balioa bakarrik erabili behar da estaldura-tresnatzat, ez denbora-balioa.

Administratzaileen iritziz, interpretazio hori indarrean sartzeak ez du eragin aipagarririk izango urteko kontu bateratuetan, ez baitu estaldurarik aldaketak eragindako inongo egoerarekiko.

9 FINA, finantza-tresnak: sailkapena eta balorazioa

9. FINAK, etorkizunean, gaur egungo 39. NIKaren sailkapenari eta balorazioari dagokion zatia ordezkatu du. Gaur egungo arauarekin alderatuta, ezberdintasunak handiak dira; besteak beste, hauek aipa ditzakegu: kostu amortizatuko eta arrazoizko balioaren bi kategoriatan bakarretan oinarritutako sailkapeneko eredu berria onartzea, "epemugara arte mantendutako inbertsioen" eta "salmentarako eskuragarri dauden finantza-aktiboen" egungo sailkapenak desagertzea, amortizatutako kostura doazen aktiboetarako soilik balio duen narriaduraren azterketa eta finantza-kontratuetako eratorritako implizituen adarkatzerik eza.

Oraindik ez dituzte aztertu arau hori betetzeak etorkizunean zer ondorio izan dezakeen.

2 FINAren aldaketak: Akzioen araberako ordainketak

Aldaketak talde baten baitako akzioetan oinarritutako ordainketa-programak kontabilizatzearekin du lotura. Aldaketa nagusia 2 FINAren baitan 8. eta 11. FINAIBetan landutakoa txertatzea izango da; hori dela eta, interpretazio horiek

indargabetuta geratuko dira haien edukia arauaren gune nagusian sartuko delako. Enplegatuen edo hornitzaileek zerbitzuak jasotzen dituen entitateak transakzioa zenbatu behar duela argitu dute, ordainduko duena talde baitako beste erakunde bat izan ala ez, eta hori eskudirutan edo akziotan egin den edo ez kontuan hartu gabe.

Aldaketa horrek duen izaera ikusita, Taldearen kontuetan eragin aipagarririk ez duela izango uste da.

32 NKAREN aldaketa - Akzioen inguruko eskubideen sailkapena

Aldaketa hori atzerriko monetan dauden akzioak eskuratzeko jaulkitako eskubideen sailkapenaren ingurukoa da (eskubideak, aukerak edo warrantak). Aldaketa horren arabera, eskubide horiek zenbateko finkoaren truke akzioen kopuru zehatza erosteko erabiltzen direnean, ondarearen tresnatzat hartuko dira, zenbateko finko hori edozein monetatan izendatuta egonda ere, baldin eta arauak ezarritako beste baldintza batzuk betetzen badira.

Taldeak ez du ezaugarri horietako jaulkitako tresnarik; hori dela eta, aldaketa horrek ez luke inolako eraginik izango.

24 NKAREN aldaketa - Lotura duten zatien banakapenak

24. NKAREN berrikusketa honek finantza-egoeretan lotura duten zatien inguruan egin beharreko banakapenak biltzen ditu. Batez ere, bi berrikuntza daude: horietako batek banakapen batzuen inguruko salbuespen partziala biltzen du lotura-erlazioa mendeko erakundeak direlako edo Estatuarekin lotura (edo gobernu mailako erakunde baliokidearekin) dutelako gertatzen denean, eta lotura duen zatiaren zehaztapen hori berrikusi egin behar da aurretik arauan azaltzen ez diren erlazio batzuk argituta.

Aldaketa horren eragina aztertu da eta ez du inolako aldaketarik sortuko gaur egun Taldeak zehaztutako lotutako zatietan.

12 FINAIB. Zerbitzuak esleitzeko hitzarmenak

Zerbitzu-esleipenak gobernu batek (edo bestelako erakunde publiko batek) zerbitzu publikoak hornitzeko (errepideak, aireportuak, ur- eta elektrizitate-hornidurak sektore pribatuko operadoreei...) kontratuak esleitzen dituen hitzarmenak dira. Aktiboen kontrolak sektore publikoaren esku jarraitzen du, baina operadore pribatuari dagozkio azpiegitura publikoen eraikuntza, kudeaketa eta mantentze-lana. 12 FINAIBk zehazten du nola aplikatu behar dizkieten erakunde emakidadunek FINAIB hitzarmen horietan hartzen diren eskubide eta betekizunen kontabilizazioari.

Taldeak 2008ko ekitalditik (garaiz aurretik, beraz) aplikatu du FINAIB hori (7. oharra).

15 FINAIB Higiezinak egiteko hitzarmenak

Interpretazio honetan, higiezinaren eraikuntzari dagozkion diru-sarrerak eta gastuen kontabilitate-erregistroa egiten da, lagungarri baita ondasun higiezinak eraikitzeke hitzarmen bat 11. NKAN ("Eraikuntza-kontratuak") edo 18. NKAN ("sarrerak") noiz dagoen argitzeko eta, horrenbestez, jakiteko noiz eta nola erregistratu behar diren diru-sarrerak, hitzarmenaren ezaugarrien arabera.

Administratzaileen ustez, interpretazio hori indarrean sartzeak ez du eraginik izango urteko kontu bateratuetan; izan ere, Taldeak orain interpretazioan ezarritakoekin bat datozen irizpideak aplikatu izan ditu lehendik.

17 FINAIB. Akziodunei aktibo ez-monetarioak banatzea

Akziodunei eskudirutan ematen zaizkienetatik bestelako aktiboen ("jenerotan emandako dibidenduak") banaketaren kontabilitate-tratamendua jorratzen du interpretazio honek, talde bereko edo kontrol beraren mendeko aktiboen banaketak bere irismenetik kanpo badaude ere. Interpretazioak banatu beharreko aktiboaren arrazoizko balioaren araberrako obligazioa erregistratzea eta, aktiboaren liburuko balioarekin alderik balego, hori emaitzetan erregistratzea babesten du.

Administratzaileen ustez, interpretazio hori indarrean sartzeak ez du eraginik izango urteko kontu bateratuetan; izan ere, Taldeak orain interpretazioan ezarritakoekin bat datozen irizpideak aplikatu izan ditu lehendik.

18 FINAIB. Bezeroengandik jasotako aktiboak

Interpretazio horrek erakundeak bezeroak emandako aktiboa jasotzeko akordioak kontabilizatzea lantzen du hornikuntzetara sarbidea emateko erabil dezan (ohikoa da elektrizitateko, gaseko edo uraren kasuetan, esate baterako) edo zerbitzua eman diezaion. Administratzaileen iritziz, interpretazio hori indarrean sartzeak ez du eragin aipagarririk izango urteko kontu bateratuetan.

19 FINAIB. Zorra kitatzea ondareko tresnekin

Interpretazio horrek kontularitzaren trataera lantzen du finantza arloko pasiboaren kitapen osoa edo partziala mailegu-emaleari zuzendutako ondareko tresnen jaulkipenaren bidez egingo duen zordunaren ikuspegitik. Eragiketa mota horietan, interpretazio hori ez da aplikagarria izango dagozkion aurkako alderdiak akziodunak edo lotura dutenak badira eta izaera horrekin jarduten badute. Araua aplikagarria izango da nahiz eta ondare-tresnen bidez egindako zorraren trukea aurrez ikusita egon jatorrizko kontratuaren baldintzetan. Kasu horretan, ondare-tresnen jaulkipena pasiboa balio gabetzeko datan zuen arrazoizko balioaren arabera neurtuko da. Gainera, balio horren eta pasiboaren kontularitzako balioaren artean egon daitekeen edozein alde emaitzetan onartu beharko da. Administratzaileen iritziz, interpretazio hori indarrean sartzeak ez du eragin aipagarririk izango urteko kontu bateratuetan.

c) Moneta funtzionala

Eurotan aurkeztu dira urteko kontu bateratu hauek, Taldeak lan egiten duen ingurune ekonomiko nagusiko moneta euroa baita. 2.f oharra deskribatzen dituen politikaren arabera erregistratzen dira atzerriko eragiketak.

2009ko eta 2008ko abenduaren 31n euroa ez den beste moneta funtzionalen bat duten mendeko sozietateetako aktiboen eta pasiboen kontrabalioa, eurotan, banakapen honen arabera da:

| Dibisa | Kontrabalioa (mila euro) | | | |
|--|--------------------------|----------------|----------------|----------------|
| | 2009.12.31 | | 2008.12.31 | |
| | Aktiboak | Pasiboak | Aktiboak | Pasiboak |
| Txileko pesoa | 7.354 | 6.735 | 240 | 241 |
| Mexikoko pesoa | 339.873 | 267.605 | 335.121 | 236.153 |
| Argentinako pesoa | 2.529 | 858 | 2.673 | 889 |
| Brasilgo erreala | 140.493 | 90.374 | 63.487 | 1.140 |
| Estatu Batuetako dolarra (3.d) oharra) | 10.149 | 4.642 | 6.458 | 3.502 |
| Libera esterlina | 2.209 | 1.775 | 1.591 | 1.132 |
| Aljeriako dinarra | 1.105 | 954 | - | - |
| Turkiako lira | 4.331 | 4.032 | - | - |
| Guztira | 508.043 | 376.975 | 409.570 | 243.057 |

Hona hemen moneta funtzionala atzerrikoa duten mendeko sozietateen saldo nagusien banakapena, kontusailen ezaugarrien arabera:

| Saldoen izaera | Kontrabalioa (mila euro) | | | |
|--|--------------------------|----------------|----------------|----------------|
| | 2009.12.31 | | 2008.12.31 | |
| | Aktiboak | Pasiboak | Aktiboak | Pasiboak |
| Ibilgetu ukiezina | 243.626 | - | 233.960 | - |
| Ibilgetu materiala | 57.349 | - | 8.104 | - |
| Ibilgetu finantzarioa | 16.819 | - | 5.821 | - |
| Izakinak | 36.746 | - | 5.354 | - |
| Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk | 95.885 | - | 41.108 | - |
| Beste finantza-aktibo korrante batzuk | 6.029 | - | 42.955 | - |
| Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk | 51.589 | - | 72.008 | - |
| Pasibo ez-korrontea | - | 186.379 | - | 158.755 |
| Pasibo korrontea | - | 190.596 | - | 81.378 |
| Beste batzuk | - | - | 260 | 2.924 |
| Guztira | 508.043 | 376.975 | 409.570 | 243.057 |

d) Estimazioak

Batzuetan, estimazioak erabili dira CAF Taldearen 2009ko eta 2008ko ekitaldietako urteko kontu bateratuetan.

Estimazio horiek aztertutako gertaeren inguruan 2009ko abenduaren 31n eskuragarri zegoen informaziorik onenaren arabera egin ziren arren, baliteke etorkizunean gerta daitezkeen jazoerek horiek aldaraztea (gorantz zein beherantz) hurrengo ekitaldietan; hori dela eta, 8. NKAk xedatutakoaren arabera egin beharko lirateke aldaketa horiek etorkizunera begira, estimazio-aldaketaren eraginak kontuan hartuta dagokion galera eta irabazien kontu bateratuan.

Urteko kontu bateratu hauetan eragin nabarmenik izan duen aldaketarik ez da egon kontabilitate-estimazioetan, 2008arekin alderatuta.

e) Informazioa alderatzea

1 NKAk xedatutakoa betez, 2009ko ekitaldiaren inguruko memoria honetan azaltzen den informazioa 2008ko ekitaldiko informazioarekin batera azaltzen da alderatu ahal izateko.

Alderaketa egiteko erantsi ditugun 2008ko urteko kontu bateratuak ere Europar Batasunak finkatutako FINAen arabera egindakoak dira, 2009ko ekitaldikoekin aplikatutakoen antzera.

f) Talde bateragarria eta bateratze-printzipioak

Bateratze-eremua

Sozietate nagusiarenak eta haren kontrolpeko sozietateenak dira honi erantsita datozen urteko kontu bateratuak. Kontrola finantza arloko politikak zein politika operatiboak zuzentzeko ahalmena da, jarduera horietatik irabaziak lortu ahal izateko.

2009ko abenduaren 31n amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion urteko kontu bateratu hauek Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, saren (Sozietate nagusia; 1. oharra) eta ondoren data haren arabera zerrendatu diren mendeko sozietateen eta lotutako sozietateen banakako kontabilitate-erregistroetatik abiatuta prestatu dira:

| | Kontrol edo eraginaren % | Sozietatearen Helbidea | Jarduera | Ikuskaria |
|---|--------------------------|--------------------------|---|----------------|
| Integrazio osoz bateratuak | | | | |
| Azpitalde industrialia | | | | |
| CAF, S.A. | Nagusia | Gipuzkoa (Espainia) | Trenbide-ekipo eta -osagaien merkataritza-eta industria-jarduera. | Deloitte |
| CAF USA, Inc. | % 100 | Delaware (AEB) | Trenbide-ekipo eta -osagaien fabrikazioa eta muntaketa. | Grant Thornton |
| CAF México, S.A. de C.V. | % 100 | Mexiko D.F. (Mexiko) | Trenbide-ekipo eta -osagaien merkataritza-eta industria-jarduera. | Deloitte |
| CAF Brasil Industria e Comercio, S.A. | % 100 | Sao Paulo (Brasil) | Trenbide-ekipo eta -osagaien konponketa eta muntaketa. | Deloitte |
| CAF Argentina, S.A. | % 100 | Buenos Aires (Argentina) | Trenbide-ekipo eta -osagaien konponketa eta muntaketa. | Ernst & Young |
| CAF Rail UK, Ltda. | % 100 | Belfast (Ipar Irlanda) | Trenbide-ekipo eta -osagaien konponketa eta muntaketa. | Deloitte |
| CAF Italia, S.R.L. | % 100 | Erroma (Italia) | Trenbide-materialen konponketa eta mantentze-lanak. | Deloitte |
| CAF Chile, S.A. | % 100 | Santiago (Txile) | Trenbide-ekipamenduen konponketa eta mantentze-lanak. | Deloitte |
| CAF Francia, S.A.S. | % 100 | Paris (Frantzia) | Ekipamenduen fabrikazioa eta mantentze-lanak. | Deloitte |
| CAF Turquia, L.S. | % 100 | Istanbul (Turkia) | Ekipamenduen fabrikazioa eta mantentze-lanak. | Deloitte |
| CAF Argelia, E.U.R.L. | % 100 | Aljer (Aljeria) | Ekipamenduen fabrikazioa eta mantentze-lanak. | Deloitte |
| Trenes CAF Venezuela, C.A. | % 99 | Caracas (Venezuela) | Ekipamenduen fabrikazioa eta mantentze-lanak. | Deloitte |
| Houston LRV 100, LLC | % 100 | Delaware (AEB) | Tren-ekipoen fabrikazioa. | - |
| CFD Bagneres, S.A. | % 60 | Paris (Frantzia) | Ekipamenduen fabrikazioa eta mantentze-lanak. | Grant Thornton |
| Trenes de Navarra, S.A. | % 98,37 | Nafarroa (Espainia) | Trenbide-ekipo eta -osagaien fabrikazioa eta muntaketa. | Deloitte |
| Construcciones Ferroviarias de Madrid, S.L.U. | % 100 | Madril (Espainia) | Trenbide-ekipo eta -osagaien fabrikazioa eta muntaketa. | Horwath, Spain |
| Construcciones Ferroviarias CAF-Santana, S.A. | % 67 | Jaén (Espainia) | Trenbide-ekipo eta -osagaien fabrikazioa eta muntaketa. | Deloitte |
| Tradinsa Industrial, S.A. | % 96 | Lleida (Espainia) | Trenbide-materialen konponketa eta mantentze-lanak. | Deloitte |

| | Kontrol edo eraginaren % | Sozietatearen Helbidea | Jarduera | Ikuskaria |
|---|--------------------------|------------------------|--|---------------------------|
| Azpitalde teknologikoa | | | | |
| CAF I+D, S.L. (kide bakarreko sozietatea) | % 100 | Gipuzkoa (Espainia) | Tren-materialetarako I+G. | - |
| Traintic, S.L. | % 99,9 | Gipuzkoa (Espainia) | Produktu elektronikoen fabrikazioa. | BSK-Bask Consulting, S.L. |
| Trainelec, S.L. | % 100 | Gipuzkoa (Espainia) | Potentziako ekipo elektronikoak. | Deloitte |
| Nuevas Estrategias de Mantenimiento, S.L. | % 85 | Gipuzkoa (Espainia) | Irtenbide teknologikoak. | BSK-Bask Consulting, S.L. |
| Desarrollo de Software Miramon 4, S.L. | % 60 | Gipuzkoa (Espainia) | Softwarearen garapena. | BSK-Bask Consulting, S.L. |
| Bizkaia Ferroviaria, S.L. | % 100 | Bizkaia (Espainia) | Ingeniaritza-zerbitzuak. | BSK-Bask Consulting, S.L. |
| Centro de Ensayos y Análisis Cetest, S.L. | % 100 | Gipuzkoa (Espainia) | Entseguak eta homologazioak. | BSK-Bask Consulting, S.L. |
| Lets Ingenieros, S.L. | % 52,11 | Madril (Espainia) | Proiektu teknikoak, ingeniaritza elektronikoa eta ekipo elektronikoen fabrikazioa. | BSK-Bask Consulting, S.L. |
| Lander Simul. and Training Solutions, S.A. | % 57 | Gipuzkoa (Espainia) | Simulagailuak aztertzea eta fabrikatzea. | S.M. Auditores |
| Geminys, S.L. | % 100 | Gipuzkoa (Espainia) | Lanetarako eskuliburuak sortzea, osatzea eta idaztea. | Alter Consulting |
| Seinalia, S.L. | % 100 | Gipuzkoa (Espainia) | Seinaleztapeneko ekipamenduen diseinua, fabrikazioa eta merkaturatzea. | Deloitte |
| Zerbitzuak azpitaldea | | | | |
| Actren, S.A. (*) | % 51 | Madril (Espainia) | Tren-ekipoen mantentze-lanak. | Deloitte |
| Sermanfer, S.A.U. | % 100 | Madril (Espainia) | Trenbide-materialaren mantentze-zerbitzuak. | Audyge |
| Sefemex, S.A. de C.V. | % 100 | Mexiko D.F. (Mexiko) | Zerbitzuak ematea eta langileen administrazioa. | Almaguer, Guerrero y Cía |
| Corporación Trainemex, S.A. de C.V. | % 100 | Mexiko D.F. (Mexiko) | Administrazio- eta aholkularitza-zerbitzuak. | Almaguer, Guerrero y Cía |
| Inversiones en Concesiones Ferroviarias, S.A. | % 100 | Gipuzkoa (Espainia) | Enpresa-sustapena kapital-partaidetzaren bidez. | Deloitte |
| Urbanización Parque Romareda, S.A. | % 100 | Zaragoza (Espainia) | Akzioak edukitzea. | - |
| Ferrocarriles Suburbanos, S.A. de C.V. | % 85 | Mexiko D.F. (Mexiko) | Bidaiariak lurrez garraiatzeko zerbitzuak ematea. | Deloitte |
| Ibaia Energía, S.L. | % 100 | Gipuzkoa (Espainia) | Energia-sortzea. | BSK-Bask Consulting, S.L. |
| Sempere Componentes, S.L. | % 100 | Gipuzkoa (Espainia) | Osagaiak merkaturatzea. | BSK-Bask Consulting, S.L. |
| Predictove Ingenieros, S.L. | % 100 | Gipuzkoa (Espainia) | Iragarpeneko mantentze-lanen zerbitzuak. | Alter Consulting |
| Agarregune, S.L. | % 100 | Gipuzkoa (Espainia) | Enpresa mailako sustapena, ekimena eta inbertsioa. | - |
| Garraiotech, S.L. | % 80 | Gipuzkoa (Espainia) | Zerbitzu logistikoak. | BSK-Bask Consulting, S.L. |

| | Kontrol edo eraginaren % | Sozietatearen Helbidea | Jarduera | Ikuskaria |
|--|--------------------------|------------------------|--|----------------|
| Eraikuntza azpitaldea | | | | |
| Constructora de Sistemas Ferroviarios, S.L. | % 100 | Gipuzkoa (Espainia) | Tren-lineak ustiatzeko ekipamendua. | Deloitte |
| Constructora Mex. del Fer. Sub., S.A. de C.V. | % 100 | Mexiko D.F. (Mexiko) | Tren-lineak ustiatzeko ekipamendua. | Deloitte |
| Partaidetza-metodoaren bidez bateratuak (9. oharra) | | | | |
| Azpitalde industrialia | | | | |
| Compañía de Vagones del Sur, S.A. (**) | % 23,45 | Jaén (Espainia) | Karga-bagoien fabrikazioa. | - |
| Azpitalde teknologikoa | | | | |
| Asirys Vision Technologies, S.A. | % 26 | Gipuzkoa (Espainia) | Produkzio automatikoko sistemak aztertzea eta fabrikatzea. | S.M. Auditores |
| Zerbitzuak azpitaldea | | | | |
| Plan Metro, S.L. | % 40 | Madril (Espainia) | Trenetako material mugikorraren alokairu operatiboa. | Deloitte |
| Consortio Traza, S.A. (***) | % 25 | Zaragoza (Espainia) | Akzioak edukitzea | - |

(*) Metodo proportzionalaren arabera bateratutako sozietatea..

(**) Sozietateak % 100eko partaidetza du Ditecsa Jaén, S.L. enpresan.

(***) Sozietateak % 80ko partaidetza du sozietate honetan: Sociedad S.E.M. Los Tranvías de Zaragoza, S.A.

Aldaketak bateratze-eremuan

2009ko ekitaldian, Transitia, Sociedad de promoción de empresas, S.L. sozietatearen % 33ko guztizko partaidetza besterendu dute 834 mila euroko zenbatekoaren truke. Horrek guztiak 22 mila euroko minusbalioa sortu du. Era berean, Garraiotek, S.L.ren % 80 eskuratu du 1.530 mila euroren truke. Sozietate horrek zuen aktibo garbien balioa 1.356 mila eurokoa zen erosketa egin zen unean. Era berean, Trenes CAF Venezuela, CA sozietatea eratu da 18 mila euroko kapitalarekin, eta Houston LRV100 LLC sozietatea, berriz, 7 mila euroko kapitalarekin. Ekitaldi horretan, gainera, kapital-ekarpena egin da Consortio Traza, S.A. sozietatea eratzeko (2.056 mila euroko zenbatekoarekin). Sozietate horrek, era berean, 2009ko ekitaldian Sociedad de Economía Mixta los Tranvías de Zaragoza, S.A. izeneko sozietatea eratu du 10.000 mila euroko kapital sozialarekin; hango partaidetza % 80koa da.

2008ko ekitaldian, Inversiones en Concesiones Ferroviarias, S.A. mendeko sozietatearen gainerako % 22,43 erosi zuen Taldeak, 4.500 mila euroren truke. Erosketa-unean, 1.363 mila eurokoa zen sozietate horren liburuko balio bateratua.

Halaber, 2008 urtearen amaieran Ferrocarriles Suburbanos S.A. de CV mendeko sozietatean zeukan % 15eko partaidetza besterendu zuen Taldeak, 15.756 mila euroren truke (hasierako inbertsioaren kostu bera).

2008ko martxoaren 13an (transakzioa egin zeneko data eraginkorra), Taldeak Frantziako Construction Ferroviare de Bagnères, S.A. sozietatearen kapitalaren % 60 eskuratu zuen. Eragiketa hori Taldeak aurrez ikusi duen hedapen-prozesuaren baitan txertatu behar da. Sozietate horrek, era berean, % 100eko partaidetza zuen Conception Ferroviare et Développement, S.A.S sozietatean, eta 2008ko ekitaldian fusionatu ziren. Erosketako eragiketa horretan 5.296 mila euroko Merkataritza Funtza erabili zen. Sozietate hori erostearen truke 8.040 mila euro ordaindu ziren (negozio-konbinazioaren kostua), eskudirutan. Erosketa-unean, 4.744 mila euro zeuden (gutxi gorabehera)

eskudirutan eta beste aktibo likido baliokide batzuetan. Trenen diseinua, azterketa tekniko eta eraikuntza dira sozietate horien jardura nagusiak; horregatik, Taldearen trenen segmentuan txertatu dira. Erosketa-metodoaren arabera kontabilizatu zen eragiketa, honela:

| | Mila euro | | |
|--|--|------------------------------------|----------------------|
| | Liburuko zenbatekoa erosketa-datan(*) | Arrazoizko baliorako doikuntzak | Arrazoizko balioa |
| Erositako aktibo garbiak: | | | |
| Aktibo ez-korronteak | 1.636 | - | 1.636 |
| Aktibo korronteak | 15.062 | - | 15.062 |
| Pasibo ez-korronteak | (806) | - | (806) |
| Pasibo korronteak | (11.319) | - | (11.319) |
| Guztira | | | 4.573 |
| CAFi dagokiona (% 60) | | | 2.744 |
| Merkataritza Funtza (7. oharra) | | | 5.296 |
| Salerosketa-prezioa | | | 8.040 |

(*) Erositako azpitaldeari dagozkio zifra hauek

Merkataritzako funtsei dagozkien eskudirua sortzen duten unitateak legezko erakundeak dira.

2008ko ekitaldian, sozietate hauek eratu zituzten: Seinalia, S.L., CAF Turquía, L.S., CAF Francia, S.A.S, CAF Argelia, E.U.R.L., Agarregune, S.L., Transitia, Sociedad de Promoción de Empresas, S.L., Ditecsa Jaén, S.L. eta Corporación Trainemex, S.A. de CV; horien zenbatekoak hauek izan ziren: 1.000 mila, 1 mila, 200 mila, 232 mila, 60 mila, 1.003 mila, 3 mila eta 4 mila euro, hurrenez hurren.

Bateratze-metodoa

Sozietate nagusiak kontrolatzeko gaitasuna duen enpresei deitzen zaie "mendeko sozietate". Partaidetutako sozietateen jardueretatik etekinak eskuratu ahal izateko haien finantza- eta eragiketa-politikak gidatzeko ahalmenak adierazten du gaitasun hori. Sozietate partaidetutako eskubide politikoaren % 50 baino gehiagoren jabe baldin bada Sozietate nagusia (zuzenean edo zeharka), kontrol hori dagoela esaten da; edo jabetza-ehunekoa txikiagoa izanik Sozietateari kontrola ematen dieten akordioak baldin badaude beste akziodun batzuekin. Integrazio orokorreko metodoa aplikatuta bateratzen dira mendeko erakundearen urteko kontuak Sozietate nagusiarenarekin. Hori dela eta, bateratze-prozesutik kanpo utzi dira bateratutako sozietateen arteko transakzioetako saldo eta efektu aipagarri guztiak.

"Sozietate elkartuak" dira, halaber, Sozietate nagusiak haien gainean bere eragina nabarmen erabiltzeko gaitasuna duen guztiak, haiek kontrolatzeko (bere kasa edo beste batzuekin batera) gai izan ez arren. Normalean, partaidetutako sozietatearen % 20tik gorako partaidetza izateak (zuzeneko edo zeharkakoa) adierazten du gaitasun hori. Urteko kontu bateratuetan, "partaidetza-metodoaren" bidez baloratzen dira sozietate elkartuak; hau da, Taldeak haren kapitalean duen partaidetzaren ondare garbiaren zatikiaz, haietatik jasotako dibidendu-kenketak eta beste ondare batzuenak egin ondoren (sozietate elkarturen batekin transakziorik egin bada, Taldeak haren kapitalean duen partaidetza-ehunekotik kendu behar dira galerak edo irabaziak), ken banakako partaidetzetan izandako balio-galerak.

"Negozio erkide" deitzen zaie jardura baten gaineko kontrola erkidetutako kontrolaren mende dagoen negozioei, betiere kontrola erakunde bateko finantza-politika eta ustiapena zuzentzeko gaitasuna dela ulertuta. "Baterakuntza proportzionalaren" arabera itsasten dira negozio erkideak urteko kontu bateratuetan, hots, kontrolpeko erakundearen aktibo, pasibo, gastu eta diru-sarrerak sartzen dira partaide bakoitzaren finantza-egoeran, bakoitzak daukan partaidetzaren proportzioan.

Atzerri-monetako finantza-egoeren bihurteta

Atzerri-monetako finantza-egoerak 'itxiera-kanbioko tasan' bihurtu dira eurotara. Hau da, itxiera-egunean indarrean zegoen kanbio-tasa erabili da ondasun, eskubide eta obligazio guztien balioak eurotara bihurtzeko, eta galera eta irabazien kontuko kontusailak bihurtzeko, berriz, ekitaldiko batez besteko kanbio-tasa.

Kanbio-tasa historikoa erabiliz bihurtutako atzerriko sozietatearen fondo propioen (galera eta irabazien kontuaren saldoa izan ezik, lehenago aipatutakoagatik) eta ondasunak, eskubideak eta obligazioak itxiera-eguneko kanbio-tasan bihurtzeagatik sortutako ondare-egoera garbiaren arteko diferentzia balantze bateratuko Ondare Garbiari dagokion kontusailean erregistratu da 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera, diferentzia horretatik kanpoko bazkideei dagokien zatia kendu ondoren. Kanpoko bazkideei dagokien zati hori 'Ondare garbia - Gutxiengodun interesak' kontuan erregistratu da.

3. ERABILI DIREN KONTABILITATE-PRINTZIPIO ETA -POLITIKAK, ETA BALORAZIO-IRIZPIDEAK

2009ko eta 2008ko abenduaren 31ko urteko kontu bateratuak egiteko CAF Taldeak erabilitako balorazio-arau nagusiak honako hauek izan dira:

a) Beste aktibo ukiezin batzuk

Aplikazio informatikoak eta garapen-proiektuak (teknikoki eta komertzialki arrakasta izango dutela zalantzarik izan ezean) erosketa-kostuan, edo, hala badagokie, izakinak baloratzeko arauaren arabera aplikatutako produkzio-kostu metatuan (dagokion 3. oharra) baloratzen dira. Aplikazio informatikoak erosten direnean hasi eta bost urteko epean amortizatzen dira linealki (7. oharra). Ikerketa-proiektuak erosten direnean (edo amaitzen direnean) hasi eta 5 urteko epean amortizatzen dira, linealki, edo denbora-epe horretan lortu diren garapenarekin erlazioatutako kontratuen kosturik handien gisa berreskuratzen dira. Azken kasuan, izakinetara igortzen dira (7. oharra).

Emakida administratiboengatik CAF Taldeak erregistratutako zenbatekoak bat datoz haiek ustiatzeko behar ziren aktiboak erosteko edo ekoizteko izandako kostuekin, 12 FINAIBri jarraiki. Azpiegiturak eraikitzeko epean izandako finantza-gastuak, berriz, kapitalizatu egin ditugu. 'Ukiezina' deritzon erregistro-metodoa erabili genuen, bidaiarietatik eta emakidaren beste ustiapen-jarduera batzuetatik etorritako fluxuak izan baititu euskarri inbertsioen berreskuratzeak, eta ez baitzegoen erakunde emailetik jasotzeko baldintzarik gabeko kontratuzko eskubiderik. Beraz, emakidaren ustiapena egin ahala, Talde barruan sortutako aktiboan marjina galera eta irabazien kontuan ordainduko da, amortizazio-zuzkidura txikiago modura. Modu linealean egingo da haien amortizazioa, emakida indarrean den bitartean (30 urteko epean), zerbitzuak ematen hasten garen unetik (2008ko lehen seihilekoa) zenbatzen hasita (7. oharra).

Merkataritza-funtsa aktiboan agertzen da baldin eta kostubidezko erosketa dela medio, negozio-konbinazio batean, haren balioa azaleratzen bada. Negozio-konbinazioaren etekinak bereganatzea espero den unitate eskudiru-sortzaile bakoitzari esleitzen zaio merkataritza-funtsa, eta ez da amortizatzen. Horren ordez, hondatze-testa egiten zaie unitate eskudiru-sortzaile horiei, urtean behin gutxienik, aurrerago azalduko dugun metodologiaren arabera, eta, hala badagokio, balorazioaren zuzenketa ere egiten da.

Merkataritza-funtsak onartzen dituen hondatzeagatiko balorazio-zuzenketa ez dira leheneratzen ondorengo ekitaldietan.

b) Ibilgetu materiala

'Ibilgetu materiala' epigrafeko elementuak eroste-kostuan baloratzen dira. Hala badagokio, zenbait lege-xedapenek aldatuta dago kostua (besteak beste, abenduaren 5eko 11/1996 Foru Araua eta abenduaren 13ko 13/1991 Foru Araua,

aktibo horien kostuaren zatitza jo izan dena, FINAren arabera), baita 1. FINAko alternatibak ere; horren arabera kostu-baliotzat jotzen da zenbait aktibo jakinentzat trantsizio-datako arrazoizko balioa.

Ondasunen produktibitatea, ahalmena edo eraginkortasuna areagotu edo haien bitzta baliagarria luzatzen duten zabaltearen, modernizatzearen edo hobetzearen kostuak ondasun horien kostu handiago gisa kapitalizatzen dira.

Sozietate bateratuek beren ibilgetuan egindako lanak produkzio-kostu metatu gisa erregistratzen dira, izakinak zenbatesteko arauak aplikatuta (3.e oharra).

2009ko eta 2008ko ekitaldietan, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren, 244 mila eta 182 mila euroko mozkina (galera) eman du ibilgetu materialaren besterentzeak. Honi erantsitako galera- eta irabazi-kontu bateratuen "Ibilgetua besterentzearen kaltea eta eragina" epigrafean erregistratu dira mozkin horiek.

Ibilgetu materialeko elementuak metodo lineala erabiliz amortizatzen dira, kalkulaturako bitzta baliagarriaren urte hauetako ehunekoak aplikatuta:

| Bitzta baliagarriko urteak | |
|--|---------|
| Eraikinak | 25 - 50 |
| Instalazio teknikoak eta makinak | 6 - 10 |
| Beste zenbait instalazio, tresna eta altzariak | 3 - 10 |
| Gainerako ibilgetua | 10 |

Erabiltzeko moduan egoteko urtebetetik gora behar duten ibilgetuei dagokienez, oro har, ondasuna martxan jarri aurretik sortutako eta hornitzaileak igorritako finantza-gastuak ere sartzen dira kapitalizatutako kostuetan, baita haren fabrikazio edo erosketari zuzenean egotz dakioken kanpoko finantziazioari (berariazkoa edo generikoa) dagozkionak ere.

c) Aktiboaren balio-galera

Itxiera-datan, bere aktibo ez-korronteen balioa aztertzen du CAF taldeak, hondatzeagatik galera-aztarnarik baduten jakiteko. Aztarnarik baldin badago, aktiboaren zenbateko berreskuragarriaren kalkulua egiten da, saneamenduaren kostua zehazteko, baldin eta haren beharrik izaten bada. Berreskura daitekeen zenbatekoa merkatuko balioa salmentako kostuaren eta erabilera balioaren arabera minoratutakoaren arteko handiena izaten da. Hori dela eta, etorkizunerako estimatutako kutzako fluxuen egungo balioa izaten da:

Zenbateko berreskuragarria aktiboaren liburuko balio garbia baino txikiagoa bada, hondatzeagatik galera (diferentzia) honi erantsitako galeren eta irabazien kontu bateratuaren "Ibilgetua besterentzearen kaltea eta eragina" epigrafean erregistratzen da, eta honi erantsitako egoera-balantze bateratuaren "Ibilgetu materiala" epigrafean ordaintzen da.

Aurreko ekitaldietako aktibo batean izandako hondatzeagatik galerak itzuli egiten dira, haien zenbateko berreskuragarriari buruzko kalkuluan aldaketarik izan bada. Bestalde, hazi egiten da aktiboaren balioa, saneamendua egin izan ez balitz aktiboak izango zukeen liburuko balioaren mugarekin.

d) Finantza-tresnak

Zordunak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk

Haien aitortza egiten denean, merkatuko balioan baloratzen dira, balantze bateratuan; ondoren, kostu amortizatuan baloratzen dira, interes efektiboko tasaren arabera.

Kobratu beharreko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren eta erregistratuta dauden liburuko balioaren arteko diferentziagatik dagozkion zuzenketak erregistratzen dira, aurreko paragrafoak dioenaren arabera. 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n, 7. oharrean Mexikoko emakidagatik kobratu beharrekoagatik kontuan zehaztuta dagoena salbuetsita, ez dago epe luzera kobratu beharreko konturik zenbateko aipagarriarekin interes espliziturik gabe.

Ordainketak atzeratu dituztelako, ordainketa-etenduran, kaudimengabezia edo antzeko egoeran daudelako bezeroen zorrak estaltzeko egiten du Taldeak hornidura hori, betiere horien kobragarritasunaren azterketa banan-banan eginez. 2009an eta 2008an, kobratu beharreko kontuak hondatzeagatik hornikuntzaren mugimendu garbiak 431 mila eta 781 mila euroko aplikazioa eta hornidura izan ditu hurrenez hurren eta gutxi gorabehera (12. oharra).

Finantza arloko inbertsioak

Taldeak, 39. NKAk finkatutako sailkatze-irizpideen arabera, mantendu egin ditu finantza arloko inbertsioak kategoria hauetan:

- (1) Maileguak eta epe luzera kobratu beharreko beste kontu batzuk. Kostu amortizatuan baloratzen dira, interes efektiboko tasaren arabera. Kostu amortizatua: hasierako kostua ken printzipalaren kobratzeak, eta hondatzeagatik edo ez ordaintzeagatik ezarritako murrizketa oro. Interes efektiboko tasa: hasierako balioa fluxu guztiekin parekatzen duen eguneratze-tasa.
- (2) Mugaegunera arte gorde beharreko inbertsioak. Taldeak mugaegunera arte eduki nahi eta ahal dituen inbertsioak dira, mugaegun finkokoak. Inbertsio horiek ere bere kostu amortizatuaren arabera baloratzen dira.
- (3) Merkatuko balioan baloratutako finantza-aktibo negoziagarriak, galeren eta irabazien kontu bateratuaren bidez. Ezaugarri hauetakoren bat duten aktiboak dira:
 - Balore negoziagarritzat sailkatu da, prezio-gorabeheren bitartez etekinak izateko erosia baita.
 - Finantza-deribatuak, baldin eta estaldura-erlazio batean esleitu ez badira.
 - Hasierako onespenetik sartu dugu aktibo multzo horretan.

2009ko abenduaren 31n, Taldeak ez zeukan multzo horretan sailkatutako aktiborik.

- (4) Salmentarako eskuragarri dauden finantza-aktiboak. 'Arrazoizko balioan' baloratzen dira. Kategoria horretan sartzen dira negoziatzeko gordetzen ez diren erositako finantza-aktiboak, mugaegunera arteko edo galera eta irabazietan aldaketak dituzten arrazoizko balio inbertsioetat sailkatzen ez direnak, ia oso-osorik kapital-inbertsio finantzarioei dagozkienak. Inbertsio horiek ere beren merkatu-balioarekin daude egoera bateratuaren balantzean. Sozietate ez-kotizatuei dagokienez, beste bide batzuetatik eskuratzen dira inbertsio horiek (antzeko transakzioekiko konparazioa, edo, behar adina informazio izanez gero, espero diren kutxa-fluxuen eguneratzea). Merkatu-balore honen aldaketak egoera-balantze bateratuko "Balio-aldaketagatik doiketak" epigrafearen kontura edo hari ordaintzeko erregistratu behar dira, inbertsioak besterentzen diren arte. Hori egiten denean, inbertsio horiei buruzko epigrafe honetan metatutako zenbatekoa zuzenean egotzi behar zaio galeren eta irabazien kontu bateratuari.

Merkatu-balioa modu fidagarrian neurtzerik ez dagoen kotizatu gabeko sozietateetan bide alternatiboetatik (aurreko paragrafoan aipatutakoak, adibidez) eginiko finantza-inbertsioak erosketa-kostuan baloratzen dira.

CAF Taldearen zuzendaritzak finkatzen du aktibo bakoitzari dagokion sailkapen egokiena hura erosten denean. Ekitaldi bakoitzaren amaieran berrikusten du sailkapena.

Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide

Atxikitako egoera-balantze bateratuko epigrafe horretan, kutxan dagoen eskudirua eta ageriko gordailuak erregistratu behar dira.

Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk

Hasieran, merkatu-balioaren arabera baloratzen dira ordaindu beharreko kontuak, eta, ondoren, amortizatutako kostuaren arabera, interes efektiboko tasarekin.

Kreditu-erakundeekiko zorrak eta beste zenbait finantza-pasibo

Kreditu-erakundeekiko zorrak eta beste finantza-pasibo batzuk jasotako eskudiruari arabera erregistratzen dira hasieran, transakzio-kostuak kenduta, hau da, ordaindutako kostu-metodoa gero aplikatzearen baliokidea. Horretarako, interes-tasa efektiboa erabiltzen da. Sortzapen-irizpidearen arabera kontabilizatzen dira finantza-gastuak emaitza-kontu bateratuan, interes-tasa efektiboa erabiliz, eta tresnaren liburuiko zenbatekoari gehitzen zaizkio, ez badira likidatzen sortutako ekitaldian (16. oharra).

Finantza-tresna deribatuak

Kontratutako obretako eta partaidetutako sozietateetako zenbait inbertsioetako estaldura-eragiketetan erabiltzen ditu Taldeak tresna horiek, truke-tasak aldatzeko arriskutik babesteko. Hala, hainbat forward-en saleroste-kontratu izenpetu ditu CAF Taldeak, batez ere AEBko dolarretan, yenetan, Mexikoko pesotan, libera esterlinatan eta Brasilgo errealetan (17. oharra).

Finantza-deribatuak estaldurakotzat jotzeko behar diren irizpideak aztertu ditu Taldeak, baldintza hauek bete ahal izateko: (1) Hiru arrisku mota hauek estaltzea ("arrazoizko balioen estaldura", "eskudiru-fluxuen estaldura" edo "atzerriko negozioetako inbertsio garbien estaldura"); (2) Estalitako elementu edo posizioari dagokion arriskua egoki kentzea aurrez ikusitako estaldura-epe osoan, eta (3) Behar bezala dokumentatzea finantza-deribatuaren kontratazioa berariaz egin zela saldo edo transakzio jakin batzuk estaltzeko, baita nola egin eta neurtu nahi zen estaldura egoki hori ere, betiere Taldearen arrisku-kudeaketarekin bat badator horretarako sistema.

Finantza-arriskuak kudeatzeko helburuak eta politikak finkatu ditu CAF Taldeak, baita idatziz zehaztu ere deribatuen kontratazio-politika eta estaldura-estrategia.

Hasieran, eroste-balioaren arabera baloratzen dira finantza-tresna horiek. Ondoren, honela erregistratzen dira estaldura gisara sortu eta gauzatu diren finantza-tresna deribatuak arrazoizko balioaren aldaketak:

- Arrazoizko balioen estalduran, estaldura-elementuetan eta estalitako elementuetan sortutako diferentziak -estaltzen den arrisku motari dagokionez- honi erantsitako galeren eta irabazien kontu bateratuaren 'Finantza-emaitza' epigrafean sartzen dira. Arrazoizko balioen estalduratzat erregistratzen ditu Taldeak 2006ko ekitalditik aurrera hasitako obretarako kontratatutako estaldurak, baldintza egokiak baitaude estaldura horietarako.
- Eskudiru-fluxuen estalduretan, ondarearen "Ondare-doikuntzak, baloraziorako" epigrafean erregistratzen dira, behin-behingo, estaldura-elementuetako estaldura eraginkorreko aldean sortutako balorazio-diferentziak. 2005eko ekitaldian eta lehenagokoetan hasitako obren estaldurarako erabiltzen du Taldeak irizpide hori, baita beste transakzio hauetarako ere: estalitako arriskua etorkizunean egitea oso litekeena (eta ez konpromiso irmoa eta sinatua) izango den transakzioetarako.
Gertatzea oso litekeena den transakzioa konpromiso irmoak bihurtu ahala, lehendik ondarean onartutako zenbatekoak emaitza bezala birsailkatzen dira.
- Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estalduretan, ondarearen 'Bihurtze-diferentziak' epigrafean erregistratzen dira, behin-behingo, estaldura-elementuetako estaldura eraginkorreko aldean sortutako balorazio-diferentziak. CAF USA., Inc. sozietatearen funts propioetarako erabili da estaldura hori.

e) Izakinen balorazioa

Lehengaien eta beste zenbait hornikuntzen eta merkataritza-produktuen izakinak batez besteko erosketa-prezioan edo, txikiagoa balitz, merkatu-prezioan zenbatesten dira.

Fabrikazio-bidean dauden produktuak, produktu bukatuak eta erdibukatuak dagoeneko likidatuta dauden kostuak kenduta (3.f oharrean deskribatutako prozeduraren arabera) eta irizpide hauei jarraituz zenbatetsiko dira:

1. Obra bakoitzari egotzitako materialak eta gastuak batez besteko erosketa-prezioan edo produkzio-kostuan.
2. Eraldatze-gastuak, eskulanaren kostuak eta zeharkako eta zuzeneko produkzio-gastuak barne hartzen dituzten ordu-tasa estandarren arabera (ez dira ordu-tasa errealeen oso desberdinak).
3. Kontratu bakoitzari esleitu beharreko finantza-premien arabera kalkulatzen dira interesen kostuak.

f) Sarreraren eta emaitzen onespena

Eraikuntza-kontratuei dagokienez, kontratu bakoitzari dagozkion sarrerak eta emaitzak horien aurrerapen maila kalkulatuaren arabera erregistratzeko irizpidea erabiltzen du Taldeak, oro har. Aurrez ikusitako ordu guztiekiko kontratuari egotzitako orduen ehunekoaren arabera kalkulatzen da aurrerapen maila hori, eta bateragarria da sistema hori aurrerapen maila aurrekontuko kostuen arabera zehaztu beharrean eragindakoen arabera finkatzen duten beste metodo batzuekin. Kontratutako proiektuetan sor daitezkeen galerak zenbateko osoaz erregistratzen dira, galera horiek ezagutzen direnean edo zenbatets daitezkeenean.

Kontratu bakoitzeko aurrez ikusitako emaitza jakitean, Taldeak indize zuzentzaile hauek aplikatzen ditu emaitzak eta sarrerak zehazteko:

- Aurrerapen-maila % 0-10 bitartekoa denean, ez da irabazirik ez sarrerarik erregistratzen.
- Aurrerapen-maila % 10ekoa baino handiagoa denean, aurrerapen-maila horren baliokidea den irabazien eta sarreraren ehunekoaz erregistratzen da.

Izandako diru-sarreraren eta kontratu bakoitzean aurrez ikusitako emaitzaren arabera (aurreko paragrafoetan adierazi bezala kalkulatuta), eta aurrerapen maila kontuan hartuta, izakinei baja ematen zaie, likidatutako kostuen zenbatekoaren arabera. Zenbateko hori dagokion galeren eta irabazien kontu bateratuan zordundu eta egoera-balantze bateratuko aktiboaren "Izakinak" epigrafean ordainduko da (11. oharra).

Bestalde, produktuak saltzeko (errodajeak, batik bat), ondasunak besterentzen diren unean erregistratzen dira, eta titularitatea eskualdatzen da.

g) Bezeroen aurrerakinak eta lortutako produkzioa

Obra bakoitzeko onartutako sarreraren diferentzia (3.f. oharra) eta horregatik fakturatutako zenbatekoa honela erregistratzen da:

- positiboa bada, "Fakturatzeko dagoen egindako produkzioa" bezala, "Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk - salmenten arabeko bezeroak eta zerbitzuak ematea" atalean (11. oharra).
- negatiboa bada, "Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk - Beste hartzekodun batzuk" atalean (11. oharra)

h) Eragiketak eta beste zenbait konpromiso atzerri-monetan

Atzerriko sozietate bateratuetako dibisa-aktiboak eta -pasiboak euro bihurtu dira, 2.f. oharrean azaldu dugunez. Gainerako dibisa-aktibo eta -pasibo ez-monetarioak ekitaldi bakoitzaren amaieran indarrean zegoen truke-tasaren arabera baloratu dira, eta emaitzei egotzi zaizkie zenbatetsitako truke-tasaren eta itxierako truke-tasaren arteko truke-tasaren diferentzia positibo eta negatiboak. Finantza-deribatuak kontratatuz truke-tasaren arriskua murrizteko atzerriko monetan CAF Taldeak egindako eragiketak 3.d oharrean azalduetako printzipioen arabera erregistratzen dira.

i) Zorren sailkapena: epe laburrekoak ('korrontea') eta luzekoak ('ez-korrontea')

Honi erantsitako egoera-balantze bateratuan, ekitaldi-amaierako mugaegunen arabera sailkatzen dira zorrak. Hamabi hilabetez azpiko mugaeguna duten zorrak jotzen dira epe laburrekotzat, eta hortik gorakoak epe luzekotzat.

j) Diru-laguntza ofizialak

Jasotako diru-laguntzak zenbatesteko, irizpide hauek erabiltzen dituzte Taldeko sozietateek:

1. Itzultzekoak ez diren kapitaleko diru-laguntzak diruz lagundutako aktiboaren balio txikien gisa erregistratzen dira, behin betiko ematen direnean, dagokien zenbatekoarekin, eta emaitzen kontura eramaten dira, diruz lagundutako aktiboen amortizazio-erritmoaren arabera.
2. Ustiapeneko diru-laguntzei dagokienez, behin betiko ematen dituztenean eramaten dira emaitzen kontura, diruz lagundutako kostuak murriztuz.

k) Enplegu osteko prestazioak

Sozietate bateratuek erretiro edo heriotzengatik beren langileetako batzuekin dituzten obligazioak aseguru-konpainia independenteetan gordailatutako edo gordailatze bidean diren kanpo-funtsetako prestazio eta ekarpen jakin batengatik prima ordainduta hornitzen dira (15. oharra). 2009an eta 2008an zenbait langileri emandako zenbatekoa 3.619 mila eurokoa eta 3.200 mila eurokoa izan zen, hurrenez hurren, eta honi atxikitako galeren eta irabazien kontu bateratuko "Pertsonal-gastuak" epigrafearen kontura egin zen. Taldeak ez du ordainketarik egin gabe edo ez du defizit aktuarialik kontzeptu horiengatik 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n. Sozietate nagusiko langile guztien oinarriko soldataren % 1,75eko ekarpena egin zuen sozietate nagusiak gizarte-aurreikuspen erakunde batera, indarrean den hitzarmen kolektiboaren arabera.

Halaber, sozietate nagusiko administratzaileek, aholkulari legalen azterketa aintzat harturik, langile aktiboetako batzuekiko eskubide historiko bat finkatzeko aukera aztertu zuten 2006ko ekitaldian. Sortzapen-printzipioari jarraiki, 734 mila euroko (1.120 mila euro 2008ko abenduaren 31n) hornidura (aditu independente batek kalkulatu) erregistratu genuen 2009ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuko "Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk - Beste hartzekodun batzuk" epigrafean. "Aktibo atxikitza" jotzeko baldintzak betetzen dituzten aktiboen arrazoizko balioaren eta zehaztutako prestazio-konpromisoen egungo balioaren arteko diferentziari dagokio zenbateko hori. Dagokion ekitaldiko emaitzen kontura erregistratu behar dira hartutako konpromisoari gerora egiten zaizkion aldaketak. 2009ko eta 2008ko ekitaldietan, 781 mila euro eta 608 mila euroko ordainketak egin zituen Taldeak, eta 395 mila euro eta 521 mila euro eman ditu, galera eta irabazien kontu bateratuko "Pertsonalaren gastuak - Soldatak eta lansariak" epigrafearen kontura gehienbat (22. oharra).

Hirugarren independente batek eginiko aktuaritza-azterketako hipotesietan, merkatu-mota bati deskontatu zaizkio etorkizuneko konpromisoak, betiere iraganeko soldata-igoeren antzekoen arabera.

l) Erretiro aurreratuak eta lana uzteagatiko kalte-ordainak

2009ko abenduaren 31n, egoera-balantze bateratuko (honi erantsia) "Finantza-pasibo ez-korrontea - Beste finantza-pasibo batzuk" eta "Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk - Beste hartzekodun batzuk" epigrafeek 8.573 mila eta 3.376 mila euroko, hurrenez hurren, zenbatekoak zituzten (2008an, 7.713 mila eta 2.220 mila euro). Bat datoz zenbateko horiek 2009ko abenduan Taldeak errelebu-kontratuarekin zeuzkan langileei etorkizunean eman beharreko lan-ordainik gabeko ordainketekin, administratzaileek egindako kalkuluen arabera. Hornikuntza hori 2009ko ekitaldian erregistratu dute honi atxikita dagoen 2009ko galeren eta irabazien kontu baterako "Pertsonalaren gastuak - Soldatak eta lansariak" epigrafearen kontura zordunduta (18. eta 22. oharrak). Horien zenbatekoa 6.080 mila eurokoa izan da (2008ko ekitaldikoa 2.555 mila eurokoa izan zen).

m) Sozietateen gaineko zerga

Espainiako Sozietateen Gaineko Zerga eta atzerriko sozietate bateratuetako antzeko gainerako zergak galeren eta irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, ondare garbian zuzenean erregistratzen den transakzio baten ondorio ez badira behintzat; hala badira, ondare garbian erregistratzen da dagokion zerga ere.

Ekitaldiko irabazien gaineko zerga-gastua honela kalkulatzen da: ekitaldiko oinarri zergagarriari aplikatzen zaion zerga-tasako zerga korrontearen batura eginez (zerga aldetik onargarri diren kenketak egin eta gero) zerga aurreratu eta geroratuengatiko eta zerga-kredituengatiko aktibo eta pasiboan aldaketarekin, bai oinarri zergagarri negatiboengatikoak, bai kenketengatikoak.

Zerga geroratuengatiko aktibo eta pasiboetan sartzen dira denbora-alde hauek: finantza-egoera bateratuetako aktibo eta pasiboan liburuko zenbatekoen eta haien zerga-balioaren arteko aldeengatik ordaindu edo berreskuratu beharreko zenbatekoak, baita konpentsatu beharreko oinarri zergarri negatiboak eta zerga-aplikaziorik gabeko zerga-kenkariengatiko kredituak ere. Honela erregistratzen dira zenbateko horiek: dagokion denbora-alde edo kredituari aplikatuz haiek berreskuratu edo likidatzea espero den zerga-tasa.

Geroratutako zergengatiko pasiboak onartzen zaizkie denbora-alde aplikagarri guztiei, salbu -oro har- merkataritzafuntsaren hasierako onespentetik sortua bada denbora-aldea. Bestalde, zerga geroratuengatiko aktiboak (denbora-aldeekin identifikatuak) kasu bakarrean onartzen dira: uste baldin bada erakunde bateratuek gerora izango dutela behar adina zerga-irabazirik (eskari-zorroak estaltzen duenik, alegia) haien kontura diru bihurtzeko. CAF Talde Bateratuan, eskaera-zorroak estaltzen duena jotzen da irabazi nahikotzat. Zerga geroratuengatiko gainerako aktiboak (denbora-diferentziengatiko aktiboak, oinarri zergagarri negatiboak eta konpentsatu beharreko kenkariak) kasu bakarrean onartzen dira: uste baldin bada erakunde bateratuek izango dutela etorkizunean behar adina zerga-irabazirik haien kontura diru bihurtzeko.

FINAen arabera, zerga geroratuengatiko aktibo eta pasibo guztiak aktibo eta pasibo ez-korrontetzat sailkatu dira.

n) Errentamenduak

Finantza-errentamendu gisa sailkatzen ditu CAF Taldeak errentamendu-kontratu hauek: alokatzailleak maizterrari ondasun-jabetzaren arrisku eta onura guztiak besterentzen dizkionak. Gainerako errentamenduak eragiketa-errentamendu gisa sailkatzen dira.

Kontratua indarrean den bitartean, galeren eta irabazien kontu bateratuko "Beste zenbait ustiapen-gastu" epigrafeari egozten zaizkio errentan hartutako aktiboetan sortutako gastuak, sortzapen-irizpidearen arabera.

ñ) Hornikuntzak eta kontingentziak

Sozietate nagusiko administratzaileek bereizketa hau egiten dute urteko kontu bateratuen formulazioan:

- a) Hornikuntzak: iraganeko gertakarietatik datozen gaur egungo obligazioak estaltzen dituzten saldo hartzekodunak. Horiek baliogabetuz gero, baliteke baliabide-galera izatea, baina ezin da zehaztu ez zenbatekoa, ez baliogabetzeko unea.
- b) Pasibo kontingenteak: iraganeko gertakariak eragindako balizko obligazioak; horiek gertatzeko Taldeko borondatek kanpoko gertakari batek edo batzuek gertatu behar dute.

Obligazioa betetzeko beharra ez betetzekoa baino handiagoa dela uste den hornikuntza guztiak jasotzen dituzte urteko kontu bateratuek. Pasibo kontingenteak ez dira jasotzen urteko kontu bateratuetan, memoria bateratuko oharretan ematen baita horien berri, aspaldikotzat jotzen ez badira behintzat.

Aktibo gisa erregistratu behar da obligazioa likidatzean hirugarren batengandik jasotzen den konpentsazioa, betiere ez badago zalantzarik itzulketa jasoko dela, legezko loturaren bat dela medio Taldeak erantzuteko obligaziorik izan ez eta arriskuaren zati bat kanporatu ez badu. Horrelakoetan, dagokion hornikuntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, kontuan hartuko da konpentsazioa.

Indarrean dagoen lan-legeriaren arabera, baldintza jakin batzuetan lan-harremanak eteten dituen langileei kalte-ordainak eman behar dizkie Taldeak. Beraz, arrazoizko kuantifikazioko kaleratzeagatiko kalte-ordainak gastutat erregistratzen dira kaleratze-erabakia hartu den ekitaldian. Hori erantsitako urteko kontu bateratuetan ez da erregistratu inongo hornidurarik kontzeptu horregatik, ez baita aurrez ikusten horrelako egoerarik.

o) Ingurumeneko arloak

Eroste- edo ekoizte-kostuan erregistratzen ditu Taldeak ingurumen-inbertsioak, amortizazio metatua kenduta eta, izaeraren arabera, dagokien ibilgetu materialaren atalean sailkatuta (8 eta 21.c oharra).

Aplikatu beharreko ingurumen-legeria betetzeko egindako gastuak galera eta irabazien kontu bateratuko 'Beste zenbait ustiapen-gastu' epigrafean sailkatzen dira, izaeraren arabera (21.c oharra).

1370/2006 Errege Dekretua onartu zen 2006ko ekitaldian. Dekretu horrek arautzen du 2008-2012 aldirako CO₂-ren igorpen Eskubideen Plan Nazionala eta, gerora, 1030/2007 EDk aldatu du. Araudiak xedatutakoa betez, CO₂-emisiok egiteko eskubideak behar ditu Taldeak, eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera jasoko ditu. Onartutako Errege Dekretuak banakako igorpen-eskubideak doan esleitzeko aukera onartu du instalazio bakoitzerako 2008-2012 aldirako. Hori dela eta, Taldeari, aldi horretan, 154.365 tona CO₂ igortzeko eskubideak dagozkie. Esleitutako eskubideen bolumena baino gehiagoko igorpenak eginez geroz, beharrezkoa izango da merkatuan igorpen-eskubideak eskuratzea.

2005. urtetik, beren jardueran CO₂ igorpenak egiten dituzten Europako sozietateek hurrengo ekitaldiko lehen hilabeteetan ekitaldian egindako igorpenen baliokideak diren CO₂ igorpen-eskubideak entregatu behar dituzte.

2009ko eta 2008ko ekitaldietan, Taldeak 16.975 eta 20.003 tonako igorpenak egin ditu (hurrenez hurren). Bi ekitaldi horietako bakoitzerako esleitutako eskubideen kopurua, aldiz, 30.873 tonakoa zen. Hori dela eta, Taldeak ez du ekitaldia ixtean inolako pasiborik erregistratu.

p) Sarrerak eta gastuak

Sarrerak eta gastuak sortzapen-irizpidearen arabera egozten dira; alegia, horiei dagozkien ondasun eta zerbitzuen korrante erreala gertatzen denean, horiengatik moneta- edo finantza-korrontea noiz gertatzen den kontuan izan gabe.

Zuhurtzia-printzipioari jarraituz, Taldeak ekitaldi-itxierako datan egindako mozkinak bakarrik kontabilizatzen ditu. Aurrez ikus daitezkeen arriskuak eta galerak, baita balizkoak ere, ezagutu bezain laster kontabilizatzen dira.

Interes-tasa efektiboaren metodoa erabiltzen da interesak galera eta irabazien kontura sartzeko, akziodunak haiek jasotzeko eskubidea baduela onartuz gero. Nolanahi dela ere, erosketa ondoren sortutako finantza-aktiboen interesak eta dibidenduak galera eta irabazien kontuko diru-sarreratzat aitortzen dira.

q) Eskudiru-fluxuen egoera

Zeharkako metodoaren arabera prestatu da eskudiru-fluxu bateratuen egoera. Hona hemen sail horretako zenbait terminoren esanahia:

- Eskudiru-fluxuak: eskudiruaren eta haren baliokideen sarrerak eta irteerak.
- Ustiapen-jarduerak: Talde bateratuko sozietateen jarduera arruntak, baita inbertsio- edo finantziario-jardueratzat sailkatu ezin diren beste jarduera batzuk ere.
- Inbertsio-jarduerak: epe luzerako aktiboak eta eskudirua edo haren baliokide ez diren beste inbertsio batzuk erosi, besterendu edo beste bide batzuetatik eskuratzeko jarduerak.
- Finantziario-jarduerak: ondare garbiaren eta ustiatze-jarduerako ez diren pasiboen tamaina eta osaeran aldaketak eragiten dituzten jarduerak.

r) Akzio bakoitzeko irabaziak

Honela kalkulatzen da akzioko oinarrizko irabazia: Sozietate nagusiari dagokion epeko irabazi garbiaren eta epe horretan zirkulazioan izan diren akzio arrunten batez besteko kopuru haztatuaren zatidura.

2009ko eta 2008ko abenduaren 31n amaitutako CAF Taldearen urteko ekitaldi bateratuetako kontuei dagokienez, bat dator akzioko oinarrizko irabazia irabazi diluituarekin, ez baita akzio potentzialik zirkulazioan ibili ekitaldi horretan.

s) Jarraitutasunik gabeko eragiketak

Jarraitutasunik gabeko eragiketa: uztea eta/edo besterentzea erabaki den negozio-linea; horietako aktiboak, pasiboak eta emaitzak bereiz daitezke alderdi fisikoari, eragiketei eta finantza-informazioari dagokienez. Bereizita aurkezten dira jarraitutasunik gabeko eragiketen sarrera-irteerak, emaitza-kontu bateratuan.

2009ko eta 2008ko ekitaldietan, negozio-lerro edo -unitate bakar bat ere ez zen geratu jarraitutasunik gabe.

t) Eragiketa lotuekin egindako transakzioak

Merkatu-baloreekin lotutakoekin egiten ditu eragiketa guztiak Taldeak. Horrez gain, transferentzia-prezioek euskarri egokia dute; beraz, Sozietateko administratzaileek diote gerora pasibo handirik sortzeko arrisku handirik ez dagoela.

4. SOZIETATE NAGUSIAREN EMAITZAREN BANAKETA

Sozietate nagusiaren 2009ko ekitaldiko emaitzen banaketa honela egin da, administratzaileek hala proposatuta:

| Banaketa | Mila euro |
|-------------------------|----------------|
| Borondatzeko erreserbak | 97.636 |
| Dibidenduak | 35.995 |
| Guztira | 133.631 |

5. FINANTZA-ARRISKUAK KUDEATZEKO POLITIKA

CAF Taldeak garatzen dituen jardueren finantza arloko arrisku batzuk dituzte merkatu-arriskuak (truke-tasa aldatzearen arriskua, arazoizko balioaren interes-arriskua eta prezio-arriskua barne direla), kreditu-arriskua, likidezia-arriskua eta eskudiru-fluxuen interes-tasaren arriskua.

Finantza-merkatuen ziurgabetasunean arreta berezia jarri du CAF Taldeak, eta saiatzen da Taldearen finantza mailako errentagarritasunean ziurgabetasun horrek eragin ditzakeen aurkako kalteak murrizten.

Taldeko Finantza sailak identifikatu, aztertu eta estaltzen ditu finantza mailako arriskuak, eta idatzizko politikak finkatzen ditu arrisku orokorra kudeatzeko, baita alor jakin batzuetarako ere (truke-tasaren arriskua, interes-tasaren arriskua, likidezia-arriskua, eratorrien eta eratorri gabeen erabilera, eta likidezia-soberakinaren inbertsioa).

a) Merkatu-arriskua

Nazioartean dihardute CAF Taldeko sozietateek eta, horrenbestez, truke-tasaren arriskupean daude, dibisekin eragiketak egiteagatik (dolarra, Mexikoko pesoa eta Brasilgo erreala, batez ere). Truke-tasak eragindako arriskua hauek sortzen dute: geroko transakzio komertzialak, aitortutako aktiboak eta pasiboak eta atzerriko eragiketetan egiten diren inbertsio garbiak.

Epeka zehaztutako kontratuak erabiltzen dituzte Taldeko sozietateek geroko transakzio komertzialek eta aitortutako pasiboek eta aktiboek sortzen duten truke-tasaren arriskua kontrolatzeko. Truke-tasaren arriskua sortzen da Taldearen funtzionamendu-moneta (euroa) ez den beste batean egiten direnean geroko transakzio komertzialak eta aitortutako pasiboak eta aktiboak.

Taldearen ohiko jarduera izan ohi da, Taldearen funtzionamendu-moneta ez den besteren batean egindako kontratuetan, merkatu-arriskua osorik estaltzea. Estaldura horien helburua sinatutako kontratuetan dibisen gorabeheren eragina saihestea da. Horri esker, Taldearen emaitzak bere jarduera industrialaren eta zerbitzuaren iS.L.a zehatza izatea lortu nahi da.

Lehengai nagusiei dagokienez, proiektu berri bakoitza indarrean sartzean egiten ditu eskariak eta hitzartzen du prezioa Taldeak. Horri esker, lehenagaien prezioek izan dezaketen goranzko bilakaerak kontratuko marjinetan modu negatiboan eragina izateko arriskua estal dezake.

b) Kreditu-arriskua

Kobratu beharreko kontu eta egiten ari garen lanik gehienak hainbat herrialdetako bezeroei dagozkie. Kasu gehienetan, proiektuak aurrera egin ahala hainbateko ordainketak agintzen dituzte kontratuek.

Ohiko jarduera du Taldeak kontratuak bertan behera uzteko edo ez ordaintzeko arriskua bermatzea ELGAtik kanpoko herrialdeetan. Horretarako, esportaziorako aseguru-polizak kontratatzen dira, ELGAko Hitzarmenak gai horietarako dituen arauen arabera.

c) Likidezia-arriskua

Likidezia-arriskuaren kudeaketa zuhurrak eskatzen du behar hainbat eskudiru eta balore negoziagarri edukitzea, baita hartutako konpromiso guztiei aurre egiteko finantza-baliabideak izatea ere (13. eta 16. oharra).

Honela kudeatzen da likidezia-arriskua CAF Taldean:

- Kontratu bakoitzaren autofinanziazio mailarik ahalik eta handiena lortzen saiatzea.
- Epe laburrera, likidezia-posizio sendoari eustea.
- Erabili gabeko finantziario-ahalmenari eustea.

d) Eskudiru-fluxuen eta arrazoizko balioaren interes-tasaren arriskua

Taldearen interes-tasaren arriskua kanpoko baliaibideak erabiltzetik sortzen da.

Ohiko politika du Taldeak egoera jakin batzuetan soilik zorpetzea beste batzuekin, epe laburreko kanpoko baliaibideen bitartez (merkatuko indize aldakorretan oinarrituta; normalean, Euribor). Horri esker, nabarmen murrizten da interes-tasa horren arriskua. 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n, finantza-zor ia osoa Mexikoko emakidari zegokion (7. eta 16. oharra). Project Finance modalitatearen pean egituratutako zorra da, ez die Taldeko gainerako sozietateei eragiten, eta tasa finkoa dute, beraz, interes-tasen arteko aldaketekiko Taldeak eragin oso txikia izango du.

e) Proiektu-aurrekontuen desbideraketek dakartzaten arriskuak

Dagozkion eskaintzak prestatzeko oinarritzat erabilitako proiektuen aurrekontuetan gertatu izan diren desbiderapenak informazio-sistema zehatza erabilia estali ohi dira. Horretarako, kostuaren kontusail bakoitza hartzen da oinarritzat eta kontusail horien aurrekontua proiektu bakoitzeko kostuen egoeraren errealitatearekin alderatzen da. Horri esker, proiektuek irauten duten bitartean, datu horien etengabeko jarraipena egiten da helburu horietarako sortutako barne-prozeduraren bidez. Bertan, proiektu bakoitzean sartuta dauden sail guztiek parte hartzen dute.

f) Produkzioak eraginda zerbitzuak berandu edo akatsekin emateagatik beste batzuei kalteak eragitetik eratorritako arriskuak

CAFeko lantegi guztiek merkatuan dagoen teknologiarik berriena dute eta, ISO 9001 eta 9002 Arauei jarraiki, produkzioa optimizatzeko teknikarik aurreratuenak erabiltzen dituzte.

Bestalde, aseguruak kontratatzeke politika oso zuhurra erabiltzen du CAFek; horri esker, arrisku horietako batzuek eragin ditzaketen ondorio ekonomikoetatik eta Taldeak jasan ditzakeen ondorioetatik behar bezala babestuta dago.

6. SEGMENTAZIOA

a) Segmentazio-irizpideak

Hona hemen urteko kontu bateratuetan CAF Taldeak informazio segmentatua aurkezteko irizpideak:

- Segmentazioa negozio-unitateen arabera egin da, “Trenen arloa”, “Errodajea eta osagaiak” eta “Emakiden Jarduera” bereizita.
- Gainera, Taldearen irizpide geografikoen araberako informazioa ere bildu dugu.

b) Segmentukako informazioaren oinarriak eta metodologia

Segmentuari zuzenean dagozkionak dira haren ohiko sarrera eta gastuak; hortaz, ez da sartu inbertsio-salmenten, berreskuratze-eragiketen edo zor-amaierako eragiketen interes, dibidendu, irabazi eta galerarik. Segmentuen aktiboek eta pasiboek lotura zuzena dute haren ustiapenarekin edo jarduera horretara zuzendutako sozietateetako partaidetzarekin.

Segmentazio nagusirako oinarriak Nazioarteko Araudiaren (8. FINA “Segmentu operatiboak”) arabera aztertu ondoren, segmentu nagusizat sailkatu ditu CAF Taldeak izan dituen hiru negozio-unitateak, haien antolakuntza-egitura, kudeaketa eta administrazio- eta zuzendaritza-organoetarako barne-informazioko sistema direla eta, eragiketarik negozio-unitate batean edo bestean (produktuen eta lotura duten zerbitzuen multzoa) egitearen araberakoak baituzte arriskuak eta emaitzak. Azken batean, segmentazioaren bidez identifikatzen dira CAF Taldeko zenbait osagai identifikagarri, beste ingurune batzuetan diharduten eragiketa-osagaiek ez bezalako arrisku eta errendimenduak dituztenak hain justu ere.

Hurrengo segmentu nagusien sorreran eragina izan du horrek, urteetako eskarmentuak adierazten digunez. CAFen iritziz, segmentu horiek betetzen dituzte barneko homogeneousuneko arauak baldintza ekonomiko edo politikoen kidetasunari dagokionez, baita aplikagarri diren erregulazioek, truke-tasak edo jardueren hurbiltasunak eragiten dituzten arriskuei dagokienez ere.

- Trenak
- Errodajea eta osagaiak
- Emakida-jarduera

Jarraian, informazio hori negozio-segmentuen arabera azaltzen da:

2009 (Mila euro)

| Nezozio-unitateen araberako segmentazioa | Trenak | Errodajea eta osagaiak | Emakida-jarduera | Orokorra | Segmentuen artekoak | Guztira |
|---|------------------|------------------------|------------------|----------------|---------------------|------------------|
| NEGOZIO-ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA: | | | | | | |
| Kanpoko salmentak | 1.172.326 | 68.153 | 17.562 | - | - | 1.258.041 |
| Segmentuen arteko salmentak | 21.829 | 32.526 | - | - | (54.355) | - |
| Salmentak, guztira | 1.194.155 | 100.679 | 17.562 | - | (54.355) | 1.258.041 |
| EMAITZAK: | | | | | | |
| Ustiapenaren emaitza | 134.849 | 15.555 | (13.427) | (1.205) | - | 135.772 |
| Finantza arloko emaitza (*) | - | - | (23.552) | 8.437 | - | (15.115) |
| Enpresa elkartuen partaidetza irabazi garbietan | (524) | - | - | - | - | (524) |
| Irabazia, zergen aurretik | 134.325 | 15.555 | (36.979) | 7.232 | - | 120.133 |
| Irabazien gaineko zerga (*) | - | - | 7.686 | (8.113) | - | (427) |
| Ekitaldiko irabazi garbia | 134.325 | 15.555 | (29.293) | (881) | - | 119.706 |
| Kanpoko bazkideei egotzitako emaitza | 243 | - | 4.394 | - | - | 4.637 |
| Sozietate nagusiari egotzitako emaitza | 134.568 | 15.555 | (24.899) | (881) | - | 124.343 |
| Ekitaldiko amortizazioak (7. eta 8. oharrak) | 10.980 | 6.276 | 9.350 | 268 | - | 26.874 |
| AKTIBOAK | 1.392.363 | 114.032 | 184.059 | 678.304 | (19.637) | 2.349.121 |
| PASIBOAK | 1.547.784 | 22.490 | 217.520 | 108.519 | (19.637) | 1.876.676 |
| Ibilgetu ukiezinako eta materialeko gehikuntzak (7. eta 8. oharrak) | 85.675 | 15.403 | - | - | - | 101.078 |
| KUTXAKO FLUXUETAN ERAGINIK EZ DUTEN BESTE: | | | | | | |
| Aktiiboak hondatzea - sarrera (Gastua) | 3.728 | - | - | - | - | 3.728 |

(*) Segmentu-jardueretarako ("Trenen arloa" eta "Errodajea eta osagaiak") finantza arloko emaitza eta sozietateen gaineko zergaren gastua erabat barneratuta daude "Orokorra" izeneko zutabearen. Izan ere, legezko hainbat entitatek bat egiten dute kasu horretan eta ez dago segmentuen araberako esleipena egiteko arrazoizko irizpiderik.

2008 (Mila euro)

| Negozio-unitateen araberako segmentazioa | Trenak | Errodajea eta osagaiak | Emakida-jarduera | Orokorra | Segmentuen artekoak | Guztira |
|---|------------------|------------------------|------------------|----------------|---------------------|------------------|
| NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA: | | | | | | |
| Kanpoko salmentak | 924.172 | 71.971 | 8.808 | - | - | 1.004.951 |
| Segmentuen arteko salmentak | 82.601 | 21.146 | - | - | (103.747) | - |
| Salmentak, guztira | 1.006.773 | 93.117 | 8.808 | - | (103.747) | 1.004.951 |
| EMAITZAK: | | | | | | |
| Ustiapenaren emaitza | 80.213 | 15.376 | 9.330 | (2.565) | - | 102.354 |
| Finantza arloko emaitza | - | - | (11.648) | 16.000 | - | 4.352 |
| Enpresa elkartuen partaidetza irabazi garbietan | (294) | - | - | - | - | (294) |
| Irabaziak, zergen aurretik | 79.919 | 15.376 | (2.318) | 13.435 | - | 106.412 |
| Irabazien gaineko zerga (*) | - | - | 3.677 | (3.381) | - | 296 |
| Ekitaldiko irabazi garbia | 79.919 | 15.376 | 1.359 | 10.054 | - | 106.708 |
| Kanpoko bazkideei egotzitako emaitza | (672) | - | (295) | - | - | (967) |
| Sozietate nagusiari egotzitako emaitza | 79.247 | 15.376 | 1.064 | 10.054 | - | 105.741 |
| Ekitaldiko amortizazioak (7. eta 8. oharrak) | 11.364 | 4.450 | 4.619 | 241 | - | 20.674 |
| AKTIBOAK | 906.792 | 93.747 | 202.282 | 746.060 | (35.275) | 1.913.606 |
| PASIBOAK | 1.209.355 | 27.631 | 213.170 | 121.395 | (35.275) | 1.536.276 |
| Ibilgetu ukiezinako eta materialeko gehikuntzak (7. eta 8. oharrak) | 48.948 | 15.471 | 21.768 | - | - | 86.187 |
| KUTXAKO FLUXUETAN ERAGINIK EZ DUTEN BESTE: | | | | | | |
| Aktiboak hondatzea - sarrera (Gastua) | (3.728) | - | - | - | - | (3.728) |

(*) Segmentu-jardueretarako ("Trenen arloa" eta "Errodajea eta osagaiak") emaitza eta sozietateen gaineko zergaren gastua erabat barneratuta daude "Orokorra" izeneko zutabearen. Izan ere, legezko hainbat entitatek bat egiten dute kasu horretan eta ez dago segmentuen araberako esleipena egiteko arrazoizko irizpiderik.

Erabilera orokorreko aktiboak eta pasiboak zein haiek sortutako emaitzak (horien artean, aipatu beharrekoak dira eskudiruaren kontusailak eta beste finantza-aktibo korrante batzuk) ez dira gainerako segmentuetara esleitu. Era berean, ez dira esleitu berdinkatze-sailak ere, negozio-unitateetako finantza-egoerak (kudeaketa-irizpideekin eginak) CAF Taldeko finantza-egoera bateratuekin elkartzearen emaitzek sortzen dituztenak alegia.

2009ko ekitaldiko trenen segmentuko kanpoko salmenten zifran 1.094.401 mila euroko zenbatekoa duten ondasunen salmentak daude bilduta (2008ko ekitaldian, 850.272 mila euro izan ziren). Gainerako zatia zerbitzuen prestazioari dagokio.

Hauxe da informazioa irizpide geografikoen arabera banatuta:

a) Salmentak, eremu geografikoen arabera, 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n (milaka euro):

| Eremu geografikoa | 2009 | % | 2008 | % |
|-----------------------------------|------------------|---------------|------------------|---------------|
| Espainiako merkatuan | 723.685 | 57,52 | 593.724 | 59,08 |
| Espainiatik kanpoko merkatuan (*) | 534.356 | 42,48 | 411.227 | 40,92 |
| Guztira | 1.258.041 | 100,00 | 1.004.951 | 100,00 |

(*) Sozietate nagusitik (Espainia) egiten dira Espainiatik kanpoko merkatuko salmenta gehienak.

b) Ibilgetu materialean egindako inbertsio garbiak, eremu geografikoen arabera, 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n (milaka eurotan):

| Eremu geografikoa | 2009 | 2008 |
|--------------------------|----------------|----------------|
| Espainia mailakoa | 215.470 | 198.519 |
| Espainiatik kanpokoak | 59.163 | 6.111 |
| Guztira | 274.633 | 204.630 |

Bestalde, aurreko taulan adierazitakoaz gain, Taldeak inbertsioak egin zituen 2009ko ekitaldian eta aurrekoetan Mexikoko emakidaren zerbitzu-prestazioa egin ahal izateko beharrezko azpiegituretan. "Beste aktibo ukiezin batzuk - Emakida administratiboak" epigrafean daude erregistratuta aktibo horiek, aplikagarri den araudiaren arabera (7. oharra). Mexikon egin dira inbertsio horiek guztiak.

7. BESTE AKTIBO UKIEZIN BATZUK

Hona hemen 2009ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian "Beste aktibo ukiezin batzuk" epigrafeko kontuetan eta dagozkien metatutako amortizazioetan izandako mugimendua:

| | Mila euro | | | | |
|---|-----------------------------|---------------------|----------------------------|------------------------|-----------------|
| | Emakida administratiboak | Garapen- gastuak | Aplikazio informatikoak | Merkataritza Funtsa | Guztira |
| 2007.12.31ko saldoa | | | | | |
| Kostua | 194.884 | 18.165 | 10.047 | 48 | 223.144 |
| Amortizazio metatua | - | (15.992) | (9.596) | - | (25.588) |
| Garbia | 194.884 | 2.173 | 451 | 48 | 197.556 |
| Kostua | | | | | |
| Eremura sartutakoak (2.f oharra) | - | - | 80 | 15 | 95 |
| Sarrerak | 21.768 | 5.994 | 686 | 5.384 | 33.832 |
| Izakinetara egindako intsuldaketak | - | - | (103) | - | (103) |
| Irteerak, bajak edo murriztapenak | - | - | (445) | - | (445) |
| Bihurketa-diferentziak | (52.466) | - | (5) | - | (52.471) |
| Kostu-saldoa, 2008.12.31n | 164.186 | 24.159 | 10.260 | 5.447 | 204.052 |
| Eremura sartutakoak (2.f oharra) | - | 273 | 213 | - | 486 |
| Sarrerak | (13.560) | 12.371 | 1.314 | 445 | 570 |
| Izakinetara egindako intsuldaketak | - | (2.053) | (236) | - | (2.289) |
| Irteerak, bajak edo murriztapenak | - | - | - | - | - |
| Bihurketa-diferentziak | 6.505 | - | 6 | - | 6.511 |
| Kostu-saldoa, 2009.12.31n | 157.131 | 34.750 | 11.557 | 5.892 | 209.330 |
| Amortizazio metatua | | | | | |
| Bihurketa-diferentziak | 1.667 | - | 23 | - | 1.690 |
| Eremura sartutakoak (2.f oharra) | - | - | (55) | - | (55) |
| Sarrerak edo zuzkidurak | (5.876) | (1.372) | (125) | - | (7.373) |
| Izakinetara egindako intsuldaketak | - | - | 1 | - | 1 |
| Irteerak, bajak edo murriztapenak | - | - | 445 | - | 445 |
| Amortizazio metatuaren saldoa, 2008.12.31n | (4.209) | (17.364) | (9.307) | - | (30.880) |
| Bihurketa-diferentziak | (219) | - | (3) | - | (222) |
| Eremura sartutakoak (2.f oharra) | - | (113) | - | - | (113) |
| Sarrerak edo zuzkidurak | (6.733) | (1.304) | (278) | - | (8.315) |
| Intsuldaketak | - | - | - | - | - |
| Irteerak, bajak edo murriztapenak | - | - | - | - | - |
| Amortizazio metatuaren saldoa, 2009.12.31n | (11.161) | (18.781) | (9.588) | - | (39.530) |
| Garbia, 2008.12.31n | 159.977 | 6.795 | 953 | 5.447 | 173.172 |
| Garbia, 2009.12.31n | 145.970 | 15.969 | 1.969 | 5.892 | 169.800 |

3.a oharrean azaldutakoaren arabera, 2.289 mila euro intsuldatu ditu Taldeak, 2009an, garatutako teknologia biltzen duten eta eskuratutako hainbat kontraturen proiektuak direla eta aktibatutako garapeneko gastu garbietatik (11. oharra).

Hona hemen, sozietateka, Merkataritza Funtsaren xehetasunak (mila euro):

| | Mila euro | |
|-----------------------------|-------------------|-------------------|
| | 2009.12.31 | 2008.12.31 |
| CFD Bagneres, S.A. | 5.296 | 5.296 |
| Lets Ingenieros, S.L. | 48 | 48 |
| Garraiotech, S.L. | 445 | - |
| Predictove Ingenieros, S.L. | 88 | 88 |
| Beste batzuk | 15 | 15 |
| Guztira | 5.892 | 5.447 |

Administrazioko Emakida gisa erregistratutako zenbatekoa Mexikoko Emakida ustiatzeko beharrezkoak diren aktiboetan egindako kostuari dagokio; horren zenbateko garbia 223.225 mila eurokoa da (225.635 mila euro 2008an), bihurtzeko diferentziak eta jasotako diru-laguntzak kontuan hartuta. Horiek, 2009ko abenduaren 31n, 77.256 mila eurokoak ziren (65.660 mila eurokoak 2008ko abenduaren 31n). 2009ko ekitaldian jasotako diru-laguntzak 12.565 mila eurokoak dira (18.064 mila eurokoak 2008ko ekitaldian). 2008ko bigarren hiruhilekoan ekin zion Taldeak emakida hori ustiatzeari. Ustiapena hasi arte, 2008ko ekitaldian egindako finantza-kostuak emakidaren balio handiago gisa aktibatu ziren eta horien zenbatekoa 8.342 mila eurokoa izan zen.

2003ko abenduaren 4an eta 2005eko ekainaren 24an, Mexikoko Komunikazio eta Garraio Idazkaritzak (SCT) berariazko lankidetzak hitzarmenak sinatu zituen Mexikoko Estatuko gobernuarekin, Mexikoko Haraneko ingurune metropolitarrako lur azpiko trenbidea eraikitzeko.

2005eko uztailaren 12an, Cuautitlán eta Buenavista artean bidaiariak garraiatzeko trenbideko zerbitzu publikoaren emakida esleitzeko deialdia eta oinarri orokorrak argitaratu zituen Federazioko Egunkari Ofizialak. Erregularra eta hiri ingurukoa izango zen zerbitzua. Mexikoko estatuan eta Mexiko Hirian (DF) dago aipatutako ibilbidea. Federazioaren hainbat ondasun publiko higiezin erabiltzea eta aprobetxatzea ere bazen deialdiaren helburua (besteak, beste, beharrezko zerbitzu osagarriak emateko). Gerora, 2005eko uztailaren 20ko eta 2005eko abuztuaren 23ko aldaketak plazaratu ziren, eta partaideei jakinarazi.

2005eko abuztuaren 25ean, SCTk emakida-titulua eman zion mendeko Ferrocarriles Suburbanos, S.A. de CV sozietateari.

Hauek izan ziren emakida haren baldintza orokorrak:

- Emakida indarrean egongo da hogeita hamar urtez Emakida Titulua izenpetzen den datatik hasita. Epe hori igarotzean, emakidadun enpresaren aktiboak emaileari itzuliko zaizkio. Garraio Zerbitzuaren prestazioaren hasieran atzerapena edo etena eragiten duen eta emakidadunari egotz ezin dakioken gertaeraren bat gertatzen deneko aldiak ez dira zenbatuko emakidaren indarraldia kalkulatzeko. Emakidadunak emakidaren indarraldia luzatzeko eska dezake.
- Emakidadunak eskubidea du nahitaezko iragaite-eskubideak izateko ipar-mendebaldeko trenen bidezko komunikazioko bide orokorraren bidez garraio-zerbitzua emateko, Cuautitlán-Buenavista eta Cuautitlán-Huehuetoca tartean.
- Emakidadunak egin behar ditu trenbideetako lan guztiak, baita eraikuntza-, berreraikuntza- eta egokitze-lanak ere, eta lur azpiko trenbidea martxan jartzeko behar diren material, ekipamendu eta trenen azpistema guztien hornidura eta instalazioa egin, bideetako eta hiri barruko obrak izan ezik (SCTri dagozkio horiek) Mexikoko Estatuko eta Barruti Federaleko agintariekin elkarlanean.

Taldeak emakidadunarekin sinatu zuen hitzarmenaren arabera, 26 milioi euroko kalte-ordaina jasoko luke Taldearen mende ez dauden arrazoiek eragindako atzerapenen truke. Zenbateko hori galera eta irabazien kontu bateratuko "Beste zenbait ustiapen-gastu" epigrafean erregistratu zituzten, 2008ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuko "Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk - Beste zordun batzuk" epigrafearen kontura. Administrazioak aurrez ikusitakoaren arabera, zenbateko hori 2011ko ekitaldian egingo da. Hori dela eta, haren kostu amortizatuaren arabera baloratu eta 3.591 mila euroko gastua erregistratu da honi atxikitako 2009ko galera eta irabazien kontu bateratuan.

2009ko abuztuaren 5ean, Taldeak, Emakida Tituluan ezarritakoa betez, SCTri garaiz eta forman jakinarazi zion ezinbesteko gertaera jazo zela. Gertaera hori Emakida Tituluaren baldintzen arabera zehaztuta dago eta, batez ere, hiri arteko trenetan erabiltzaileen artean gertatu zen erabilera txikiagoak sortu zuen Garraio Plana (Emakida Tituluan aurrez ikusita dago) ez zutelako erabat ezarri horretarako eskuduntza duten agintariek. Horrek, ondorioz, Taldeari sarrera txikiagoak eragin zizkion. Urteko kontu bateratu hauek egin diren garaian, Taldeak komunikazioak ditu oraindik ere Komunikazioetako eta Garraioetako Idazkaritzarekin eta, erreklamazio horrekin lotuta, ez da formalizatu edo gauzatu inolako kobrantza-eskubiderik SCTri dagokionez.

Sozietate nagusiko administrazioak, hirugarren batzuei agindutako azterketak oinarri dituztela, uste dute emakidaren etorkizuneko jarduerak aukera emango duela han erabilitako aktiboen kostu garbia berreskuratzeko. Haren balio berreskuragarria estimatu da erabileran duen balioaren arabera. Horretarako, bidaiarien erabilera handitu egingo dela dioen hipotesia hartu da oinarritzat egonkortze mailara, eskudiru-fluxuak sortzera, horiek hazteko tasetara eta merkatuko beherapen tasara (WACC) arte.

Emakida-tituluaren inguruko baldintza zehatzak lizitazioaren oinarri orokorretan daude jasota.

8. IBILGETU MATERIALA

Hona hemen 2009ko abenduaren 31n eta 2008ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan "Ibilgetu materiala" epigrafeko kontuetan eta dagozkien metatutako amortizazioetan izandako mugimendua:

| | Mila euro | | | | | |
|---|-------------------------------|--|--|------------------------|--|------------------|
| | Lursailak eta eraikinak | Instalazio teknikoak eta makinak | Beste zenbait instalazio, tresna eta altzari batzuk | Gainerako ibilgetua | Aurrerakinak eta martxan direnak | Guztira |
| 2007.12.31ko saldoa | | | | | | |
| Kostua | 157.775 | 163.043 | 9.620 | 16.961 | 1.331 | 348.730 |
| Amortizazio metatua | (53.155) | (104.706) | (5.936) | (13.010) | - | (176.807) |
| Garbia | 104.620 | 58.337 | 3.684 | 3.951 | 1.331 | 171.923 |
| Merkatu-kostua edo -balioa | | | | | | |
| Eremura sartutakoak (2.f oharra) | - | 2.481 | 49 | 13 | - | 2.543 |
| Sarrerak | 16.006 | 24.077 | 1.628 | 3.258 | 7.386 | 52.355 |
| Intsuldaketak | 5.549 | 646 | 71 | 2 | (6.011) | 257 |
| Irteerak, bajak edo murriztapenak | - | (3.601) | (25) | (103) | - | (3.729) |
| Bihurketa-diferentziak | (745) | 77 | (110) | (97) | (6) | (881) |
| 2008.12.31ko saldoa | 178.585 | 186.723 | 11.233 | 20.034 | 2.700 | 399.275 |
| Eremura sartutakoak (2.f oharra) | - | - | 1 | 10 | - | 11 |
| Sarrerak | 7.789 | 29.278 | 7.190 | 3.443 | 39.248 | 86.948 |
| Intsuldaketak | 24.716 | 3.079 | (544) | 45 | (27.494) | (198) |
| Irteerak, bajak edo murriztapenak | (344) | (3.797) | (32) | (352) | (2.793) | (7.318) |
| Bihurketa-diferentziak | 1.671 | 595 | 371 | 25 | 484 | 3.146 |
| 2009.12.31ko saldoa | 212.417 | 215.878 | 18.219 | 23.205 | 12.145 | 481.864 |
| Amortizazio metatua | | | | | | |
| Eremura sartutakoak | - | (863) | (11) | (13) | - | (887) |
| Sarrerak edo zuzkidurak | (3.883) | (10.370) | (815) | (1.349) | - | (16.417) |
| Intsuldaketak | (80) | (77) | (22) | (26) | - | (205) |
| Irteerak, bajak edo murriztapenak | - | 3.291 | 43 | 80 | - | 3.414 |
| Bihurketa-diferentziak | (40) | (57) | 21 | 61 | - | (15) |
| Amortizazio metatuaren saldoa, 2008.12.31n | (57.158) | (112.782) | (6.720) | (14.257) | - | (190.917) |
| Eremura sartutakoak (2.f oharra) | - | - | - | (2) | - | (2) |
| Sarrerak edo zuzkidurak | (3.547) | (13.624) | (1.240) | (1.663) | - | (20.074) |
| Intsuldaketak | - | 28 | 28 | (24) | - | 32 |
| Irteerak, bajak edo murriztapenak | 6 | 3.320 | 29 | 351 | - | 3.706 |
| Bihurketa-diferentziak | 32 | 43 | (35) | (16) | - | 24 |
| Amortizazio metatuaren saldoa, 2009.12.31n | (60.667) | (123.015) | (7.938) | (15.611) | - | (207.231) |
| Garbia, 2008.12.31n (*) | 121.427 | 73.941 | 4.513 | 5.777 | 2.700 | 208.358 |
| Garbia, 2009.12.31n | 151.750 | 92.863 | 10.281 | 7.594 | 12.145 | 274.633 |

(*) Hondatzeagatik galerak kontuan hartu aurretik.

2009ko ekitaldian, Taldeak produkzio-inbertsioak egin ditu Brasileko lantegia funtzionamenduan jarri ahal izateko. Inbertsio horien zenbatekoa 46.552 mila eurokoa izan da eta 2009ko ekitaldiaren itxieran ia erabat amaituta geratu zen. Gainera, 2009ko eta 2008ko ekitaldietan, Taldeak inbertsioak egin ditu produkzio-gaitasuna handitu eta hobetu ahal izateko. Inbertsio horiek, batez ere, Beasaingo lantegiko unitate hauetan egin dira: erroldajeak, bogieak eta akabera-dibisioa.

2009ko ekitaldian eta aurrekoetan erregistratutako urteko amortizazio-zuzkiduretan 11/1996 Foru Arauaren eta 13/1991 Foru Dekretuaren arabera egindako ibilgetu-eguneratzeen eragina 145 mila eta 4.523 mila eurokoa da, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren (2008ko ekitaldian, 145 mila eta 4.378 mila euro).

2009ko eta 2008ko abenduaren 31n, Taldeak 10.193 mila eta 17.966 mila euro inguruko inbertsio-erosketen konpromiso irmoak zituen.

Sozietate bateratuek ibilgetuko elementuak behar bezala estaltzeko aseguru-polizak kontratatuzko irizpideari jarraitzen diote. 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n, aseguru-polizek egun horretan ibilgetuak zuen kontabilitate-balio garbia estaltzen zuten.

Erabat amortizatuta dauden eta oraindik erabiltzen diren aktiboen kostu gordina 136.556 eta 129.771 mila euro ingurukoa zen 2008ko eta 2007ko abenduaren 31n.

Aktiboaren kontabilitate-baliotik kendu du Taldeak hura erosteko jasotako diru-laguntzen zenbatekoa. Jasotako diru-laguntzetatik ordaintzeko dagoen zenbateko garbia 6.035 mila eurokoa zen 2009ko abenduaren 31n (6.194 mila eurokoa 2008ko abenduaren 31n). 2009ko emaitzetara eramandako zenbatekoa 1.322 mila eurokoa da (2008an, 1.215 mila eurokoa) eta honi atxikitako galera eta irabazien kontu bateratuko "Ibilgetuaren amortizazioa" epigrafean dago erregistratuta.

Hondatzeak eragindako galerak

Administratzaileen ustez, 2009ko abenduaren 31ko datarekin ez dago hondatzearen zantzurik Taldeak atzerrian dituen aktiboetan. 2008. urtean, 3.728 mila euroko zenbatekoa zuen saneamendua erregistratu zuten, balio berreskuragarrian zenbat aktiboren balioa zehaztu ahal izateko. Hornidura hori itzuli egin da 2009ko ekitaldian, hura aurretik sorrarazi zuten faktoreak desagertu egin baitira (3.c. oharra).

9. PARTAIDETZA-SISTEMAREN BIDEZ KONTABILIZATUTAKO INBERTSIOAK ETA FINANTZA-AKTIBO EZ-KORRONTEAK

Hona hemen 2009ko abenduaren 31n eta 2008ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietan "Partaidetza-sistema aplikatuta kontabilizatutako inbertsioak" eta "Finantza-aktibo ez-korronteak" epigrafeko kontuetan izandako mugimendua:

| Mila euro | | | | | | | | | |
|---------------------------------------|---------------------------------|----------------|--------------|------------------------------|----------|---|---|-----------------|---------------|
| | Inbertsioak enpresa elkartuetan | Ondare-tresnak | | Beste finantza-aktibo batzuk | | Finantza-tresna eratorriak (17. oharra) | Kobratu beharreko maileguak eta kontuak | | Guztira |
| | | Kostua | Kostua | Homidura | Kostua | | Homidura | Kostua | |
| 2007.12.31ko saldoa | 2.064 | 17.952 | (721) | 1.584 | - | 368 | 14.160 | (7.472) | 27.935 |
| Eremuan izandako | | | | | | | | | |
| aldaketak (2.f oharra) (*) | 12.235 | 20 | - | 8 | - | - | 68 | - | 12.331 |
| Sarrerak edo zuzkidurak (*) | (294) | 3.504 | - | 134 | - | 9.196 | 51.609 | (220) | 63.929 |
| Irteerak, bajak edo murriztapenak (*) | (537) | - | - | (177) | - | - | (524) | - | (1.238) |
| Intsuldaaketak eta kitapenak | - | - | 721 | - | - | (368) | (5.372) | (23.689) | (28.708) |
| 2008.12.31ko saldoa | 13.468 | 21.476 | - | 1.549 | - | 9.196 | 59.941 | (31.381) | 74.249 |
| Eremuan izandako | | | | | | | | | |
| aldaketak (2.f oharra) (*) | 2.056 | - | - | 8 | - | - | - | - | 2.064 |
| Sarrerak edo zuzkidurak (*) | (2.467) | 1.621 | - | 189 | - | 1.239 | 7.672 | - | 8.254 |
| Irteerak, bajak edo murriztapenak (*) | (866) | - | - | (983) | - | - | (4.920) | - | (6.769) |
| Intsuldaaketak eta kitapenak | - | (456) | - | 456 | - | (9.196) | (7.014) | 2.590 | (13.620) |
| 2009.12.31ko saldoa | 12.191 | 22.641 | - | 1.219 | - | 1.239 | 55.679 | (28.791) | 64.178 |

(*) Kanbio-tasa bihurtzeagatiko eragina barne hartzen du.

Hona hemen Taldeak 2009ko abenduaren 31n eta 2008ko abenduaren 31n zituen finantza-aktibo ez-korronteen banakapena, bakoitzaren izaeraren eta kategoriaren arabera sailkatuta hobeto baloratzeko:

| Mila euro | | | | | |
|-------------------------------------|-----------------------------------|---|--|-------------------------|---------------|
| 2009.12.31 | | | | | |
| Finantza-aktiboak: Izaera/Kategoria | Saltzeko dauden finantza-aktiboak | Kobratu beharreko maileguak eta kontusailak | Mugaegunera arte gordetako inbertsioak | Estalduraren eratorriak | Guztira |
| Ondare-tresnak | 22.641 | - | - | - | 22.641 |
| Finantza-eratorriak | - | - | - | 1.239 | 1.239 |
| Beste finantza-aktibo batzuk | 251 | 26.888 | 968 | - | 28.107 |
| Epe luzea / Ez-korronteak | 22.892 | 26.888 | 968 | 1.239 | 51.987 |

Mila euro

| Finantza-aktiboak: Izaera/Kategoria | 2008.12.31 | | | | |
|--|-----------------------------------|---|--|-------------------------|---------------|
| | Saltzeko dauden finantza-aktiboak | Kobratu beharreko maileguak eta kontusailak | Mugaegunera arte gordetako inbertsioak | Estalduraren eratorriak | Guztira |
| Ondare-tresnak | 21.476 | - | - | - | 21.476 |
| Finantza-eratorriak | - | - | - | 9.196 | 9.196 |
| Beste finantza-aktibo batzuk | 152 | 28.561 | 1.396 | - | 30.109 |
| Epe luzea / Ez-korronteak | 21.628 | 28.561 | 1.396 | 9.196 | 60.781 |

Hona hemen "Finantza-aktibo ez-korronteak" epigrafeko kontusailen xehetasunak, epemugaren arabera sailkatuta (mila euro):

2009ko ekitaldia

| | 2011 | 2012 | 2013 | 2014ko ekitaldia eta hurrengoak | Guztira |
|---|--------------|--------------|--------------|---------------------------------|---------------|
| Mugaegunera arte gordetako inbertsioak | - | - | - | 968 | 968 |
| Kobratu beharreko maileguak eta kontusailak | 7.337 | 5.091 | 4.032 | 10.428 | 26.888 |
| Finantza-eratorriak | 767 | 472 | - | - | 1.239 |
| Guztira | 8.104 | 5.563 | 4.032 | 11.396 | 29.095 |

2008ko ekitaldia

| | 2010 | 2011 | 2012 | 2013ko ekitaldia eta hurrengoak | Guztira |
|---|---------------|--------------|--------------|---------------------------------|---------------|
| Mugaegunera arte gordetako inbertsioak | - | 346 | 346 | 704 | 1.396 |
| Kobratu beharreko maileguak eta kontusailak | 4.251 | 4.024 | 5.725 | 14.561 | 28.561 |
| Finantza-eratorriak | 7.541 | 1.655 | - | - | 9.196 |
| Guztira | 11.792 | 6.025 | 6.071 | 15.265 | 39.153 |

a) Enpresa elkartuetako partaidetzak

Hona hemen enpresa elkartuetan dugun partaidetzari buruzko informazio aipagarria, partaidetza-metodoaren bidez aztertua (mila euro):

| Izena | Sozietatearen Helbidea | Jarduera eta helburu soziala | Kapitalaren zatia | | Inbertsioak enpresa elkartuetan | Oinarrizko finantza-datuak (1) | | | Negozio -zifra | Aktiboa | Ikuskaria |
|-----------------------------------|------------------------|---|-------------------|------------|---------------------------------|--------------------------------|---------------------------------|-----------------|----------------|---------|----------------|
| | | | Zuzenekoa | Zeharkakoa | | Kapitala | Erreserbak eta emaitza metatuak | 2009ko emaitzak | | | |
| Compañía de Vagones del Sur, S.A. | Jaén (Espainia) | Karga-bagoien fabrikazioa. | - | % 35 (2) | 1.181 | 3.703 | (85) | (244) | - | 19.987 | PwC |
| Asirys Vision Technologies, S.A. | Gipuzkoa (Espainia) | Fabrikazio-sistema automatikoen ikerketa eta fabrikazioa. | - | % 26 (3) | 43 | 154 | 11 | (66) | 21 | 15 | S.M. Auditores |
| Plan Metro, S.A. | Gipuzkoa (Espainia) | Tren-ekipoen alokatzailea. | - | % 40 (4) | 8.911 | 60 | 28.077 | (1.003) | - | 372.563 | Deloitte |
| Consortio Traza, S.A. | Zaragoza (Espainia) | Akzioak edukitzea | % 25 | - | 2.056 | 65 | 8.158 | - | - | 8.223 | PwC |

(1) Baterakuntzako doikuntzak eta homogeneizatzak egin ondoren (mila euro).

(2) CAF Santana, S.A.ren bidez (hor ere % 67ko partaidetza dugu). Sozietateak % 100eko partaidetza du Ditecsa Jaén, S.A. enpresan.

(3) CAF I+D, S.L.ren bidez

(4) Inversiones en Concesiones Ferroviarias, S.A.ren bidez.

| | Mila euro | |
|--|---------------|---------------|
| | 2009 | 2008 |
| Hasierako saldoa | 13.468 | 2.064 |
| Sozietateen irabaziak eta marjinen doiketa | (2.467) | (294) |
| Irteerak, bajak edo murriztapenak | (866) | (537) |
| Eremu-aldaketa | 2.056 | 12.235 |
| Amaierako saldoa | 12.191 | 13.468 |

2009ko ekitaldian, Taldeak Sociedad Consortio Traza, S.A. izeneko sozietatea eratu du beste bazkide batzuekin batera. Sozietate horrek, era berean, Sociedad de Economía Mixta los Tranvías de Zaragoza, S.A. izeneko sozietatea eratu du 10.000 mila euroko kapital sozialarekin; hango partaidetza % 80koa da. Horrez gain, Transitia SPE, S.L. sozietateko kapital sozialaren % 33 saldu du 834 mila euroren truke eta horrek 22 mila euroko minusbalioa sortu du.

b) Balore-zorro ez-korrontea

| Izena | Partaidetzaren % | Inbertsioaren kostua (Mila eurotan) | |
|---|---------------------|--|---------------|
| | | 2009 | 2008 |
| Alquiler de Trenes A.I.E | 5 | 1.202 | 1.202 |
| Metro de Sevilla, Sociedad Concesionaria de la Junta de Andalucía, S.A. | 10,31 | 13.220 | 11.911 |
| Dano-Rail, S.Coop. | 20 | 338 | 338 |
| Ferromovil 3000, S.L. | 10 | 3.181 | 3.181 |
| Alquiler de Metros A.I.E | 5 | 66 | 66 |
| Plan Azul 07, S.L. | 5,2 | 1.381 | 1.381 |
| Arrendadora de Equipamientos Ferroviarios, S.A | 15 | 1.908 | 1.908 |
| Iniciativa FIK, AIE | 6,25 | 1.344 | 1.031 |
| FIK Advanlife, S.L. | 6 | 1 | 1 |
| Beste batzuk | | - | 457 |
| | | 22.641 | 21.476 |

2004ko otsailaren 16an Metro de Sevilla, Sociedad Concesionaria de la Junta de Andalucía, S.A.k eta banku-erakunde batek sinatu zuten finantziatio-kontratu baten ondorioz, 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n akzio horiek pignoratuta zeuden.

2009ko eta 2007ko ekitaldietan, Taldeak, Inversiones en Concesiones Ferroviarias, S.A. mendeko sozietatearen bitartez, Metro de Sevilla, Sociedad Concesionaria de la Junta de Andalucía, S.A. sozietatearen bi kapital-handitzetan (1.309 mila euro eta 2.043 mila eurokoak) parte hartu eta lehendik sozietate horretan zeukan ehunekoa handitu du; % 7,6tik % 10,31ra, hurrenez hurren.

2008ko ekitaldian, Arrendadora de Equipamientos Ferroviarios, S.A.ren kapital soziala handitu genuen (720 mila euro). Enpresa horretako jabetzan zeukaten kapital sozialaren arabera (% 15) hartu zuten parte handitzean haren akziodunek. Taldeak egiten dituen ibilgailuak hirugarren bati eragiketa-alokairuan lagatzea da sozietate horren jardura.

Halaber, 2008ko ekitalditik, Taldeak Iniciativa FIK, AIE eta FIK Advanlife S.L.ren kapital sozialaren % 6,25 eta % 6ko partaidetzak ditu. Sozietate horien xede soziala da zahartze-prozesuak eta minusbaliotasunak tratatzeko osasun-teknologiako alorrean jakintza zientifiko eta teknologikoak ikertu, garatu eta ustiatzea. Partaidetzen balio nominala 3.125 mila euro eta 313 eurokoa da, hurrenez hurren. Partaidetza horiek direla eta, Taldeak egin gabeko ordainketa batzuk ditu; horien zenbatekoa 1.781 mila eurokoa da eta 156 mila euroko seihilekoko epeetan ordaindu behar ditu.

Erosketa-kostuan baloratu ziren inbertsio guztiak, ezin izan baikenuen era fidagarrian neurtu haien merkatu-balioa (3.d oharra).

c) Finantza-tresna eratorriak

Epigrafe honetan sartzten da epe luzeko mugaeguneko truke-tasa duten aseguru-kontratuen merkatuko balioa (17. oharra).

d) Maileguak eta kobratu beharreko kontuak

Kobratu beharreko maileguen eta kontusailen banakapena hau da (mila eurotan):

| | 2009.12.31 | 2008.12.31 |
|---|---------------|---------------|
| Pertsonalari emandako maileguak | 3.625 | 3.631 |
| Partaidetza Planeko konpromisoak | 47.701 | 54.715 |
| Hornidurak | (28.791) | (31.381) |
| Epe luzerako administrazio publikoak (19. oharra) | 3.605 | 842 |
| Beste batzuk | 748 | 753 |
| Guztira | 26.888 | 28.560 |

Sozietate nagusiak, langileekin sinatutako hitzarmenei jarraiki, zenbait mailegu ematen ditu, merkatuko interes-tasaren azpitik, 10-15 urteko epemugarekin. Sozietateak ez ditu eguneratzen zenbateko horiek, horien eragina ez dela handia uste baitu.

2008ko ekitaldian, Sozietate nagusiak Inversiones en Concesiones Ferroviarias, S.A. taldeko sozietateari gutxiengoko hainbat partaidetza saldu zion 5.849 mila euroko zenbatekoaren truke (haien balio nominalaren arabera). Hori dela eta, 651 mila euroko gainbalioa erregistratu zuen galera eta irabazien kontuan "Finantza-tresnak besterentzeagatik hondatzea eta emaitza" epigrafean ordainduta.

Cartera Social

1994an, "Partaidetza Plana" eratu zuten kontratu finkoa duten sozietate nagusiko enplegatuek sozietatearen kapital sozialera sarbidea izan dezaten. Horretarako, Cartera Social, S.A. izenekoak sortu zen. Sozietate hori da CAF, S.A. ren akzioen titularra eta, bertan, Sozietate nagusiko enplegatuek bertako 8 enplegatuek edo enplegatu ohik ordezkatzen dituzte fiduzidarioki. Cartera Social, S.A.k, orduan, Sozietate nagusiari haren esku dauden CAF, S.A. ren akzioen inguruko "eskubideak" saldu dizkio.

Honi atxikita dagoen egoera-balantze bateratuko "Finantza-aktibo ez-korronteak - Kobratu beharreko maileguak eta kontusailak" eta "Beste finantza-aktibo korronte batzuk" epigrafeetan azaltzen da aipatutako "eskubide" horietan egindako inbertsioa. Horiek Cartera Social sozietateari erositakoak dira. Erosketa horren helburu bakarra enplegatuei urte batzuetako epean berriro saltzea da.

Plan hau hiru fasetan eginda. Lehenengoa 1994ko ekitaldian egin zen eta Sozietate nagusiak Cartera Social sozietatearenak ziren CAF, S.A. ren akzioen 632.000 "eskubide" erosi zituen 26,9 milioi euroren truke. Bigarren, 2005eko ekitaldian, 210.150 "eskubide" erosi zituen 14,3 milioi euroren truke. Azkenik, eta 2007ko ekitaldiaren amaieran, hirugarren fasea adostu zuten. Orduan, 171.747 "eskubide" gehiago erosi zituen eta eragiketa horren erosketa-kostua 50,7 milioi eurokoa izan zen CAF, S.A. rentzat.

Sozietate nagusiak lehen aipatutako "eskubide" horiek enplegatuei egindako salmentaren prezioaren eta Planera Cartera Social sozietatea egiten ari den ekarpenen batura baino prezio handiagoan erosi zituenez, hiru erosketa horiek Sozietate nagusiarentzako galerak sortu dituzte. Galera horiek oso-osorik erregistratu ziren aurreko ekitaldietan eta horien zenbatekoa 49,6 milioi eurokoa izan da aplikagarriak diren eguneratzeak kontuan hartu ondoren.

2009ko abenduaren 31n enplegatuei saldu gabe zeuden "eskubide" gehienak 2007an egindako azken hazkuntzakoak dira. Plan guztiak antzeko baldintzetan egin izan dira.

Aurreko guztiaren ondorioz, 2009ko abenduaren 31n, Sozietate nagusiak honi atxikitako 2009ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuko "Finantza-aktibo ez-korronteak - Kobratu beharreko maileguen eta kontusailak" izeneko epigrafean 47.701 mila euroko zenbateko gordina du erregistratuta "eskubide" horientatik (2008ko zenbatekoa 54.715 mila eurokoa zen).

Dena den, erositako "eskubideen" kostua berreskuratzeko balio garbiaren arabera egokitu ahal izateko, Taldeak 32.799 mila euroko hornidura erregistratu zuen 2009ko abenduaren 31n. Horietatik 28.791 mila euro epe luzeko finantza-inbertsioen hondatze gisa erregistratu dira (33.280 mila euro 2008ko abenduaren 31n eta horietatik 31.381 mila euro epe luzerako finantza-inbertsioen hondatze gisa zeuden zehaztuta), eta ginerako finantza-inbertsioak epe laburrekoak izan dira. 2009ko abenduaren 31n, urtebete baino lehenagoko epean saltzea aurrez ikusitako aktibo horren zatia (eta dagokion hornidura) "Beste finantza-aktibo korrante batzuk" izeneko epigrafean erregistratu da data horretako egoera-balantze bateratuan. 2009ko ekitaldian, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren, 3.933 mila eta 482 mila euroko zenbatekoa (2008koak 3.332 mila eta 401 mila eurokoak izan ziren) zuten kostu- eta hornidura-balioa zuten eskubideak saldu ziren .

Cartera Social, S.A. da CAF, S.A.ren akzioen jabe bakarra. Hori dela eta, Sozietate nagusiko akziodun gisa dagozkion eskubide politiko eta ekonomiko guztiak ditu bere gain. Horrenbestez, CAF, S.A.k ez du Cartera Social, S.A.n sor daitezkeen irabazi eta galera ekonomikoen inguruko eskubiderik, betebeharririk edo arriskurik. Sozietate nagusiak, besterik gabe, prezio finkoan saltzeko konpromisoa du. Langileek aldiz, "eskubide" horiek eskuratzeko konpromisoa dute antzeko hileroko 84 epemuga berdinetan banatuta, Planaren faseetako bakoitza abian jarri den egunetik hasita. Aipatutako akzioak Cartera Social, S.A.renak izango dira 'eskubideak' erabili arte, eta eskubideak ezin dira erabili enplegatu bakoitzak CAF, S.A.rekin duen lan-harremana bukatu baino lehen. Epe horretan, Cartera Social, S.A.k akzioen jabetza aipatutako eskubideak erosteko CAF, S.A.k ordaindutako zenbatekoarekin finantzatuko du batez ere.

2009ko abenduaren 31n, Cartera Social, S.A.k CAF, S.A.ren 1.013.897 akzio zituen; hau da, haren kapitalaren % 29,56 (14. oharra).

10 ALDERDI ELKARTUEKIN DITUGUN SALDOAK ETA ERAGIKETAK

Hau da sozietate elkartuekin eta lotura duten beste batzuekin egin diren eta bateratze-prozesuan kendu ez diren transakzioen xehetasuna (2.f. oharra):

| Sozietatea | Mila euro | | | |
|--|---|-----------------------------------|---|-----------------------------------|
| | 2009 | | 2008 | |
| | Emandako zerbitzuak edo fakturatutako salmentak | Jasotako zerbitzuak edo erosketak | Emandako zerbitzuak edo fakturatutako salmentak | Jasotako zerbitzuak edo erosketak |
| Ferromovil 3000, S.A. | - | - | 107.760 | - |
| Metro de Sevilla, Sociedad Concesionaria de la Junta de Andalucía, S.A | - | - | 13.108 | - |
| Plan Metro, S.A. | 161.720 | - | 182.852 | - |
| Consortio Traza, S.A. | 10.031 | - | - | - |
| Compañía de Vagones del Sur ,S.A. | 516 | - | - | - |
| | 172.267 | - | 303.720 | - |

Sozietate elkartuekin egindako eragiketetan sortutako marjinak behar bezala kendu dira bateratze-prozesuan, haien partaidetza-ehunekoaren proportzio berean.

Ekitaldi honetako eragiketen, aurreko urteetan egindakoen eta emandako aurrerakinen ondorioz, Taldeak integrazio osoaren arabera bateratu gabeko partaidetutako sozietateekin zituen saldo nagusiak hauek ziren 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n (2.f. oharra):

| Sozietatea | Mila euro | | | | | |
|---|---------------------------|----------------------------|---------------------------------------|---------------------------|----------------------------|---------------------------------------|
| | 2009.12.31 | | | 2008.12.31 | | |
| | Kobratu beharreko kontuak | Ordaindu beharreko kontuak | Aurrerapen mailako aurrerakin garbiak | Kobratu beharreko kontuak | Ordaindu beharreko kontuak | Aurrerapen mailako aurrerakin garbiak |
| Ferromovil 3000, S.A. | 7.160 | - | - | 3.178 | - | - |
| Metro de Sevilla, Sociedad Concesionaria de la Junta de Andalucía, S.A. | 1.583 | - | - | 13.108 | - | - |
| Plan Metro, S.A. | - | 8 | 295.943 | - | - | 180.955 |
| Sociedad de Economía Mixta los Tranvías de Zaragoza, S.A. | 11.636 | - | 10.031 | - | - | - |
| Iniciativa FIK, AIE | - | 313 | - | - | 158 | - |
| Compañía de Vagones del Sur, S.A. | 1.960 | - | - | - | - | - |
| | 22.339 | 321 | 305.974 | 16.286 | 158 | 180.955 |

2009ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuko "Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk" epigrafearen baitan, Cartera Sozial, S.A.ri kobratu beharreko kontua azaltzen da uko egiteagatik eskubideak direla eta. Horren zenbatekoa 319 mila eurokoa da (6 mila euro 2008ko abenduaren 31n) (14. oharra).

11. ERAIKUNTZAKO KONTRATUAK ETA IZAKINAK

Hauxe da izakinen osaera 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n:

| | Mila euro | |
|--|----------------|---------------|
| | 2009.12.31 | 2008.12.31 |
| Lehengaiak eta beste hornikuntza batzuk, bidean, amaituta eta erdi amaituta dauden produktuak (21. oharra) | 289.904 | 58.461 |
| Hornitzaileei emandako aurrerakinak | 46.720 | 20.414 |
| | 336.624 | 78.875 |

"Lehengaiak eta beste hornikuntza batzuk, bidean, amaituta eta erdi bukatuta dauden produktuak" saileko kontabilitate-balioetik kendu du Taldeak hura erosteko diru-laguntzen zenbatekoa. Jasotako diru-laguntzetatik ordaintzeko dagoen zenbateko garbia 281 mila eta 782 mila eurokoa zen 2009ko abenduaren 31n eta 2008ko abenduaren 31n, hurrenez hurren.

2009ko abenduaren 31n, 737.732 mila euro inguruko lehengai-erosketen konpromiso irmoak zituen Taldeak (26. oharra) (2008ko abenduaren 31n, 791.397 mila euro).

Sozietate bateratuek, izakinak behar bezala estaltzeko, aseguru-polizak kontratatuzko irizpideari jarraitzen diote. 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n, egun horretan izakinek zuten kontabilitate-balio garbia estaltzen zuten aseguru-polizek.

3.e oharrean azalduta dagoen moduan, Taldeak ekitaldian sortutako eta urtebete baino gehiagoko produkzio-zikloa duten izakinekin lotura duten finantza-gastuak kapitalizatzen ditu. Arrazoi hori dela eta kapitalizatutako zenbatekoa,

2009ko eta 2008ko ekitaldietan salmentagatik emaitzetara egindako egozpena kontuan hartu gabe, 474 mila eurokoa eta 1.099 mila eurokoa izan da hurrenez hurren.

Eraikuntzako kontratuak

Sortutako kostuetan eta aitortutako irabazietan metatutako zenbatekoa (aitortutako dagozkion galerak kenduta) eta 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n jasotako aurrerakinen zenbatekoa honako hau da:

| | Mila euro | |
|--|-------------------|-------------------|
| | 2009.12.31 | 2008.12.31 |
| Geroratutako fakturazioa (aktiboa) (3.f. eta 12 oharra) | 385.938 | 260.703 |
| Aurretiazko fakturazioa (pasiboa) (3.f. oharra) | (724.079) | (439.996) |
| Garbia | (338.141) | (179.293) |
| Sortutako kostuak gehi aurrerapen mailaren arabera aitortutako irabaziak eta galerak | 1.818.649 | 1.453.162 |
| Aurrerakinak aintzat hartu gabe egindako fakturazioa | (1.432.711) | (1.192.459) |
| Jasotako aurrerakinak | (724.079) | (439.996) |
| Garbia | (338.141) | (179.293) |

Ordainketetan egindako atxikipenen zenbatekoa 12.425 mila eurokoa da 2009ko abenduaren 31n (2008ko abenduaren 31ko zenbatekoa 8.148 mila eurokoa zen).

12. ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK

Honela zegoen osatuta zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontuen epigrafea 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n:

| | Mila euro | |
|---|-------------------|-------------------|
| | 2009.12.31 | 2008.12.31 |
| Euroguneko monetetako bezeroak | 708.620 | 525.422 |
| Atzerri-monetako bezeroak (3.h oharra) | 106.189 | 118.188 |
| Hondatzeagatiko hornidurak (3.d oharra) | (623) | (1.054) |
| | 814.186 | 642.556 |

Kobratzeko saldo horiek aurrerapen maila onartzearen ondorioz sortu dira batik bat, 3.f oharrean azaldu dugunez. saldo horien zati bat (% 53 inguru; 2008an, % 60) bezeroei fakturatu zitzaizkien. Gainerakoa, berriz, "Fakturatzeko dagoen egindako produkzioa" epigrafeari dagokio. Euroaren eremukoak izan ziren saldo nagusiak. 2009ko abenduaren 31n, fakturatutako saldo nagusiek bezero hauekin zuten lotura: RENFE, Istanbuleko Metroa, Zaragozako Tranbia, CPTM eta Bruselako Société des Transports. Haien zenbatekoak, hurrenez hurren, hauek izan ziren: 98.058 mila, 13.874 mila, 11.636 mila, 11.105 mila eta 7.731 mila euro. Atzerriko monetan kobratu beharreko kontuen artean, batez ere, obra hauengatik kobratu beharreko kontuak aipatu behar dira: Edinburgoko Tranbia, Txileko Santiagoko Metroa eta Turkiako Abiadura Handia. Hauek izan ziren haien zenbatekoak, hurrenez hurren: 10.239 mila, 9.881 mila eta 3.556 mila euro. 2008ko abenduaren 31n, saldo nagusiak RENFE, Metro Sevilla eta Société des Transport De Brussels-ekin zeuzkan Taldeak (200.815 mila, 13.108 mila eta 15.460 mila euro, hurrenez hurren). Atzerriko monetan kobratzeko kontu nagusiei dagokienez, hauek ziren aipagarrienak: Aljer, Delhi eta Txileko Santiagoko metroetakoak, Edinburgoko tranbiakoak eta Aljeriako trenetakoak (10.854 mila, 7.055 mila, 13.791 mila, 13.516 mila eta 21.075 mila euro, hurrenez hurren).

Hona hemen 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n mugaeguneratutako saldoen zenbatekoa:

| | Mila euro | |
|--------------------------------|-------------------|-------------------|
| | 2009.12.31 | 2008.12.31 |
| Mugaeguneratuak > 90 egun | 8.142 | 13.861 |
| Mugaeguneratuak > 180 egun (*) | 22.528 | 22.047 |
| | 30.670 | 35.908 |

(*) Atal horretan, bezeroek egindako fakturen gaineko atxikipeak daude bilduta (11. oharra).

Horiek banaka aztertu ondoren, CAF Taldearen ustez, 2009ko eta 2008ko abenduaren 31ko 623 mila eta 1.054 mila eurok dute, hurrenez hurren, kobratu gabe geratzeko arriskua. Bestalde, egin dira jada hondatzeagatiko zuzkidurak.

13. BESTE FINANTZA-AKTIBO KORRONTE BATZUK

2009ko eta 2008ko abenduaren 31n hau zen epigrafe honen zehaztapena:

| Finantza-aktiboak: Izaera / Kategoria | Mila euro | | | | |
|--|---|---|---|------------------------------------|----------------|
| | 2009.12.31 | | | | |
| | Saltzeko dauden finantza- aktiboak | Kobratu beharreko maileguak eta kontusailak (9.d oharra) | Mugaegunera arte gordetako inbertsioak | Estalduraren eratorriak | Guztira |
| Zor publikoko balore adierazgarriak | - | - | 242.765 | - | 242.765 |
| Finantza-eratorriak | - | - | - | 5.957 | 5.957 |
| Beste finantza-aktibo batzuk | 3 | 4.844 | 215.249 | - | 220.096 |
| Epe laburra / korronteak | 3 | 4.844 | 458.014 | 5.957 | 468.818 |

| Finantza-aktiboak: Izaera / Kategoria | Mila euro | | | | |
|--|---|---|---|------------------------------------|----------------|
| | 2008.12.31 | | | | |
| | Saltzeko dauden finantza- aktiboak | Kobratu beharreko maileguak eta kontusailak (9.d oharra) | Mugaegunera arte gordetako inbertsioak | Estalduraren eratorriak | Guztira |
| Zor publikoko balore adierazgarriak | - | - | 306.090 | - | 306.090 |
| Finantza-eratorriak | - | - | - | 19.051 | 19.051 |
| Beste finantza-aktibo batzuk | 938 | 3.331 | 180.129 | - | 184.398 |
| Epe laburra / korronteak | 938 | 3.331 | 486.219 | 19.051 | 509.539 |

Taldearen politika diruzaintzako soberakinak zor publikoan, berrerostketetan, epe laburreko gordailuetan, epe finkoko ezarpenetan edo merkatuko ordaindukoetan inbertitzea izan ohi da. Epe laburrerako inbertsioak dira; horien emaitzak honi atxikita azaltzen den galera eta irabazien kontu baterako "Finantza-sarrerak" epigrafean ordainduta erregistratzen dira. 2009ko eta 2008ko ekitaldietan, Taldeak 6.722 mila eta 16.777 mila euroko sarrerak erregistratu ditu kontzeptu horregatik hurrenez hurren.

“Beste finantza-aktibo batzuk” epigrafean erregistratutako saldoan sartzen da lur azpiko trenbide-proiektuak (Proyecto del Ferrocarril Suburbano) jasotako finantziazioaren erabili gabeko saldoa, 2.150 mila eurokoa (16. oharra). Erabili gabeko zenbateko hori hiri arteko trenbideko fideikomiso nagusian (Fideicomiso Maestro del Ferrocarril Suburbano) dago, eskudiru murriztu gisara, proiektu horretako inbertsioetarako bakarrik esleitzeko (7. oharra).

14. ONDARE GARBIA

a) Sozietate nagusiaren kapital soziala

2009ko eta 2008ko abenduaren 31n, 3,01 euroko balio nominaleko 3.428.075 akzioz osatuta zegoen kapital soziala. Akzio horiek kontu-idazpen bidez ordezkaturata eta guztiak harpidetuta eta ordainduta zeuden.

Sozietate nagusiaren kapital sozialaren % 3 baino gehiago zuten sozietateak edo erakunde akziodunak hauek ziren 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n:

| | Partaidetzaren %, 2009an | Partaidetzaren %, 2008an |
|--|--------------------------|--------------------------|
| Cartera Social, S.A. (9 eta 10 oharra) (*) | 29,56 | 29,56 |
| Gipuzkoa Donostia Kutxa | 17,75 | 17,75 |
| BNP Paribas Securities Services | 5,47 | 5,47 |
| AVIVA International Holding, Ltda. | - | 3,23 |

(*) Sozietate honetako akziodunak Sozietate nagusiko langileak dira edo izan dira (9. oharra).

2009ko ekainaren 6an, data horretatik aurrera hemezortzi hilabeteko epean akzio propioak erosteko ahalmena eman zion Akziodunen Ohiko Batzar Orokorrak administrazio-kontseiluari. Urteko kontu bateratu hauek egin direnean, erosketak hori egin gabe zegoen.

b) Jaulkipen-prima

Sozietate Anonimoen Legearen Testu Bateratuak berriaz jaulkipen-sariaren saldoa kapitala handitzeko erabiltzea baimentzen du, eta ez du berriazko mugarik ezartzen saldo horren eskuragarritasuna dela eta.

c) Birbalarizazio-erreserba

Hau da erreserba horrek 2009 eta 2008 ekitaldietan izan duen zenbatekoa:

| | Mila euro | |
|--|---------------|---------------|
| | 2009.12.31 | 2008.12.31 |
| Aktibo materialen birbalarizazioa: | | |
| Lurrak | 30.418 | 30.418 |
| 9/1983 Legearen arabera eguneratzea | 7.954 | 7.954 |
| 13/1991 Foru Dekretuaren arabera eguneratzea | 11.379 | 11.379 |
| 11/1996 Foru Arauaren arabera eguneratzea | 8.701 | 8.701 |
| | 58.452 | 58.452 |

9/1983 Legearen eta 13/1991 Foru Dekretuaren arabera eguneratzea

Indarrean dagoen araudiaren arabera, kontu horien saldoa erabilera librekoa da.

11/1996 Foru Arauaren arabera eguneratzea

Saldo hau kontabilitate-emaiza negatiboak berdintzeko, kapital soziala zabaltzeko edo bana ezin daitezkeen erreserbetara eramateko erabil daiteke, aplikatu gabeko kontuaren saldoari dagokionez. Kontu horren saldoa 11/1996 Foru Arauan aurrez ikusita ez bezala erabiliko balitz, saldo horri dagozkion zergak ordaindu egin beharko liriteke.

d) Legezko erreserba

Sozietate Anonimoen Legearen Testu Bateratuaren arabera, ekitaldiko irabaziaren % 10 eraman behar da legezko erreserbetara, horiek kapital sozialaren % 20 izan arte. Legezko erreserba dagoeneko gehitu den kapitalaren % 20tik gora dagoen zenbatekoa kapitala handitzeko erabil daiteke. Aipatutako helburu horretarako izan ezik eta kapital sozialaren % 20 gainditzen ez duen bitartean, erreserba hori galerak berdintzeko bakarrik erabili ahal izango da, eta betiere horretarako erabil daitezkeen behar adinako beste erreserbarik ez badago.

e) Integrazio osoz eta partaidetzaren bidez bateratutako sozietateetako erreserbak eta emaitzak

2009ko eta 2008ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuko atal honetako erreserbetara eta 2009ko eta 2008ko emaitza bateratura egindako ekarpena kontuan izanda, hau da sozietate horien xehetasuna (mila eurotan adierazita):

| | 2009 | | 2008 | |
|---|------------|----------|------------|----------|
| | Erreserbak | Emaitzak | Erreserbak | Emaitzak |
| CAF, S.A. | 253.122 | 132.676 | 193.335 | 91.342 |
| CAF USA, Inc. | 1.388 | (1.054) | 1.870 | (482) |
| CAF México, S.A. de C.V. | 2.234 | 637 | 689 | 1.545 |
| CAF Brasil Industria e Comercio, S.A. | 76 | (732) | (89) | 996 |
| CAF Argentina, S.A. | (2.727) | 368 | (2.793) | 278 |
| CAF Rail UK, Ltd. | 309 | 114 | 189 | 119 |
| CAF Italia, S.R.L. | 926 | 298 | 763 | 162 |
| CAF Chile, S.A. | (3) | 574 | - | (2) |
| CAF Turquia, L.S. | (7) | 126 | - | - |
| CAF Argelia, E.U.R.L. | - | (135) | - | - |
| CFD Bagneres, S.A. | (697) | (746) | (422) | (274) |
| Trenes de Navarra, S.A. | 349 | 365 | (98) | 445 |
| Construcciones Ferroviarias de Madrid, S.L.U. | (308) | 242 | (485) | 177 |
| Construcciones Ferroviarias CAF-Santana, S.A. | 65 | 32 | (8) | 73 |
| Tradinsa Industrial, S.A. | 516 | 174 | 620 | (104) |
| Compañía de Vagones del Sur, S.A. | (7) | (71) | (7) | - |
| CAF I+D, S.L. (kide bakarreko sozietatea) | 1.859 | 1.522 | 1.362 | 440 |
| Traintic, S.L. | 4.932 | 2.669 | 2.603 | 2.329 |
| Trainelec, S.L. | 2.054 | 3.552 | 280 | 1.773 |
| Nuevas Estrategias de Mantenimiento, S.L. | 385 | 580 | 142 | 262 |
| Desarrollo de Software Miramon 4, S.L. | 2 | 21 | (6) | 9 |
| Bizkaia Ferroviaria, S.L. | (46) | 330 | (42) | 132 |
| Centro de Ensayos y Análisis Cetest, S.L. | (5) | 536 | (8) | 56 |
| Lets Ingenieros, S.L. | 22 | 18 | (7) | 10 |
| Seinalia, S.L. | (6) | 160 | - | (6) |
| Predictive Ingenieros, S.L. | (25) | 9 | (23) | (2) |
| Lander Simul. and Training Solutions, S.A. | (266) | 199 | 316 | 141 |
| Actren, S.A. | 43 | 843 | (74) | 117 |
| Sermanfer, S.A.U. | 761 | 200 | 531 | 229 |

| | 2009 | | 2008 | |
|---|----------------|----------------|----------------|----------------|
| | Erreserbak | Emaitzak | Erreserbak | Emaitzak |
| Sefemex, S.A. de C.V. | 243 | 79 | 159 | 83 |
| Corporación Trainemex, S.A. de C.V. | 66 | 80 | - | 66 |
| Inversiones en Concesiones Ferroviarias, S.A. | 1.813 | 3.517 | (1.943) | 3.757 |
| Urbanización Parque Romareda, S.A.U. | 193 | (24) | 87 | (3) |
| Ferrocarriles Suburbanos, S.A. de C.V. | (18) | (24.899) | (1.175) | 1.064 |
| Ibaia Energia, S.L. | 25 | 462 | 6 | 18 |
| Sempere Componentes, S.L. | 711 | 805 | (28) | 739 |
| Agarregune, S.L. | - | (89) | - | - |
| Geminys, S.L. | 272 | 206 | 152 | 120 |
| Garraiotech, S.L. | - | (95) | - | - |
| Constructora de Sistemas Ferroviarios, S.L. | 296 | 602 | 65 | 230 |
| Constructora Mex. Del Fer. Sub., S.A. de C.V. | (13) | 610 | (77) | 64 |
| Asirys Vision Technologies, S.A. | (119) | (17) | (101) | (37) |
| Transitia SPE, S.L. | - | - | - | (135) |
| Plan Metro, S.L. | (121) | (401) | (135) | 14 |
| Consortio Traza, S.A. | - | - | - | - |
| | 268.294 | 124.343 | 195.648 | 105.745 |

f) Erreserba mugatuak eta eskuraezinak

2009ko eta 2008ko abenduaren 31n, 43.057 mila eta 41.406 mila euroko erreserbak zeuden, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren, bateratutako sozietateen banakako urteko kontuetan, legezko erreserban, balantzeak eguneratzeagatiko erreserban, kapitala amortizatzeagatiko erreserban eta abarretan.

Mugatuak eta eskuraezinak dira, hurrenez hurren, erreserba horiek. Ikerketa- eta garapen-gastuen kontusaila erabat amortizatu arte, debekatuta dago dibidenduak banatzea, erreserba erabilgarrien zenbatekoa amortizatu gabeko saldoen adinakoa, gutxienez, ez bada behintzat. 2009ko ekitaldiaren amaieran, beraz, 15.969 mila euroko erreserbak ez zeuden erabilgarri (2008ko ekitaldiaren itxieran, 6.795 mila euro).

g) Bihurketa-diferentziak

Hona hemen "Bihurketa-diferentziak" kontuaren banaketa, sozietate bakoitzaren arabera, 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n:

| | Mila euro | |
|--|-----------------|-----------------|
| | 2009.12.31 | 2008.12.31 |
| CAF México, S.A. de C.V. | (919) | (1.216) |
| CAF Brasil Ind. e C., S.A. | 3.981 | (369) |
| CAF Argentina, S.A. | 22 | 171 |
| CAF USA, Inc. | (59) | (73) |
| CAF Rail UK, Ltda. | (96) | (120) |
| CAF Chile | 44 | - |
| Sefemex, S.A. de C.V. | (60) | (65) |
| Ferrocarriles Suburbanos S.A. de C.V. | (15.795) | (17.177) |
| Constructora Mex. del Fer. Sub, S.A. de C.V. | (768) | (837) |
| Corporación Trainemex, S.A. de C.V. | (9) | (11) |
| CAF Turquia, L.S. | (1) | - |
| CAF Argelia, E.U.R.L. | (42) | - |
| | (13.702) | (19.697) |

h) Ondare-doikuntzak balorazioaren arabera

Kutxako eskudiru-fluxuak estaltzekotzat jotako eratorrien balorazioak izandako zuzenketen erreferentea da erreserba honetan adierazitako zenbatekoa (17. oharra).

i) Gutxiengoa duten akziodunak

Honekin batera doan Egoera Balantze Bateratuaren Pasiboko "Ondare garbia - Interes minoritarioak" epigrafearen mugimendua eta osaera, 2009 eta 2008ko ekitaldietan, hau izan zen:

| | Mila euro |
|--|---------------|
| 2007.12.31ko saldoa | 3.574 |
| Kanpoko bazkideei egotz dakiekeen irabazia | 967 |
| Eremuan izandako aldaketa | 10.667 |
| Beste batzuk | - |
| 2008.12.31ko saldoa | 15.208 |
| Kanpoko bazkideei egotz dakiekeen irabazia | (4.393) |
| Eremuan izandako aldaketa (2.f oharra) | 266 |
| Beste batzuk | 1.865 |
| 2009.12.31ko saldoa | 12.946 |

j) Kapitalaren kudeaketa

Taldeko kapital-kudeaketaren xedea da kapital-kostua optimizatzeko finantza-egitura eraikitzea, betiere finantza-egoera sendoari eutsita. Politika horri esker, bateragarriak dira akziodunentzat balioa sortzea eta finantza-merkatuen kostu lehiakorren jardutea, bai zorra birfinantzatzeko, bai negozio-funtsak estaltzen ez duen inbertsio-plana finantzatzeko.

CAF Taldeko administratzaileen iritziz, jarritako helburuak betetzearen adierazle da ahalik eta txikiena izatea matizearekiko palanka-efektuaren maila. 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n, zorraren zatirik handiena Mexikoko emakidari eta antzeko jardueri zegokien (3.a eta 7 oharra). Finantza-zor garbiaren zenbatekoaren eta ondare garbiaren arteko erlazioari deitzen zaio palanka-efektuaren maila (ekitaldi honetan, gainera, negatiboa izan da):

| | Mila euro | |
|---|------------------|------------------|
| | 2009.12.31 | 2008.12.31 |
| Finantza-zor garbia: | | |
| Itzuli beharreko aurrerakinak (15. oharra) | 63.808 | 61.334 |
| Kreditu-erakundeekiko zorrak - Pasibo ez-korrontea (16. oharra) | 187.577 | 160.349 |
| Kreditu-erakundeekiko zorrak - Pasibo korrontea (16. oharra) | 15.817 | 16.564 |
| Aldi baterako finantza-inbertsioak (13. oharra) | (460.279) | (488.576) |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo likido baliokide | (81.727) | (116.714) |
| | (274.804) | (367.043) |
| Ondare garbia: | | |
| Sozietate nagusiarena | 459.499 | 362.122 |
| Interes minoritarioak | 12.946 | 15.208 |
| | 472.445 | 377.330 |

15. BESTE FINANTZA-PASIBO KORRONTE ETA EZ-KORRONTE BATZUK, ETA BESTE KONPROMISO BATZUK

Hona hemen Taldeak 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n zituen finantza-pasiboen banakapena, bakoitzaren izaeraren arabera sailkatuta hobeto baloratzeko:

| Mila euro | | | | | |
|---|--|---|--|----------------------------|----------------|
| 2009.12.31 | | | | | |
| Finantza-pasiboak: Izaera / Kategoria | Negoziatzeko gordetako finantza- pasiboak | Benetako balioetan egindako beste finantza- pasibo batzuk (galera eta irabazien kontuan aldaketak dituztenak) | Ordaindu beharreko zorrak eta kontusailak | Estalduraren eratorriak | Guztira |
| Kreditu-erakundeekiko zorrak (16. oharra) | - | - | 187.577 | - | 187.577 |
| Eratorkiak (17. oharra) | - | - | - | 899 | 899 |
| Beste zenbait finantza-pasibo | - | - | 61.864 | - | 61.864 |
| Epe luzerako zorrak / | | | | | |
| Finantza-pasibo ez-korronteak | - | - | 249.441 | 899 | 250.340 |
| Kreditu-erakundeekiko zorrak (16. oharra) | - | - | 15.817 | - | 15.817 |
| Eratorkiak (17. oharra) | - | - | - | 6.555 | 6.555 |
| Beste zenbait finantza-pasibo | - | - | 14.582 | - | 14.582 |
| Epe laburrerako zorrak / | | | | | |
| Finantza-pasibo korronteak | - | - | 30.399 | 6.555 | 36.954 |
| Guztira | - | - | 279.840 | 7.454 | 287.294 |

| Mila euro | | | | | |
|---|--|---|--|----------------------------|----------------|
| 2008.12.31 | | | | | |
| Finantza-pasiboak: Izaera / Kategoria | Negoziatzeko gordetako finantza- pasiboak | Benetako balioetan egindako beste finantza- pasibo batzuk (galera eta irabazien kontuan aldaketak dituztenak) | Ordaindu beharreko zorrak eta kontusailak | Estalduraren eratorriak | Guztira |
| Kreditu-erakundeekiko zorrak (16. oharra) | - | - | 160.349 | - | 160.349 |
| Eratorkiak (17. oharra) | - | - | - | 7.187 | 7.187 |
| Beste zenbait finantza-pasibo | - | - | 58.750 | - | 58.750 |
| Epe luzerako zorrak / | | | | | |
| Finantza-pasibo ez-korronteak | - | - | 219.099 | 7.187 | 226.286 |
| Kreditu-erakundeekiko zorrak (16. oharra) | - | - | 16.564 | - | 16.564 |
| Eratorkiak (17. oharra) | - | - | - | 11.534 | 11.534 |
| Beste zenbait finantza-pasibo | - | - | 17.639 | - | 17.639 |
| Epe laburrerako zorrak / | | | | | |
| Finantza-pasibo korronteak | - | - | 34.203 | 11.534 | 45.737 |
| Guztira | - | - | 253.302 | 18.721 | 272.023 |

Beste zenbait finantza-pasibo

Ikerketa eta Teknologia Sustatzeko Programengatik Zientzia eta Teknologia Ministerioak zenbait diru-laguntza eman dizkio Taldeari, 2006 eta 2011 artean ikerketa eta garapeneko proiektuak egiteko. Diru-laguntza horiek benetan kobratzean erregistratzen dira edo, hala badagokie, baterako proiektuaren koordinatzaileak kobratzen dituenen. Hauek izan dira laguntzak:

- Proiektu horien gastuen eta kostuen zati bat ordaintzeko diru-laguntzak.
- Itzuli beharreko aurrerakinak, interesik gabeko maileguetan. Hiru urteko gabealdia dute hasieran, eta hamar urtetik gorako epean amortizatzen dira.

Epe luzerako zatirako aipatu ditugun programa horiek 2009ko eta 2008ko ekitaldietan sortu dituzten mugimenduak (egungo balioaren arabera) hauek izan dira:

| | Mila euro |
|-------------------------------|-------------------------------|
| | Itzuli beharreko aurrerakinak |
| 2007.12.31ko saldoa | 53.178 |
| Gehigarriak | 5.436 |
| Epe laburrerako intsuldaketak | (9.911) |
| 2008.12.31ko saldoa | 48.703 |
| Gehigarriak | 12.872 |
| Epe laburrerako intsuldaketak | (9.722) |
| 2009.12.31ko saldoa | 51.853 |

Era berean, hartzekodunen saldo gisa itzuli beharreko aurrerakinegatik epe laburrera erregistratutako zenbatekoak hauek izan dira 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n hurrenez hurren: 11.955 mila eta 12.631 mila euro.

Lankidetzan egindako proiektuetan proiektuaren koordinatzailea da erantzule proiektuaz arduratzen den administrazioaren aurrean, eta berak kobratzen du administrazioaren laguntza osoa. Taldeak, "Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk - Beste zordun batzuk" eta "Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk - Beste hartzekodun batzuk" izeneko epigrafeetan erregistratu ditu lankidetzako proiektuetatik eratorritako hirugarren batzuekin lotuta kobratu eta ordaindu beharreko zenbatekoak. 2009ko abenduaren 31n, Taldeak ez du hirugarren batzuekin kobratu gabeko saldirik (41 mila euro 2008ko abenduaren 31n); aldiz, ordaindu beharreko 506 mila euroko kontua du erregistratuta arrazoi horrekin lotuta (1.759 mila euro 2008ko abenduaren 31n).

2009ko abenduaren 31n, epe luzeari dagokion zatiaren hurrengo urteotarako epemuga hau izango da (mila eurotan):

| | 2009 | 2008 |
|-----------------------|---------------|---------------|
| 2010 | - | 6.546 |
| 2011 | 6.617 | 6.899 |
| 2012 | 7.048 | 6.920 |
| 2013 | 7.043 | 6.920 |
| 2014 | 7.005 | 6.920 |
| 2015 eta beste batzuk | 24.140 | 14.498 |
| Guztira | 51.853 | 48.703 |

Era berean, 2009ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuko "Finantza-pasibo ez-korronteak - Beste finantza-pasibo batzuk" izeneko epigrafean, pertsonalarekiko konpromisoei eta beste pasibo batzuei dagozkien 9.235 mila eta 776 mila euroko zenbatekoak azaltzen dira hurrenez hurren (9.261 mila eta 786 mila euro 2008ko abenduaren 31n).

Beste konpromiso batzuk

Taldeak enplegu osteko prestazioen eta epe luzerako beste ordainketa batzuekin eta horiei estaldura ematera bideratutako aktibo atxikiekin lotuta bere gain hartutako konpromisoen egungo balioaren xehetasuna hauxe da 2009ko eta 2008ko ekitaldien itxieran (3.k oharra):

| | Mila euro | |
|---|------------|--------------|
| | 2009.12.31 | 2008.12.31 |
| Ordainketen egungo balioa | 17.567 | 17.474 |
| Ken - Aktibo atxikien arrazoizko balioa | 16.833 | 16.354 |
| Epe luzerako homidurak - Langileei eman beharreko epe luzerako ordainketengatikoa betebeharrak | 734 | 1.120 |

Konpromisoek egun duten balioa aktuario independente adituek zehaztu dute. Zenbatekoak kuantifikatzeko, irizpide hauek aplikatu dituzte:

- Kalkulatzeko metodoa: "Proiektatutako kreditu-unitatea". Zerbitzu-urte bakoitza prestazioetarako eskubidea ematen duen unitate osagarriaren sortzailatzat hartzen du, unitate bakoitza bereizita aztertuta.
- Erabilitako aktuaritza-hipotesiak: alboragabeak eta elkarrekin bateragarriak. Oro har, kalkuluetan erabili dituzten aktuaritza-hipotesirik aipagarrienak hauek izan dira:

| Aktuaritza-hipotesiak | 2009 | 2008 |
|--------------------------------------|--------------|--------------|
| Interes teknikoko tasa | % 3,88(1) | % 4,77 |
| Heriotza-tasaren taulak | PERM/F 2000P | PERM/F 2000P |
| Pentsioen berrikusketako urteko tasa | % 2(2) | % 2 |
| Erretiro-adina | 65 | 65 |

(1) Lehen 30 urteetan. Ordutik aurrera, % 2,42.

(2) Erretirodunen kasuan, % 2,5.

Aktibo atxikien arrazoizko balioa ekitaldiaren itxieran kalkulatu da. Horretarako, proiektatutako kreditu-unitatearen kalkulu-metodoa erabili da.

Aktibo atxikien inguruan esperotako errentagarritasuna atxikitako inbertsio-zorroaren balorazioaren arabera egin da. Balorazio hori Mapfre Vida aseguru-konpainiak egin zuen eta 2009ko ekitaldiko emaitza % 4,21ekoa izan da (% 4,66koa 2008ko ekitaldian).

16. KREDITU-ERAKUNDEEKIKO ZORRAK

Honekin batera doan egoera-balantze bateratuko epigrafeen osaera hau da:

| | Mila euro | | | |
|--|----------------|---------------|----------------|---------------|
| | 2009.12.31 | | 2008.12.31 | |
| | Ez-korrontea | Korrontea | Ez-korrontea | Korrontea |
| Maileguak eta finantza-erakundeekiko kreditu-kontuak | 150.568 | 15.817 | 140.636 | 16.489 |
| Mugaeguneratzeko dauden sortutako interesak | 37.009 | - | 19.713 | 75 |
| Guztira | 187.577 | 15.817 | 160.349 | 16.564 |

39. NKA aplikatuta, kreditu-erakundeekiko zorren zenbatekoak zuzenduta aurkeztu behar dira balantzean, maileguen irekiera eta formalizazioak eragindako kostuak jarrita, alegia.

2006ko ekitaldian, Ferrocarriles Suburbanos, S.A. de CV mendeko sozietateak (7. oharra) bi mailegu sinatu zituen Banco Santander, S.A.rekin (indarrean jarraitzen zuten 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n), baldintza hauekin:

– BEZ kredituak, gehienez ere 250 milioi peso mexikarreko zenbatekoarekin, BEZ ordainketak finantzatzeko (osorik nahiz partzialki). 45 hilabeteko iraupena du kredituak, 2006ko uztailaren 24tik hasita. Interes-tasa TIEE (Banku arteko Orekako Interes Tasa, Mexikoko Bankuak argitaratzen duena) + % 1,25 zen. 90 egun naturaleko ordaintze-epea du erabilera bakoitzak, erabilera bakoitzaren datatik zenbatzen hasita. 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n, 1.077 mila eta 3.628 mila eurokoa zen kreditu horrek erabilitako zenbatekoa (20.207 mila eta 69.897 mila peso mexikar).

– Finantziario-kontratua, gehienez ere 3.414 milioi peso mexikar, epekako truke-tasaren aplikazioagatik, aldez aurretik finkatutako bizkitarteko interes-tasa ordainduz, finantziario-kontratuaren arabera. Maileguaren amortizazioa sei hilean behingo 28 kuotatan egingo da, 2008ko ekainaren 28tik aurrera. 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n, mailegu horretatik erabilitako zenbatekoa 155.956 mila eta 164.565 mila eurokoa zen (2.926 milioi eta 3.171 milioi peso mexikar).

Proyecto del Ferrocarril Suburbanoren (7. oharra) finantziario-premien arabera erabiliko ditu kreditu horien baliabideak mendeko sozietateak.

Erabili gabeko zenbatekoa Ferrocarril Suburbanoko Fideikomiso Nagusian (7. oharra) dago, eta honekin batera doakizuen egoera-balantze bateratuaren "Beste finantza-aktibo korrante batzuk" epigrafeko eskudiru murriztu gisa aurkezten da (13. oharra).

Epe luzerako kreditu horiek badituzte zenbait klausula murriztaile, mugak jartzen dizkienak Sociedad Ferrocarriles Suburbanos S.A. de CVri, besteak beste, banku-mailegu gehiago eskuratzeko, bermeak emateko, zergak ordaintzeagatik obligazioak jalkitzeko, aktibo finkoak eta bestelako aktibo ez-zirkulatuak saltzeko eta kapitalak itzultzeko. Zenbait finantza-baldintza betetzeko obligazioa ere ezartzen diote; besteak beste, guztizko pasiboaren eta kapital sozialaren arteko proportzioari dagokiona. 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n, mendeko sozietateak baldintza horiek guztiak betetzen zituen.

Ferrocarriles Suburbanos, S.A. de CV mendeko sozietatearen aipatutako bi maileguak sozietateko akziodunengana jo gabe gauzatu dira ("project finance"). Eraikuntza-garaian jasandako BEZaren gainean Mexikoko ogasun publikoak egin beharreko itzultzeak ditu berme BEZ Kredituak. Kreditu hori ez da konpentsatzen jasanarazitako BEZarekin, ez baitago horrelakorik aipatutako epean. 3.414 milioi peso finantziarioak berme hau du: zorra zerbitzatzeko funts kontingente bat, 121 milioi dolar amerikarrekoa, Mexikoko FINFRA funts federalak eskudirutan ordaindua Ferrocarriles Suburbanos, S.A. de CVren diruzaintza orokorra kontrolatzen duen fideikomisioan.

Hona hemen finantziario honen kontratuan, BEZ kredituetan eta kontingentzia-funtsean aurrez ikusitako amortizazioak (mila euro):

| | Mila euro | |
|----------------|-------------------|-------------------|
| | 2009.12.31 | 2008.12.31 |
| 2009 | - | 12.658 |
| 2010 | 14.704 | 12.659 |
| 2011 | 13.000 | 12.659 |
| 2012 | 13.000 | 12.659 |
| 2013 | 13.000 | 12.659 |
| Hurrengoak | 146.958 | 101.271 |
| Guztira | 200.662 | 164.565 |

Aipatutako finantziazioaz gain, 2009ko abenduaren 31n, sozietate bateratuek hainbat kreditu-linea zituzten, zenbait finantza-erakundek emanak, eurotan batez ere. Merkatuko interes-tasak sortzen dituzte kreditu horiek, gehienbat EURIBORa + merkatuko diferentzia bat, 122.017 mila eurora arteko mugarekin. Data horretan, ez da zenbateko aipagarrikerik erabili (147.853 mila euro 2008ko abenduaren 31n).

17. FINANTZA-TRESNA DERIBATUAK

Finantza-tresna deribatuak erabiltzen ditu CAF taldeak bere etorkizuneko jarduerak, eragiketek eta eskudiru-fluxuek jasaten duten arriskuez babesteko, truke-tasaren gorabeheraz, batik bat (3.oharra, d). Truke-tasarekiko babes moduan erabiltzen ditu CAF Taldeak deribatuak, haien aldaketek etorkizuneko kutxa-fluxuetan izan lezaketen ondorio negatiboa leuntzeko, sozietate bakoitzak erabili ohi duen moneta ez den beste batean egiten direnean salerosketa eta maileguak.

Hona hemen 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n bateratutako egoera-balantzean zeuden deribatuen (arrazoizko balioko estaldurakoak, gehienbat) balorazio-saldo garbien osaera:

2009ko ekitaldia

| Salmentako deribatuak dibisan 2009.12.31n (arrazoizko balioa duen estaldura) | Epemuga (dibisan) | | |
|---|-------------------|------------|---------------------------------------|
| | 2010 | 2011 | 2012ko ekitaldia eta hurrengoak |
| Estaldurak: | | | |
| Dolarraren truke-aseguruak | 138.638.459 | - | - |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | 32.189.619 | 56.918.622 | 15.040.694 |
| Yenaren truke-aseguruak | 4.362.660.003 | - | - |
| Euroaren truke-aseguruak | 2.300.040 | - | - |
| Seguros de cambio de Pesos Mexicanos | 484.925.184 | - | - |
| Brasilgo errealaren truke-aseguruak | 535.322.612 | - | - |
| Kanadako dolarraren truke-aseguruak | 434.741 | - | - |

| Erosketako deribatuak dibisan 2009.12.31n (arrazoizko balioa duen estaldura) | Epemuga (dibisan) | | |
|---|-------------------|------------|---------------------------------------|
| | 2010 | 2011 | 2012ko ekitaldia eta hurrengoak |
| Estaldurak: | | | |
| Dolarraren truke-aseguruak | 133.699.512 | 10.600.000 | 2.790.000 |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | 782.827 | 650.000 | - |
| Euroaren truke-aseguruak | 5.197.282 | - | - |
| Suitzako frankoaren truke-aseguruak | 169.400 | - | - |

| Erosketako deribatuak dibisan 2009.12.31n (eskudiru-fluxuaren estaldura) | Epemuga (dibisan) | |
|---|-------------------|--|
| | 2010 | |
| Estaldurak: | | |
| Mexikoko pesoaren truke-aseguruak | 32.492.400 | |

2008ko ekitaldia

| Salmentako deribatuak dibisan 2008.12.31n (arrazoizko balioa duen estaldura) | Epemuga (dibisan) | | |
|---|-------------------|------------|-------------------------------------|
| | 2009 | 2010 | 2011 ekitaldia eta hurrengoak |
| Estaldurak: | | | |
| Dolarraren truke-aseguruak | 248.926.337 | - | - |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | 15.381.840 | 24.983.637 | 5.434.784 |
| Yenaren truke-aseguruak | 9.597.852.003 | - | - |
| Euroaren truke-aseguruak | 7.815.168 | - | - |
| Mexikoko pesoaren truke-aseguruak | 469.533.168 | - | - |
| Brasilgo errealaren truke-aseguruak | 89.567.173 | - | - |

| Erosketako deribatuak dibisan 2008.12.31n (arrazoizko balioa duen estaldura) | Epemuga (dibisan) | |
|---|-------------------|--|
| | 2009 | |
| Estaldurak: | | |
| Dolarraren truke-aseguruak | 163.529.945 | |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | 298.490 | |
| Yenaren truke-aseguruak | 695.468.170 | |
| Euroaren truke-aseguruak | 25.765.260 | |

| Erosketako deribatuak dibisan 2008.12.31n (eskudiru-fluxuaren estaldura) | Epemuga (dibisan) | |
|---|-------------------|--|
| | 2009 | |
| Estaldurak: | | |
| Mexikoko pesoaren truke-aseguruak | 30.598.400 | |

| | Mila euro | | | |
|-------------------------------------|-------------------|--------------|------------------|--------------|
| | Arrazoizko balioa | | Eskudiru-fluxuak | |
| | 2009.12.31 | 2008.12.31 | 2009.12.31 | 2008.12.31 |
| Estaldurak: | | | | |
| Dolarraren truke-aseguruak | (2.989) | 1.923 | - | - |
| Libra esterlinaren truke-aseguruak | 1.732 | 6.204 | - | - |
| Yenaren truke-aseguruak | 1.518 | 3.891 | - | - |
| Mexikoko pesoaren truke-aseguruak | (2.119) | (580) | (97) | (285) |
| Brasilgo errealaren truke-aseguruak | 1.829 | (1.406) | - | - |
| Suitzako frankoaren truke-aseguruak | (131) | (222) | - | - |
| Balorazioa, itxieran (*) | (160) | 9.810 | (97) | (285) |

(*) Zerga mailako eragina kontuan hartu aurretik.

Estaldura-tresnaren epemuga bat dator eskudiru-fluxuak gertatzea aurrez ikusitako ekitaldiarekin.

2009ko ekitaldian, galera eta irabazien kontu bateratuan zordundutako eta egindako estaldura-eragiketen eraginkortasunik gabeko zatiari dagokion eraginak 1.258 mila euroko zenbatekoa duen gastua sortu du. 2008ko ekitaldian, ia ez da estalduretan eraginkortasun-gabeziarik gertatu. Hori dela eta, galera eta irabazien kontu bateratuan horrek izandako eraginak hondar-balioa izan duela esan dezakegu.

Gainera, arrazoizko balioa duten deribatuen balioak izan duen bariazioari eta emaitzei egindako egozpenari dagokionez, emaitzetan izandako egozpena 1.127 mila eta 6.229 mila eurokoa izan da 2009ko eta 2008ko ekitaldietan. Beste nolabait esanda, estalitako kontusailen balioak izan duen aldearen antzeko zenbatekoak izan dira.

Taldean estalitako kontusailak (Merkatuko Arriskuei buruzko 5.a oharrean zehaztutakoaren arabera) kontratu komertzial bakoitzean bildutako dibisan egindako eragiketak izan dira. Estalduren kontratazioko hasierako unean, eragiketa horiek konpromiso irmo (kasu horretan, arrazoizko balioa duten estaldura gisa erregistratzen dira) edo gertatzeko probabilitate maila altuko transakzio gisa (kasu horretan, eskudiru-fluxuaren estaldura gisa erregistratzen dira) osatzen dira.

18. ZERGA GERORATUAK

2009ko abenduaren 31n, ikuskapenerako irekita zeuden batez ere azken lau ekitaldiak CAF Taldea osatzen duten sozietateetako jarduerari dagozkion zerga nagusiekin lotuta.

Sozietate nagusiak sozietateen gaineko zergaren inguruko zergak modu bateratuan ordaintzen dizkio Estatuko Administrazioari eta Gipuzkoako eta Bizkaiko Foru Aldundiei lurralde bakoitzean egindako eragiketa-bolumenaren arabera. Dena den, aplikagarria da Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga mailako araudia. Hori dela eta, 2009ko eta 2008ko ekitaldietarako sozietateen gaineko zergan aplikatutako zerga-tasa % 28koa izan da.

2007ko ekitalditik, sozietate nagusiak Kontsolidazio Fiskaleko Erregimenean ordaintzen ditu zergak Gipuzkoako Lurralde Historikoko 1996ko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergaren ingurukoak, xedatutakoa betez. Zergak 03/07/G zenbakidun Zerga Taldearen baitan ordaintzen ditu. Haren sozietate nagusia Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. da eta hurrengo hauek dira mendekoak: Inversiones en Concesiones Ferroviarias, S.A., CAF I+D, S.L., Constructora de Sistemas Ferroviarios, S.L., Traintic, S.L., Ibaia Energia, S.L., Sempere Componentes, S.L., Bizkaia Ferroviaria, S.L., Trainelec, S.L., Agarregune, S.L., Geminys, S.L., Seinalia, S.L., Predictove Ingenieros, S.L., Nuevas Estrategias de Mantenimiento, S.L. eta Centro de Ensayos y Análisis Cetest, S.L.. Kontsolidazio fiskaleko erregimenak izaera mugagabea izango du baldintzak betetzen dituen bitartean edo, dagokion zentsu-aitorpenaren bidez, espresuki aplikatzeari uko egiten ez dion bitartean.

Taldearen kontabilitateko emaitzaren eta Sozietateen gaineko Zergari dagokion gastuaren arteko berdinkatzea hauxe da:

| | Mila euro | |
|--|----------------|-----------------|
| | 2009 | 2008 |
| Zergen aurreko kontabilitateko emaitza | 120.133 | 106.412 |
| Matrizearen zerga-tasa | % 28 | % 28 |
| Sozietateen gaineko zerga, matrizearen zerga-tasaren arabera kalkulatuta | 33.637 | 29.795 |
| Filialen zerga-tasa ezberdinak eragindako efektua | 1.372 | 84 |
| Salbuetsitako sarrerek eta fiskalki deduzigarriak ez diren gastuek eragindako efektua | 2.835 | (991) |
| Ekitaldian erregistratutako dedukzioen eta zerga mailako beste laguntza batzuek eragindako efektu fiskala | (27.002) | (12.603) |
| Aurreko ekitaldietan onartu gabeko eta ekitaldi honetan erregistratutako edo aplikatutako zerga geroratuek eta zerga-kredituek eragindako efektu fiskala | (694) | (10.291) |
| Zerga-kredituen hondatzeek eta zerga geroratuek eragindako efektu fiskala | - | 530 |
| Ekitaldian onartutako doikuntzak aurreko ekitaldietako Sozietateen gaineko Zergarekin lotuta | (9.680) | (6.820) |
| Beste batzuk | (41) | - |
| Galera eta irabazien kontu bateratuan onartutako zergak eragindako gastua, guztira (Sarrera) | 427 | (296) |
| Zerga korranteak eragindako gastua (Sarrera) (*) | (2.649) | 22.365 |
| Zerga geroratuak eragindako gastua (Sarrera) | 3.076 | (22.661) |

(*) Aurreko ekitaldietako sozietateen gaineko zergak eta doikuntzak biltzen ditu.

Egotzitako zerga-kargaren eta, ekitaldi horretan, atxikitako egoera-balantze bateratuko aktiboaren edo pasiboaren "geroratutako zerga aktiboak" eta "geroratutako zerga pasiboak" epigrafeetan erregistratutakoaren truke ordaindu beharrekoaren arteko aldeak alderdi hauek biltzen ditu:

- Denbora mailako aldeak; aktibo jakin batzuen kontabilitateko balioaren eta haien zerga-oinarriaren arteko aldeak sortutakoak. Alderik aipagarrienak deribatuen balorazioa eta aktiboen birbalorizazioa direla eta sortutakoak dira.
- Partaidetza Planeko eskubideen horniduraren % 28i dagokion denbora mailako aldea zein fiskalki zuzkidura egin den ekitaldian deduzi ezin daitezkeen horniduren truke egindako denbora mailako aldea.
- Denbora mailako alde hori kontabilitatekoarekin alderatuta amortizazio fiskalak izan dituen igoeren % 28i dagokio; hori 6/1988, 7/1996 eta 11/1993 foru-arauetan aurrez ikusitako amortizazio-askatasunaren eta amortizazio aurreratuaren ingurukoa da.

Honakoa da saldo horien osaera eta mugimendua:

| | Mila euro | | | |
|--|---------------|---------------|-----------------|---------------|
| | 2008.12.31 | Gehigarriak | Bajak | 2009.12.31 |
| Geroratutako zerga aktiboak: | | | | |
| Aplikatu gabeko dedukzioak eta zerga-oinarri negatiboak (3.m eta 9 oharra) | 12.603 | 14.348 | (12.603) | 14.348 |
| Denbora mailan deduzigarriak ez diren hornidurak | 34.430 | 11.256 | (4.333) | 41.353 |
| Partaidetzen Plana (9. oharra) | 9.319 | - | (135) | 9.184 |
| Bateratzean irabaziak kentzea | 16.230 | 8.658 | (926) | 23.962 |
| | 72.582 | 34.262 | (17.997) | 88.847 |
| Geroratutako zerga pasiboak: | | | | |
| Amortizazio-askatasuna eta amortizazio aurreratua (7. oharra) | 2.708 | 11.831 | (939) | 13.600 |
| Eskudiru-fluxuaren estaldurak (17. oharra) | 79 | - | (52) | 27 |
| Lurren birbalorazioa (14. oharra) | 11.829 | - | - | 11.829 |
| Atzerriko enpresen ezarpenari dagokion dedukzioa | 3.686 | - | (1.843) | 1.843 |
| Merkataritza Funtsa | 445 | 288 | - | 733 |
| Emaitzak kentzea bateratzean eta beste batzuk | 2.609 | 6.398 | (45) | 8.962 |
| | 21.356 | 18.517 | (2.879) | 36.994 |

| | Mila euro | | | |
|---|---------------|---------------|-----------------|---------------|
| | 2007.12.31 | Gehigarriak | Bajak | 2008.12.31 |
| Geroratutako zerga aktiboak: | | | | |
| Aplikatu gabe dauden dedukzioak (3.m eta 9 oharra) | 12.254 | 12.603 | (12.254) | 12.603 |
| Denbora mailan deduzigarriak ez diren hornidurak | 15.447 | 20.313 | (1.330) | 34.430 |
| Partaidetzen Plana (9. oharra) | 9.336 | - | (17) | 9.319 |
| Bateratzean irabaziak kentzea | 8.612 | 7.863 | (245) | 16.230 |
| Establezimendu-gastuak | 280 | - | (280) | - |
| Eskudiru-fluxuaren estaldurak (17. oharra) | 783 | - | (783) | - |
| | 46.712 | 40.779 | (14.909) | 72.582 |
| Geroratutako zerga pasiboak: | | | | |
| Amortizazio-askatasuna eta amortizazio azkartua (7. oharra) | 1.803 | 2.073 | (1.168) | 2.708 |
| Eskudiru-fluxuaren estaldurak (17. oharra) | 709 | - | (630) | 79 |
| Lurren birbalorazioa (14. oharra) | 11.829 | - | - | 11.829 |
| Atzerriko enpresen ezarpenari dagokion dedukzioa | 5.373 | - | (1.687) | 3.686 |
| Merkataritza Funtsa | - | 445 | - | 445 |
| Emaitzak kentzea bateratzean eta beste batzuk | 1.920 | 2.609 | (1.920) | 2.609 |
| | 21.634 | 5.127 | (5.405) | 21.356 |

2009ko ekitaldian, Taldeak 18.282 mila euroko zenbatekoa zuten dedukzioak egiaztatu ditu (11.358 mila euro 2008ko ekitaldian); batez ere, aktibo ez-korronte berrietan egindako inbertsioengatiko dedukzioari (2.180 mila euro) eta I+G arloko dedukzioari (11.665 mila euro) dagokio (3.484 mila eta 5.876 mila euro, hurrenez hurren, 2008ko ekitaldian). 2009ko zergaren aurreikuspenaren ostean aplikatu gabe dauden dedukzioen zenbatekoa 11.178 mila eurokoa da (25.771 mila euro 2008ko ekitaldian). Horietatik, 8.432 mila euro "Zerga geroratuengatiko aktiboak - Aplikatu gabe dauden dedukzioak eta zerga-oinarri negatiboak" epigrafean erregistratuta daude (12.603 mila euro 2008ko ekitaldian). Aktibatutako eta konpentsatu gabeko zerga-oinarri negatiboen zenbatekoa 5.916 mila eurokoa izan da 2009ko abenduaren 31n; erregistratu gabeko zerga-oinarri negatiborik ez da izan (2008ko ekitaldian ez zegoen aktibatutako eta aplikatu gabeko zerga-oinarri negatiborik).

Oro har, aipatutako dedukzioen helburu diren aktiboek edo ondare-elementuek Taldean funtzionamenduan jarraitu behar dute aurrez ikusitako helburuekin lotuta gutxienez 5 urteko epean edo, hiru urteko epean, ondasun higigarriak direnean, horien bizitza erabilgarria txikiagoa denean izan ezik. Hori dela eta, ez dira transmisioaren, errentamenduaren edo erabiltzeko hirugarren batzuei egindako lagapenaren helburu bihurtuko, justifikatutako galeretan izan ezik.

Geroratutako zerga dela eta aktiboak berreskuratzearekin lotutako ziurgabetasuna kontuan hartuta, Taldeak eskaeren zorroaren ebaluazioan oinarritutako aktibazio-irizpidea mantentzen du. Irizpide horrek zehaztutakoaren arabera, Taldeak, gutxi gorabehera, aktibatu gabe ditu 2.746 mila euroko zenbatekoa duten dedukzioak (13.168 mila euro 2008ko ekitaldian). Dedukzio horiek hurrengo ekitaldietan aplikatzeko aukera dagoen heinean aktibatuko dira indarrean dagoen araudiak zehaztutako mugen eta epeen arabera. Gainera, Taldeak erregistratu gabeko aktiboaren geroratutako zergak ditu. Horien zenbatekoa 11.302 mila eurokoa da.

Taldearen zerga mailako dedukzioak aplikatzeko (aktibatu gabek) epea eta zenbatekoa hau da:

| | Mila euro | |
|-----------------|-------------------|-------------------|
| | 2009.12.31 | 2008.12.31 |
| Epemuga 2017an | 674 | - |
| Epemuga 2018an | 866 | - |
| Epemuga 2019an | 345 | - |
| Epemuga 2021ean | - | 2.658 |
| Epemuga 2022an | - | 5.514 |
| Epemuga 2023an | - | 4.996 |
| Epemuga 2024an | 62 | - |
| Epemugarik gabe | 799 | - |
| | 2.746 | 13.168 |

2008ko Sozietateen gaineko Zergaren truke ordaindu beharreko kontuaren kalkulua egiteko, 31.173 mila euroko zenbatekoa duten dedukzioak hartu dira kontuan. Horietatik 12.603 mila euro 2008ko abenduaren 31ko atxikitako egoera-balantze bateratuko "Zerga geroratuengatiko aktiboak" izeneko epigrafean zeuden erregistratuta. Gainera, 2008ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren estimazioaren eta azkenik aurkeztutako aitortpenaren arteko diferentziek sozietateen gaineko zergari dagokion sarrera eragin dute. Batez ere, hasieran estimatutakoa baino altuagoa zen zenbatekoan I+Ggatiko dedukzioan egiaztatzeari eta aplikatzeari dagokio. Erregistratutako sarreraren eragin garbia 9.680 mila eurokoa da.

Taldeak 2008an sortutako 259 mila euroko errenta salbuetsizat eman zuen (624 mila euro 2006an eta 545 mila euro 2007an); izan ere, Sozietateen gaineko Zergaren inguruko 1996ko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauko 22. artikulua zehaztutako aparteko irabaziak berriro inbertitzearen inguruko zerga-onura jaso zuen. Berrinbertsioa errenta sortu zeneko zerga-aldi beretan gauzatu zen entitateen kapital sozialaren % 5 baino gehiagokoa den partaidetza ematen duten entitateetan egindako partaidetzako balio ordezkagarrien bidez. Oro har, berrinbertsioaren helburu izan diren

ondare-elementuek Taldearen ondare baitan iraun behar dute bost urtez (edo hiru urtez ondasun higigarriak badira) horretarako galera justifikatuak daudenean izan ezik. Epe hori berrinbertsioa gauzatu den unetik aurrera hasiko da zenbatzen, haien bizitza erabilgarria baxuagoa denean izan ezik. Aipatutako epea amaitu baino lehen elementu horiek eskualdatzeak zehaztuko du integratu gabeko errentaren zatiaren zerga-oinarrian izan beharreko integrazioa, lortutako zenbatekoa zerga mailako araudian ezarritako baldintzen arabera berrinbertsioaren helburu bihurtzen denean izan ezik. 2009ko ekitaldiko Sozietateen gaineko Zergaren estimazioan, Taldeak ez du salbuetsizat eman kontzeptu horri dagokion errentarik.

Sozietate nagusiak Sozietateen gaineko Zergari buruzko 1996ko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauan aurrez ikusitakoaren arabera ordaintzen ditu zergak. 2008ko abenduaren 30ean, 2008ko abenduaren 23ko 8/2008 Foru Araua argitaratu eta indarrean sartu zuten. Arau horrek 7/1996 Foru Araua aldatzen du eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zerga-aldietarako eraginak ditu. Beste neurri batzuen artean, % 28ko grabamenerako tasa orokorra finkatzen du. 8/2008 Foru Arau horren aurkako helegitea jarri dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian.

2008ko irailaren 11n, Europako Komunitateetako Justizia Auzitegiak Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak proposatutako epaitu aurreko erabakiaren inguruko eskaerei buruzko epaia eman zuen 2006ko iraileko data zuten autoen bidez. Europako Komunitateetako Justizia Auzitegiak emandako epai horrekin lotuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak Sozietateen gaineko Zergaren inguruko foru-araudiaren aurkako hainbat helegite atzera bota zuen 2008ko abenduan. Dena den, erabaki horren aurkako helegitea jarri dute Auzitegi Gorenean.

2009ko abenduaren 29an, 2009ko abenduaren 23ko 4/2009 Foru Araua sartu zen indarrean. Arau horrek zerga arloko hainbat aldaketa txertatzen eta 7/1996 Foru Araua aldatzen du. 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako zerga-aldietarako eraginak ditu eta, beste hainbat neurri gain, aktibo ez-korronte berriengatik dedukzioaren idazketa berria ezartzen du. 4/2009 Foru Arau horren aurkako helegitea jarri dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian.

Sozietate nagusiko administratzaileek 2009ko ekitaldirako zerga horrekin lotutako zergen eta ikuskapenerako irekita daudenen kalkuluak egin dituzte ekitaldi bakoitzaren itxieran indarrean zegoen foru-araudiaren arabera. Izan ere, jarduera judizialen amaierako ebazpenetik eta aurkeztutako helegiteetatik urteko kontuen inguruan (sozietate osoa kontuan hartuta) aldaketa nabarmenik ez dela eratorriko uste dute.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, zergak ezin dira behin betikoz ordaindutakotzat hartu aurkeztutako aitopenen zerga arloko agintariek ikuskatu arte edo lau urteko preskripzio-epea amaitu arte. 2009ko ekitaldia ixtean, Taldeak 2005eko eta hurrengo ekitaldiak Sozietateen gaineko Zerga ikuskapenerako irekita ditu. Gainera, 2006ko ekitaldikoak irekita ditu zergak Espainian ordaintzen dituzten sozietateen eta atzerriko sozietateen kasuan aplikagarriak diren gainerako zergetarako, aplikagarria den tokiko araudiaren arabera. Sozietate nagusiko administratzaileen ustez, aipatutako zergak behar bezala ordaindu dira; hori dela eta, eragiketei emandako zerga mailako trataeragatik indarrean dagoen araudiaren interpretazioan desadostasunak gertatuta ere, bertatik erator daitezkeen pasiboek (gauzatuko balira) ez lukete eragin aipagarririk izango honi atxikita azaltzen diren urteko kontuetan.

2009ko eta 2008ko ekitaldietan, Taldeak ez du itxi egiaztatzeko edo ikuskatzeko inolako jarduerarik.

Administratzaileen ustez, ez da Talderako pasibo gehigarri aipagarririk sortuko ikuskapenerako irekita dauden ekitaldietatik eta aurreko paragrafoetan aipatutako gaietatik eratorrita.

19. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK

Administrazio Publikoekin ditugun saldoen osaera honakoa da 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n:

| Mila euro | | | | | | | | | |
|--|--------------|---------------|--------------|---------------|--------------|---------------|--------------|---------------|--|
| Kontzeptua | 2009.12.31 | | | | 2008.12.31 | | | | |
| | Aktiboa | | Pasiboa | | Aktiboa | | Pasiboa | | |
| | Ez-korrontea | Korrontea | Ez-korrontea | Korrontea | Ez-korrontea | Korrontea | Ez-korrontea | Korrontea | |
| Gizarte Segurantza | - | 10 | - | 6.271 | - | - | - | 5.055 | |
| Ogasun publikoa | | | | | | | | | |
| Balio erantsiaren gaineko zerga (9. oharra) | 3.605 | 13.426 | - | 18.205 | 842 | 9.715 | - | 27.369 | |
| Beste batzuk | - | 5.953 | - | 2.211 | - | 1.275 | - | 1.101 | |
| Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren konturako atxikpenak | - | - | - | 4.831 | - | - | - | 4.099 | |
| Sozietateen gaineko Zerga (3.m oharra) | - | 4.368 | - | 12.823 | - | 1.821 | - | 23.722 | |
| Diru-laguntzengatik zordun den ogasun publikoa | - | 1.806 | - | - | - | 1.249 | - | - | |
| | 3.605 | 25.563 | - | 44.341 | 842 | 14.060 | - | 61.346 | |

20. HORNIDURA KORRONTEAK ETA EZ-KORRONTEAK

Hornidura ez-korronteak

Taldeak hornidurak zuzkitzen ditu, "Hornidura ez-korronteak" epigrafean, iraganeko gertakariak direla eta sortutako betebeharrak dela medio. Obligazioa amaitzen denean, zenbait baliabide uztekoa da Taldea, hura kitatzeko. Sozietate nagusiko administratzaileek data horretarako eginiko kalkulurik onena da zenbatekoa, eta egungo balioarekin erregistratzen da, finantza-eragina nabarmena bada, betiere. 2009ko eta 2008ko ekitaldietan, 877 mila euro eta 1.114 mila euroko ordainketak egin zituen Taldeak, eta 1.942 mila euro eta 3.583 mila euro eman ditu, galera eta irabazien kontu bateratuko "Pertsonal-gastuak. Soldadak eta lansariak" eta "Hornidurak" epigrafeen kontuan zordunduta gehienbat (22. oharra). Gainera, hornidura-eremuan gertatu ziren aldaketak zirela eta, 2008ko ekitaldian 471 mila eurotan handitu zen. 2009ko ekitaldian, honi atxikita dagoen egoera-balantze bateratuko "Beste pasibo ez-korronte batzuk" epigraferak 2.209 mila euroko zenbatekoa intsuldatu da.

Hornidura korronteak

Epigrafe honen mugimendua (3.ñ oharra) hau izan da 2009 eta 2008an (mila euro):

| | Garantiako, laguntzako, kontratu mailako erantzukizunetako eta abarretako zerbitzuak (3.f. eta 3.ñ oharra) | Beste zenbait hornidura (3m, 3ñ eta 8 oharra) | Guztira |
|---|--|---|----------------|
| 2007.12.31ko saldoa | 108.177 | 6.818 | 114.995 |
| Horniduren zuzkidura garbia (3.ñ eta 18 oharra) | 87.314 | (2.851) | 84.463 |
| 2008.12.31ko saldoa | 195.491 | 3.967 | 199.458 |
| Horniduren zuzkidura garbia (3.ñ eta 18 oharra) | 19.357 | (891) | 18.466 |
| Intsuldaketak | (57) | - | (57) |
| 2009.12.31ko saldoa | 214.791 | 3.076 | 217.867 |

2009ko abenduaren 31ko zuzkidurak fidagarritasunari (30 milioi euro, gutxi gorabehera), kontratu-erantzukizunei (77 milioi euro) eta bermeei (77 milioi euro) dagozkie batik bat.

2008ko abenduaren 31ko zuzkidurak fidagarritasunari (73 milioi euro, gutxi gorabehera), kontratu-erantzukizunei (29 milioi euro) eta bermeei (59 milioi) dagozkie batik bat.

Honi erantsitako 2009ko galera eta irabazien kontu bateratuko "Beste zenbait ustiapen-gastu" epigrafean 37.501 mila euroko gastua erregistratu da. Aldiz, "Hornidurak" kontuan 19.035 mila euroko sarrera erregistratu da (84.730 mila euro 2008ko ekitaldian). Ekitaldia ixtean beharrezkoak diren kontzeptu horien horniduren eta aurreko ekitaldiaren itxieran erregistratutakoen arteko diferentziari dagozkio zenbateko horiek. Kontratuak bermatzeko 2009ko eta 2008ko ekitaldietan emandako zerbitzuen gastuak (32.802 eta 25.834 mila euro, gutxi gorabehera eta hurrenez hurren) ondoko 2009ko eta 2008ko galera eta irabazien kontu bateratuko "Hornidurak" eta "Pertsonal-gastuak" epigrafeetan erregistratu ziren.

21. SARRERAK ETA GASTUAK

a) Hornidurak

| | Mila euro | |
|--------------------------------------|----------------|----------------|
| | 2009 | 2008 |
| Erosketak (*) | 711.828 | 481.927 |
| Beste enpresa batzuek egindako lanak | 82.009 | 37.181 |
| Izakinen aldaketa (11. oharra) | (33.689) | (45.866) |
| | 760.148 | 473.242 |

(*) % 94 euroguneko monetatan; gainerakoa, AEBko dolarretan, batik bat (2008an, % 92).

b) Ustiapeneko beste gastu batzuk

| | Mila euro | |
|--|----------------|----------------|
| | 2009 | 2008 |
| Kanpoko Zerbitzuak | 210.011 | 132.166 |
| Zergak | 4.356 | 3.193 |
| Eragiketa komertzialen horniduren aldaketa | 36.454 | 84.730 |
| Kudeaketa korronteko beste gastu batzuk | 4.251 | 10.623 |
| | 255.072 | 230.712 |

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A. ren eta mendeko sozietateen urteko kontuen (sei hilean behin egin beharreko berrikuspenak barne) auditoria-zerbitzuak (bateratua eta banakakoa) eskaintzearen inguruko ordainsariak 759 mila eurokoak izan ziren. Zenbateko horretatik, Deloitte izeneko mundu mailako erakundeko enpresek ikuskatutako sozietateen urteko ikuskapenei 541 mila euro dagozkie. Horrez gain, beste zerbitzu profesional batzuegatik 759 mila euro fakturatu dira; horietatik, 699 mila euro auditore nagusiari dagozkio.

c) Ingurumenari buruzko informazioa

2009ko eta 2008ko ekitaldietan 2.203 eta 697 mila eurokoak izan ziren, hurrenez hurren, ingurumena babesteko eta hobetzeko sistemetan, ekipoetan eta instalazioetan egindako eta ibilgetu materialean sartutako inbertsioak (8. oharra).

2009ko eta 2008ko ekitaldietan, Taldeak ez zuen jaso ingurumen arlorako diru-laguntzarik.

2009ko abenduaren 31n, Taldeak ez zuen ingurumena babestu eta hobetzearekin lotutako auzirik edo kontingentziarik. Taldeko Sozietateen Administrazioarekin ustez, ez da enpresaren ingurumen-jarduera dela-eta pasibo aipagarriarik sortuko. Horregatik, egoera-balantze bateratu honetan ez dago hornidurarik kontzeptu horretarako.

d) Ustiapenerako laguntzak

CENIT programaren deialdia arautzen duen CDTIren 2005eko urriaren 28ko ebazpenak (2005eko azaroaren 2ko BOE) dio CENIT programaren deiturapean diru-laguntzak ematea aurrez ikusten dela ikerkuntza industrialeko proiektu estrategiko handi eta irismen zientifiko-tekniko handiei.

2006ko martxoaren 21ean, CDTIren Behin-behineko Ebazpen Proposamena jaso zuen CAF Taldeak, beste enpresa batzuekin horretarako sortutako kontsurtzioko buru zelako. Proposamenak zioenez, 9.605 mila euroko diru-laguntzak emango zaizkio (guztira) Taldeari (6.734 mila euro, CAF Taldeari) teknologia berria garatzeko 2006tik 2009ra arteko ekitaldian. Kontsurtzioko enpresa bakoitzak hartzen du parte aurkeztutako proiektuaren fase guztietan, baita zentro teknologikoei egiten zaien azpikontratazioan ere. Taldeak programan barneratzea aurrez ikusitako zenbatekoa (14.451 mila eurokoa) gainditu du. 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n, 6.723 mila eta 5.120 mila euro (hurrenez hurren) jaso genituen CENIT programako diru-laguntzetatik.

2007ko azaroaren 21ean, CDTIren Behin-behineko Ebazpen Proposamena jaso zuen sozietateak, beste enpresa batzuekin horretarako sortutako kontsurtzioko buru zen aldetik. Proposamenak zioenez, 10.882 mila euroko diru-laguntzak emango zaizkio (guztira) Taldeari (5.200 mila euro, Taldeari) teknologia berria garatzeko (Ecotrans), 2008tik 2011ra arteko ekitaldian, CENIT programaren barruan. Aurkeztutako proiektuko fase guztietan hartzen du parte kontsurtzioko enpresa bakoitzak, baita zentro teknologikoei azpikontratazioan ere. Programak irauten duen bitartean, Taldeak aurrez ikusitakoaren arabera, 11.389 mila euroko kostuak izango ditu, guztira. 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n justifikatu beharreko gastuak, berriz, 3.386 mila eta 2.484 mila eurokoak izan dira hurrenez hurren. 2009ko abenduaren 31n, Ecotrans proiektuarekin lotutako kobratutako zenbatekoa 1.547 mila eurokoa izan da (1.134 mila eurokoa 2008ko abenduaren 31n). Urtero kobratutako zenbateko osoa 2009ko eta 2008ko emaitzetara egotzi da hurrenez hurren.

Laguntza horiek itzuli egin behar dira (merkatuan indarrean dagoen interes-tasa eta guzti) proiektu horietan aurrez ikusitako I+Gko inbertsioak egiten ez badira.

Atxikitako galera eta irabazien kontu bateratuko "Beste zenbait ustiapen-gastu" epigrafean 2009ko eta 2008ko ekitaldian erregistratutako ustiapeneko diru-laguntzen zenbatekoak 7.422 mila eta 8.001 mila eurokoak izan dira hurrenez hurren.

22. BATEZ BESTEKO LANGILE KOPURUA ETA PERTSONAL-GASTUAK

2009ko eta 2008ko batez besteko langileen kopuru baliokidea hau izan da:

| Maila profesionala | Batez besteko langile kopurua | |
|--------------------|-------------------------------|--------------|
| | 2009 | 2008 |
| Enplegatuak | 2.040 | 1.600 |
| Langileak | 3.722 | 3.158 |
| Guztira (*) | 5.762 | 4.758 |

(*) 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n, langileen kopurua 6.489 eta 5.108 pertsonakoa zen hurrenez hurren.

Langile gizonetzkoen eta emakumezkoen batez besteko kopuruak hauek izan ziren 2009an eta 2008an (sexuen arabera banakatuta):

| Maila profesionala | 2009 | | 2008 | |
|--------------------|--------------|--------------|--------------|--------------|
| | Gizonetzkoak | Emakumezkoak | Gizonetzkoak | Emakumezkoak |
| Enplegatuak | 1.582 | 458 | 1.273 | 327 |
| Langileak | 3.635 | 87 | 3.109 | 49 |
| Guztira | 5.217 | 545 | 4.382 | 376 |

Sozietateko administratzaile guztiak gizonetzkoak dira.

Bestalde, hauek dira pertsonal-gastuak, zehaztuta (mila eurotan):

| | 2009 | 2008 |
|--|----------------|----------------|
| Soldatak eta ordainsariak (3.k, 3.l eta 3.ñ oharrak) | 208.326 | 170.504 |
| Gizarte Segurantzza | 61.753 | 50.221 |
| Beste zenbait gastu (3.k oharra) | 10.040 | 8.741 |
| | 280.119 | 229.466 |

23. ADMINISTRAZIO KONTSEILUARI BURUZKO INFORMAZIOA

a) Administrazio Kontseiluari egindako ordainketak eta beste zenbait prestazio

Sozietate nagusiak, 1.035 mila eta 907 mila euro (gutxi gorabehera) erregistratu zituen Administrazio Kontseiluaren ordainsari eta dietatan, 2009an eta 2008an. Mendeko sozietateek ez dute inolako zenbatekorik erregistratu. 2009ko eta 2008ko abenduaren 31n, ez zegoen sozietate nagusiaren nahiz mendekoen Administrazio Kontseiluko oraingo zein lehengo kideei emandako aurrerakin, berme edo krediturik, eta Taldeak ez zuen bere gain harturik horiekiko inolako obligaziorik pentsio edo bizitza-aseguruengatik, 3.k oharrean adierazitakoak izan ezik.

b) Parte-hartzeen zehaztasuna antzeko jarduerak dituzten sozietateetan, edo haietan egindako karguetan edo funtzioetan, eta administratzaileek beren nahiz besteren kontura egiten dituzten antzeko jarduerak, Sozietate Anonimoen Legearen 127. ter. 4 artikulua xedatutakoa betez.

Administrazio Kontseiluko kideek eta beren ordezkariak partaidetza izan dute CAFen sozietate-helburua osatzen duten izaera bereko edo antzeko izaerako (edo osagarriko) jarduerak duten sozietateen kapitalean:

– Gipuzkoa Donostia Kutxa: % 95eko partaidetza du "Alquiler de Trenes, AIE" ren kapitalean, eta % 75ekoa "Alquiler de Metros, AIE" ren kapitalean. CAFekin batera eratutako sozietateak dira horiek (9. oharra).

Administrazio Kontseiluko gainerako kideek adierazi dute ez dutela partaidetzarik izan CAFen sozietate-helburua osatzen duten izaera bereko edo antzeko izaerako (edo osagarriko) jarduera duten sozietateen kapitalean, eta ez dutela haietan kargurik edo funtziorik betetzen, non eta ez den zenbait administratzailek Sozietatean duten karguari zor zaion jarduera bera (9. oharra). Alegia:

| Sozietatea | Jarduera | Aipatutako sozietatean dituen karguak edo betetzen dituen funtzioak | Izena |
|---|--|--|-----------------------|
| CAF I+D, S.L. (kide bakarreko sozietatea) | Ikerketa eta Garapena | Administratzaile bakarra | José María Baztarrica |
| Construcciones Ferroviarias CAF-Santana, S.A. | Tren-ekipoen fabrikazioa | Lehendakaria | José María Baztarrica |
| Construcciones Ferroviarias CAF-Santana, S.A. | Tren-ekipoen fabrikazioa | Kontseilari delegatua | Alejandro Legarda |
| Construcciones Ferroviarias de Madrid, S.L. (kide bakarreko sozietatea) | Tren-ekipoen fabrikazioa | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| Ferrocarriles Suburbanos, S.A. de C.V. | Era guztietako lurreko garraio-zerbitzuak ematea | Lehendakaria | Alejandro Legarda |
| Constructora de Sistemas Ferroviarios, S.L. | Tren-lineak ustiatzeko diseinua eta ekipamendua | Lehendakaria | Alejandro Legarda |
| Urbanizaciones Parque Romareda, S.A. (kide bakarreko sozietatea) | Akzioak edukitzea | Administratzaile bakarra | Alejandro Legarda |
| Traintic, S.L. | Elektronika-gaiak egitea | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| CAF USA, Inc. | Tren-ekipoen fabrikazioa | Lehendakaria | José María Baztarrica |
| CAF México, S.A. de C.V. | Ekipamenduen fabrikazioa eta mantentze-lanak | Lehendakaria | José María Baztarrica |
| CAF Argentina, S.A. | Tren-ekipoen mantentze-lanak | Lehendakaria | José María Baztarrica |
| CAF Rail UK, Ltda. | Tren-ekipoen mantentze-lanak | Administratzaile bakarra | José María Baztarrica |
| CAF Italia, S.R.L. | Tren-ekipoen mantentze-lanak | Administratzaile bakarra | José María Baztarrica |
| Constructora Mex. del Ferrocarril Suburbano, S.A. de C.V. | Tren-lineak ustiatzeko diseinua eta ekipamendua | Lehendakaria | Alejandro Legarda |
| Trenes de Navarra, S.A.U. | Tren-ekipoen fabrikazioa | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| CAF Chile, S.A. | Tren-ekipoen fabrikazioa | Lehendakaria | Andrés Arizcorreta |
| Desarrollo Software Miramon 4, S.L. | Softwarearen garapena | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| Sempere Componentes, S.L. | Osagaiak merkaturatzea | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |

| Sozietatea | Jarduera | Aipatutako sozietatean dituen karguak edo betetzen dituen funtzioak | Izena |
|---|--|--|-----------------------|
| Bizkaia Ferroviaria, S.L. | Ingeniaritza-zerbitzuak | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| Centro de Ensayos y Análisis Cetest, S.L. | Entseguak eta homologazioak | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| Trainelec, S.L. | Potentziako ekipo elektronikoak | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| Nuevas Estrategias de Mantenimiento, S.L. | Irtenbide teknologikoak | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| Ibaia Energía, S.L. | Energia-sortzea | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| Compañía de Vagones del Sur, S.A. | Karga-bagoien fabrikazioa | Kontseilaria | Alejandro Legarda |
| Agarregune, S.L. | Eraikinak egitea, mugikortasunaren alorreko enpresak atzeman eta sustatzea | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| CAF Argelia, E.U.R.L. | Tren-ekipoak egitea eta mantentzea | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| CAF Francia, S.A.S. | Tren-ekipoak egitea eta mantentzea | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| CAF Turquía, L.S. | Tren-ekipoak egitea eta mantentzea | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| Constructions Ferroviaires de Bagnères, S.A. | Tren-ekipoak egitea eta mantentzea | Kontseilaria | Andrés Arizcorreta |
| Gestión Elaboración de Manuales Industriales Ingeniería y Servicios Complementarios, S.L. | Ekipo industrialak diseinatzea | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| Seinalia, S.L. | Seinaleztatze- eta segurtasun-ekipoak fabrikatzea eta saltzea | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| Constructions Ferroviaires de Bagnères, S.A. | Tren-ekipoak egitea eta mantentzea | Kontseilaria | Alejandro Legarda |
| Plan Metro, S.A. | Trenetako material mugikorra | Lehendakaria | Alejandro Legarda |
| Trenes CAF Venezuela, C.A. | Tren-ekipoak egitea eta mantentzea | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| Garraio-tech, S.L. | Garraio-zerbitzuak | Administratzaile bakarra | Andrés Arizcorreta |
| Houston LRV 100, LLC | Tren-ekipoak egitea eta mantentzea | Lehendakaria | José María Baztarrica |
| Inversiones en Concesiones Ferroviarias, S.A. | Akzioak edukitzea | Administratzaile solidarioa | Andrés Arizcorreta |
| Inversiones en Concesiones Ferroviarias, S.A. | Akzioak edukitzea | Administratzaile solidarioa | Alejandro Legarda |

24. ZUZENDARITZA GORENARI EGINDAKO ORDAINKETAK

Sozietateko gobernu-txosten lotesleak agintzen duenez, sozietate nagusiko goi-zuzendaritzaren pertsonal-gastuak (diru-ordainketak, jenerotan egindako ordainketak, Gizarte Segurantzza eta abar) aurreko oharrean banakatu dira, aldi berean Administrazio Kontseiluko kide ere baitira.

2009ko eta 2008ko ekitaldietan ez da negozioaren jardun arruntaz besteko eragiketarik egin zuzendariekin.

25. ABALAK, BERMEAK ETA BESTELAKO AKTIBO ETA PASIBO KONTINGENTE BATZUK

2009ko abenduaren 31n, finantza-erakundeek eta aseguru-konpainiek merkataritza-eragiketak betetzea bermatzeko hirugarrenen alde taldeari emandako abalen zenbatekoa 2.015.496 mila eurokoa zen (2008ko abenduaren 31n, 1.591.677 mila eurokoa). Abal teknikoak ziren gehienak, jasotako eskaerak beteko direla bermatzeko aurkeztuak. Zenbateko horretatik, 105.773 mila euro Zientzia eta Teknologia Ministerioak (15. oharra) eta beste zenbait erakunde publikok emandako diru-laguntzen eta itzuli beharreko aurrerakinen abalei dagozkie.

2009ko ekitaldian, CAF Taldeak ez du Taldeak Mexikoko emakidan egindako erreklamazioaren inguruan 7. oharrean azaldutako aktibo kontingenteaz gain beste aktibo edo pasibo kontingente aipagarririk identifikatu.

26. ITXIERA ONDORENGO GERTAERAK

2009ko abenduaren 31n, 4.335.623 mila euro inguruko eskaera-zorroa zuen kontratu irmoarekin eta konturako egindako fakturazioen zenbatekoak kenduta (4.137.431 mila euro 2008ko abenduaren 31n) (11. oharra). 2010eko urtarrilaren 31n, 4.249.293 mila eurokoa zen zenbateko hori.

2010eko otsailaren 12an, Sao Pauloko 8. linearen flotako prebentziozko eta zuzenketako mantentze-lanak, berrikuspen orokorra eta modernizazioa egiteko kontratua esleitu diote. Horren zenbatekoa, gaur egungo balioaren arabera, 700 milioi euro ingurukoa da.

Administrazio Kontseiluaren Onarpena

| | |
|---|---|
| JOSÉ M ^a BAZTARRICA GARIJO jauna | Lehendakaria |
| ANDRÉS ARIZCORRETA GARCÍA jauna | Kontseilari delegatua |
| ALEJANDRO LEGARDA ZARAGÜETA jauna | Kontseilari zuzendari nagusia |
| JOSÉ ANTONIO MUTILOA IZAGIRRE jauna | Kontseilaria, Gipuzkoa Donostia Kutxa Ordezkaría |
| LUIS MIGUEL ARCONADA ECHARRI jauna | Kontseilaria |
| JOSÉ MIGUEL DE LA RICA BASAGOITI jauna | Kontseilaria |
| FERMÍN ARRESE ARRATIBEL jauna | Kontseilaria |
| XABIER GARAIALDE MAIZTEGUI jauna | Kontseilaria |
| JOSÉ IGNACIO BERROETA ECHEVARRIA jauna | Kontseilaria |
| JUAN JOSÉ ARRIETA SUDUPE jauna | Kontseilaria |
| ALFREDO BAYANO SARRATE jauna | Idazkaría |

Idazkariak jaso du diligentsia hau, eta CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.k eta mendeko sozietateek osatzen duten CAF Taldearen (bateratua) 2009ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontu bateratuak eta kudeaketa-txosten bateratua 2010eko otsailaren 24ko bileran Administrazio Kontseiluko kideek formulatu ondoren (2009ko abenduaren 31n itxitako ekitaldiko urteko kontuak ere zegokienean egin ziren), agiri hau sinatu dute. 1818tik 1958ra, biak barne, elkarren segidan zenbakitutako 141 orri ditu agiriak, guztiak ere idazkariak ontzat emanak eta sinatuak eta lehendakariak berretsiak. Testu-amaieran, administratzaile guztiek sinatu dute agiria.

Donostian, 2010eko otsailaren 24an

Onespena

LEHENDAKARIA

JOSÉ M^a BAZTARRICA GARIJO

Onespena

KONTSEILUKO IDAZKARIA

ALFREDO BAYANO SARRATE

Administrazio Kontseiluak batzar nagusiak onar ditzan aurkeztu dituen erabakiak

Ohiko Batzar Nagusia enpresaren helbidean egingo da, Beasainen, Gipuzkoan, 2010eko ekainaren 5ean, 12:00etan, lehen deialdeian, eta, hala badagokio, hurrengo egunean, leku eta ordu berean.

Lehena. Aztertzea eta onartzea –hala badagokio– Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, S.A.ren eta haren mendeko sozietate-talde bateratuaren urteko kontuak (2009ko ekitaldikoak) eta Administrazio Kontseiluaren kudeaketa.

Bigarrena. 2009ko ekitaldiari dagokion emaitza aplikatzeko proposamena onartzea, akzioko 10,5 euroko (zenbateko gordina) dibidendua banatuz.

Hirugarrena. Elkarteko Administrazio Kontseiluari baimena ematea akzio propioak deribazioz eros ditzan, Legeak eskatzen duenaren arabera, baliorik gabe utzirik 2009ko ekainaren 6an bildutako Akziodunen Ohiko Batzar Nagusiaren erabakiz emandako baimena.

Laugarrena. Kontseilaren berrauketa.

Bosgarrena. Kontu-ikuskatzaileak berrautatzea.

Seigarrena. Administrazio Kontseiluari eskumena ematea, behar den zabaltasun guztiarekin, hala eskatzen duten aurreko akordioak publiko egin ditzan, eta berriazko eskumenak ematen zaizkio esandako akordioak argitu, zuzendu edo osatu ditzan, Merkataritza Erregistratzailearen ahozko edo idatzizko kalifikazioaren arabera, eta behar diren egintza guztiak egin ditzan beroriek Merkataritza Erregistroan inskibatzea lortzeko.

Zazpigarrena. Bilkuraren akta onartzea.

Emaizta aplikazio proposamena

Sozietate nagusiaren zerga ondorengo 133.631 mila euroko emaitza aplikatu 35.995 mila euro dibidenduetara eta 97.636 mila euro borondatezko erreserbetera eskainiz.

Administrazio Kontseilua

| | |
|---|--|
| JOSÉ M ^º BAZTARRICA GARIJO jauna | Lehendakaria |
| ANDRÉS ARIZCORRETA GARCÍA jauna | Kontseilari delegatua |
| ALEJANDRO LEGARDA ZARAGÜETA jauna | Kontseilari zuzendari nagusia |
| JOSÉ ANTONIO MUTILOA IZAGIRRE jauna | Kontseilaria, Gipuzkoa Donostia Kutxa Ordezkarria |
| LUIS MIGUEL ARCONADA ECHARRI jauna | Kontseilaria |
| JOSÉ MIGUEL DE LA RICA BASAGOITI jauna | Kontseilaria |
| FERMÍN ARRESE ARRATIBEL jauna | Kontseilaria |
| XABIER GARAIALDE MAIZTEGUI jauna | Kontseilaria |
| JOSÉ IGNACIO BERROETA ECHEVARRIA jauna | Kontseilaria |
| JUAN JOSÉ ARRIETA SUDUPE jauna | Kontseilaria |
| ALFREDO BAYANO SARRATE jauna | Idazkarria |

2010eko otsailaren 24ean, Administrazio Kontseiluko kideek kapital sozialaren % 17,75 zuten.



Informazio Osagarria 2005-2009

Egoera-balantze bateratuak
Galdu-irabazien kontu bateratuak
Burtsari Buruzko Informazioa

2009, 2008, 2007, 2006, 2005 eko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratuak (mila eurotan)

| Aktiboa | 2009 | 2008 | 2007 | 2006 | 2005 |
|--|------------------|------------------|------------------|------------------|----------------|
| Aktibo ez-korrontea: | | | | | |
| Ibilgetu ukiezina | | | | | |
| Merkataritza-funtsa | 5.892 | 5.447 | 48 | - | - |
| Beste ibilgetu ukiezin bat | 163.908 | 167.725 | 197.508 | 101.289 | 12.633 |
| | 169.800 | 173.172 | 197.556 | 101.289 | 12.633 |
| Ibilgetu materiala, garbia | | | | | |
| Partaidetza-sistemaren bidez | | | | | |
| kontabilizatutako inbertsioak | 12.191 | 13.468 | 2.064 | 835 | 729 |
| Finantza-aktibo ez-korronteak | 51.987 | 60.781 | 25.871 | 34.355 | 27.705 |
| Zerga geroratuengatikoko aktiboak | 88.847 | 72.582 | 44.409 | 13.430 | 5.036 |
| Aktibo ez-korrontea, guztira | 597.458 | 524.633 | 441.823 | 305.518 | 192.510 |
| Aktibo korrontea: | | | | | |
| Izakinak | | | | | |
| Zordun komertzialak eta kobratu | 336.624 | 78.875 | 18.929 | 50.893 | 67.389 |
| beharreko beste kontu batzuk | | | | | |
| Salmenta eta zerbitzu-prestazioengatikoko bezeroak | 814.186 | 642.556 | 334.372 | 402.178 | 324.956 |
| Beste zordun batzuk | 42.768 | 39.072 | 21.144 | 15.629 | 10.795 |
| Zerga korronteagatikoko aktiboak | 4.368 | 1.821 | 1.607 | 1.008 | 1.653 |
| | 861.322 | 683.449 | 357.123 | 418.815 | 337.405 |
| Beste finantza-aktibo korronte batzuk | 468.818 | 509.539 | 454.835 | 270.659 | 40.800 |
| Beste aktibo korronte batzuk | 3.172 | 396 | 324 | 820 | 580 |
| Eskudirua eta beste zenbait aktibo | | | | | |
| likido baliokide | 81.727 | 116.714 | 24.212 | 9.898 | 1.904 |
| Aktibo korrontea, guztira | 1.751.663 | 1.388.973 | 855.423 | 751.086 | 448.078 |
| Aktiboa, guztira | 2.349.121 | 1.913.606 | 1.297.246 | 1.056.604 | 640.589 |


| Pasiboa eta ondare garbia | 2009 | 2008 | 2007 | 2006 | 2005 |
|--|------------------|------------------|------------------|------------------|----------------|
| Ondare garbia | | | | | |
| Funts propioak | | | | | |
| Eskrituratutako kapitala | 10.319 | 10.319 | 10.319 | 10.319 | 10.319 |
| Jaulkipen-prima | 11.863 | 11.863 | 11.863 | 11.863 | 11.863 |
| Errebalorizazio-erreserba | 58.452 | 58.452 | 58.452 | 56.509 | 56.551 |
| Sozietate Nagusiaren eta integrazio orokor eta partaidetza sistema bidez bateratuko sozietateen beste arreserba batzuk | 268.294 | 195.648 | 136.070 | 106.058 | 92.901 |
| Sozietate nagusiari egotzitako ekitaldiaren emaitza | 124.343 | 105.741 | 87.626 | 34.639 | 18.143 |
| | 473.271 | 382.023 | 304.330 | 219.388 | 189.777 |
| Balio-aldaketengatiko doikuntzak | | | | | |
| Bihurtze-diferentziak | (13.702) | (19.697) | (3.914) | 3.957 | 1.164 |
| Estaldura-eragiketak | (70) | (204) | 496 | 16 | (984) |
| | (13.772) | (19.901) | (3.418) | 3.973 | 179 |
| Sozietate nagusiko akziodunei egotz dakiekeen ondare garbia | 459.499 | 362.122 | 300.912 | 223.361 | 189.957 |
| Gutxiengodun interesak | 12.946 | 15.208 | 3.574 | 2.670 | 2.659 |
| Ondare garbia, guztira | 472.445 | 377.330 | 304.486 | 226.031 | 192.615 |
| Pasibo ez-korrontea: | | | | | |
| Zuzkidura ez-korronteak | 2.661 | 3.812 | 872 | 1.301 | 1.362 |
| Finantza-pasibo ez-korronteak | | | | | |
| Kreditu-erakundeekiko zorrak | 187.577 | 160.349 | 161.232 | 96.709 | 37 |
| Beste finantza-pasibo batzuk | 62.763 | 65.937 | 92.411 | 83.887 | 63.471 |
| | 250.340 | 226.286 | 253.643 | 180.596 | 63.508 |
| Zerga geroratuengatiko pasiboak | 36.994 | 21.356 | 20.593 | 24.491 | 18.365 |
| Beste pasibo ez-korronte batzuk | 4.008 | - | - | - | - |
| Pasibo ez-korrontea, guztira | 294.003 | 251.454 | 275.108 | 206.389 | 83.236 |
| Pasibo korrontea: | | | | | |
| Zuzkidura korronteak | 217.867 | 199.458 | 114.995 | 82.310 | 39.520 |
| Finantza-pasibo korronteak | | | | | |
| Kreditu-erakundeekiko zorrak | 15.817 | 16.564 | 26.110 | 270 | 185 |
| Beste finantza-pasibo batzuk | 21.137 | 29.173 | 20.586 | 20.171 | 16.839 |
| | 36.954 | 45.737 | 46.696 | 20.441 | 17.024 |
| Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk | | | | | |
| Hornitzaileak | 521.510 | 445.668 | 235.016 | 224.682 | 153.800 |
| Beste hartzekodun batzuk | 793.201 | 569.792 | 298.458 | 278.218 | 147.513 |
| Zerga korronteagatiko aktiboak | 12.823 | 23.722 | 21.852 | 18.115 | 6.449 |
| | 1.327.534 | 1.039.182 | 555.326 | 521.015 | 307.762 |
| Beste zenbait pasibo korronte | 318 | 445 | 635 | 418 | 432 |
| Pasibo korrontea, guztira | 1.582.673 | 1.284.822 | 717.652 | 624.184 | 364.738 |
| Pasiboa eta ondare garbia, guztira | 2.349.121 | 1.913.606 | 1.297.246 | 1.056.604 | 640.589 |

2009, 2008, 2007, 2006, 2005 eko abenduaren 31ri dagozkion galdu-irabazien kontu bateratuak (mila eurotan)

| (Zorrak) Hartzekoak | 2009 | 2008 | 2007 | 2006 | 2005 |
|---|-----------------|----------------|---------------|----------------|---------------|
| Eragiketa jarraituak: | | | | | |
| Negoio-zifraren zenbateko garbia | 1.258.041 | 1.004.951 | 874.474 | 805.727 | 680.798 |
| +/- Produktu bukatuen eta fabrikazio-bidean dauden produktuen izakinen aldaketa | 186.063 | 10.177 | (111.892) | (82.481) | 269 |
| Enpresak bere aktiborako egindako lana | 827 | 119 | 22 | 67 | 30 |
| Zuzkidurak | (760.148) | (473.242) | (314.182) | (349.460) | (396.262) |
| Beste zenbait ustiapen-sarrera | 11.698 | 40.646 | 1.989 | 1.101 | 856 |
| Pertsonal-gastuak | (280.119) | (229.466) | (200.130) | (188.224) | (165.881) |
| Beste ustiapen-gastu batzuk | (255.072) | (230.712) | (122.250) | (122.771) | (74.452) |
| Ibilgetuaren amortizazioa | (26.874) | (20.674) | (15.120) | (18.019) | (16.599) |
| Ibilgetuaren hondatzeagatiko eta besterentzeagatiko emaitza | 2.407 | 182 | 22 | 615 | (446) |
| Beste emaitza batzuk | (1.051) | 373 | (26.849) | (3.061) | (4.984) |
| Ustiapen-emaitza | 135.772 | 102.354 | 86.084 | 43.495 | 23.330 |
| Finantza-sarrerak | 6.763 | 17.156 | 8.527 | 1.641 | 459 |
| Finantza-gastuak | (26.670) | (12.943) | (609) | (2.695) | (5.769) |
| Truke-desberdintasunak | 3.947 | 2.781 | 3.709 | (16) | 4.425 |
| Hondatzeagatiko eta finantza-tresnak besterentzeagatiko emaitza | 845 | (2.642) | (107) | (203) | |
| Finantza-emaitza | (15.115) | 4.352 | 11.520 | (1.273) | (885) |
| Partaidetza-sistemaren bidez baloratutako erakundeen emaitza | (524) | (294) | 387 | 298 | 205 |
| Zergak ordaindu aurreko emaitza | 120.133 | 106.412 | 97.991 | 42.519 | 22.650 |
| Irabazien gaineko zerga | (427) | 296 | (9.690) | (7.869) | (4.469) |
| Eragiketa jarraituei dagokien ekitaldiko emaitza | 119.706 | 106.708 | 88.301 | 34.650 | 18.180 |
| Ekitaldiko emaitza bateratua | 119.706 | 106.708 | 88.301 | 34.650 | 18.180 |
| Honi egotzia: | | | | | |
| Sozietate nagusiari | 124.343 | 105.741 | 87.626 | 34.639 | 18.143 |
| Gutxiengodun interesak | (4.637) | 967 | 675 | 12 | 37 |
| Akzioko irabaziak (eurotan) | | | | | |
| Oinarrizkoa | 36,27 | 30,85 | 25,56 | 10,10 | 5,29 |
| Diluitua | 36,27 | 30,85 | 25,56 | 10,10 | 5,29 |

Burtsari Buruzko Informazioa

2009ko abenduaren 31n, 3,01 euroko balio nominaleko 3.428.075 akzioz osatuta zegoen Sozietate nagusiaren 10.318.506 euroko kapital soziala. Akzio horiek kontu-idazpen bidez ordezkaturata eta guztiz harpideturata eta ordainduta zeuden. Guztiek Burtsan kotizatzen dute.



| | 2009 | 2008 | 2007 | 2006 | 2005 |
|------------------------------------|---------------|-------------|-------------|-------------|-------------|
| Burtsa-kapitalizazioa | | | | | |
| Datuak abenduaren 31n | 1.289.299.008 | 856.675.943 | 947.862.738 | 466.218.200 | 312.983.248 |
| Datuak akzioko | | | | | |
| Mozkin garbiak akzioko (BPA) | 36,27 | 30,85 | 25,56 | 10,10 | 5,29 |
| Mozkin garbiak zergen aurretik | 35,04 | 31,04 | 28,58 | 12,40 | 6,61 |
| Dividenduak akzioko | 10,5 | 9,5 | 8,5 | 3,20 | 1,60 |
| Kontabilitate-balioa akzioko (VC) | 134,04 | 105,63 | 87,78 | 65,16 | 55,41 |
| Burtsa-ratioak | | | | | |
| PER (Batez besteko kotizazioa/BPA) | 8,27 | 8,39 | 9,56 | 11,14 | 15,38 |
| Batez besteko kotizazioa/EBITDA | 6,2 | 7,25 | 8,3 | 6,25 | 6,96 |
| PVC (Batez besteko kotizazioa/VC) | 2,24 | 2,45 | 2,78 | 1,73 | 1,47 |
| Errentagarritasuna dibidenduko | 3,5% | 3,67% | 3,48% | 2,84% | 1,97% |
| Pay-out (Dibidendua/BPA) | 28,95% | 30,80% | 33,25% | 31,67% | 30,23% |



CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, S.A.

EMPRESAREN HELBIDEA

José Miguel Iturrioz, 26
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)
Telefonoa: +34 943 88 01 00
Fax: +34 943 88 14 20
Email: caf@caf.net

BULEGO NAGUSIAK

Padilla, 17
28006 MADRID
Telefonoa: +34 91 436 60 00
Fax: +34 91 436 03 96
Email: caf@caf.net

AKZIODUN SAILA

José Miguel Iturrioz, 26
20200 BEASAIN (Gipuzkoa)
Telefonoa: +34 943 189 262 (Akziodunen arreta zerbitzu telefonoa)
Fax: +34 943 189 263
Email: accionistas@caf.net